



SAINDUEN BIZITZEA

Bazilio Joanategi

Iturria: *Sainduen bizitzea*, Bazilio Joannateguy. Lasserre, 1890.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/J/JoanategiSainduen.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

SAINDUEN BIZITZEA

AITA BAZILIO JOANNATEGUY
BENEDIKTANOAK
ARGITARAT EMANA

Tolle, lege.
Har zazu eta irakur.
(San Agustinen bizitzean)

LEHEN ZATIA

BAIONAN
LASSERRE BATHAN INPRIMATUA
1890



BAIMENA

Gure Aita Aintzindariaren manuz irakurri eta etsaminatu dugu Aita Bazilio Joannateguyk argitarat eman duen liburu hau Sainduen Bizitzea. Ez dugu aurkhitu liburu huntan deusere Fede katolikoaren kontra denik; aitzitik uste dugu ongi handia eginen diotela irakurtuko dutenei.

Bastidako gure Abadian, martxoaren 1ean 1890ean
Aita AGUSTIN BASTRES
Aita PIERRE-DAMIEN-LAPEYRE

BAIMENA

Guk, diosesako Bikario Kapitularak, ikhusi ondoan Aita Agostin Bastres, Beneditanoen Jaun Priore ohogarriak eta Aita Damien Lapeyrek eman dioten aprobazionea, gogotik onesten dugu argitarat eman dadin, Aita Bazilio Joannateguy, Beneditanoak euskaraz ezarri duen Sainduen Bizitzea; ez baita irakurtze salbagarriagorik eta arimen berthutean aintzinarazteko gaiago denik, nola Sainduen exemplu ederren ikhustea eta hekien gogoan atxikitzea. Gutiziatzeko litake etxe guzietan bat izan dezaten Euskaldunek; eta arratsetan, elkharrekin bilduak direnean familiako membro guziak, irakur dadin Saindu baten bizitzearen parthe bederen.

Bajonan emana, martxoaren 3an 1890an
INCHAUSPE, Bikario Kapitulara

MURDE INTXAUSPE, BIKARIO JENERALARI

Bastidako Abadian, martxoaren 1ean 1890an

Eskual-Herrian zerbeit dakiten guziek aditua eta jakina dute zein khartsuki nahi zinuken Eskualdunen fedea bethi hazkar egon dadin, Eskualdunak gero-eta-gehiago saindu ditezen.

Nik ere xede bera nuen egin nuenean nere lehen liburua *Ehun-bat Sainduen Bizitzea*, eta gero ere bai lotu nintzenez orai agertzera dohan liburu berriaren egiteari.

Halarik ere zenbat aldiz, bere lanak lotsatua, ez naiz gogoetan jarri? Eta izan diteke ez nuela deusik eginen, ezpanintz orhoitu adiskide argitu batzuei eta bertzei eta bereziki zuri entzunikako solhas on zenbeitez.

Ezta beraz sobera eskain dezautzudan.

Onets ezazu, othoi, nere bizi guzian zure alderat izanen ditudan eza-gutzaren eta ikustatearen seinaleztat.

Hartzen duzularik zure gerizan, errekiago hedatuko da orai, Apezpiku gabe garen huntan, diosesaren buru zarelarik, zure meneko dituzun Eskualdunen artean; eta horrela on gehiago eginen diote Aita Agustin Bastres, gure Abadiako Aintzindari errespetagarriaren manuz, zenbeit aldiz predikari gaituzten arima Jainkotiarrei.

Liburu hunek izanen ote du, bere ondotik, bertze lagunik? Eztakit; denborak erranen du: Eskualdunek zer begitarte egiten dioten.

Dena-dela, Jainko Jaunak iduk zaitzauzkula luzez orai arte zinuen karguan, egin ahal dezozun gero-eta on gehiago gure Eskual-Herri maiteari.

Osorik zure meneko den zerbitzari umila,
A. BAZILIO JOANNATEGUY,
O.S.B.

EUSKALDUNEI BI HITZ

Lehenago 1876an agerrarazi nuen *Ehun-bat sainduen bizitzeak* atsegin egin zautzuela erakutsi zinuten ederki, erosi zinituztenaz geroz bi urterik barnean orduan inprimarazi nituen bi milak.

Handik goiti banituen bethi eta bethi galdeak ian ez ote nuen gehiago. Noizbeit hasi naiz berriz ere lanean, eta egin dut bertze liburu bat berri-berria, eta nere ustez lehen hura baino eskuara errexagoan.

Ezen orduz geroz ibili naiz herriz-herri, eta eman dut ahalaz kontu nola mintzo zineten zuen artean; irakurtu ditut ere beren eskuara ederraren gatik guziz aipatuak diren liburu batzu; eta hortakotz iduritzen zait frantsesik eztakitenak bezalatsu mintzo naizela.

Saindu haukien bizitzean aurkhitu badut Jainkoak agindu diotela zenbeit grazia, zenbeit fabore hekien alderat debozione izanen dutenei, edo hekien ohoratzeko othoitz zerbeit eginen dutenei, agintza hek ezagu-



tarazi ditut bederen gehienetan; hargatik ez nuke nahi nihork eratzik dezoten Elizak onesten duen baino sineste gehiago.

Eta orai, Eskualdun maiteak, erranen darotzuet har detzatzuen begien aintzinean, eta atxik gogoan liburu huntako Sainduen etsenpluak. Hori izanen da zuentzat irakaspén salbagarri bat, bertutea pratikaraziko dautzuen eta sainduaraziko zaituztena, eta nik baduket nere lanarentzat bilhatzen dudán sari guzia.

A. BAZILIO

JESU-KRISTO GURE JAUNA

Jesu-Kristo Gure Jaunaz zenbeit hitz

Gure lehen burasoak baztertu zirenean zeruko bidetik, debekatua zitzaioten fruitu bat jenez, Jainkoak etzituen halere madarikatu; bainan madarikatu zuen Satan, gure arimen etsai nagusia, eta ordu berean kontsolatu Adam eta Eba, gure lehen burasoak, sugeari buruz erran zituen hitz hautaz:

«Etsaigoa ezarriko diat emaztearen eta hire artean, emaztearen ondokoen eta hiren artean, eta etsaigo harrek iraunen dik menderen mende, munduaren akhabantzaraino. Eta egun batez, hire amarru guzien gatik ere, emazteak lehertuko darok burua».

Horra nola egin izatu zitzaion gizonari, bekhatuan erori zeneko, agintza maite hau: ethorriko zitzaiola Bitarteko botheretsu bat, bakeak eginaraziko ziozkana bere Jainko Jaunarekin.

Hitz horien bidez oraino, agindua zitzaion, Bitarteko harrek atheratuko zuela debruaren esklabotasunetik, eta pagatuko zituela Jainkoaren alderat zituen zor guziak.

Bainan nor da Jainkoaren eta gizonaren artean jartzen ahal den Bitartekoa? Nork ezezta detzazke bekhatuak Jainkoari egin diozkan laido ikharagarriak? Nor da gai dena jasaiteko hainbertze bekhatuk merezitu darozkiguten gaztigu handiak?

Jainkoaren Semea; Jainkoaren Seme gure gatik gizon eginen dena.

Eternitate guzian eztukegu bertze lanik, baizik ere Jainkoaren eta haren Seme bakhar, Jesu-Kristo Gure Jaunaren ezagutzea eta maitatzea.

Ezta beraz sobera egin dezagun gure egin-ahala, mundu huntan berean, Jainkoaren eta Jesu-Kristoren ezagutzeko eta maitatzeko.

Munduan gareino, Jainkoaren ezagutzeko dugun bide on bat da, ikustea Jesus Jaunak eta Sainduek zer egin duten, Jainkoaren gatik eta Jainkoaren ohoratzea gatik, eta gero, Jainkoak nola ekharri dituen dela Jesus gure bekhatuak bere gain zituena, dela Sainduak askotan bekhaturik batere gabe zirenak.

Lehenik, ikusiko dugu Jesus Jaunaren ixtorioa.

Bainan kontatu baino lehen Jesusen sortzea, bizitzea, hiltzea eta piztea, behar dugu ikusi Jainkoak nola ezagutarazten zioten Juduei Mesias agindua eta igurikia.



Ikusiko dugu beraz Jainkoak zer erraten zioten Patriarkhei eta Profetei; eta gero oraino, nola munduan izatu diren gerthakari handiek berek adiarazten zituzten Jesus Jaunari gerthatu behar zitzaizkon asko gauza.

LEHEN PONTUA

Patriarkhek eta Profetek

zer erraten zuten Mesias aginduaz

Salbatzaile Jauna etzen ethorri beharra mundurat, hainitz urthe eta menderen buruan baizik.

Horra zertako Jainkoak berritzen zioten noizetik-noizera Patriarkhei lehenago Adami egin zion agintza hura bera.

Huna zer erran zion Abrahami:

«Zeren zure semea bera hiltzera zinaraman niri obeditzea gatik, nere benedizioeak jautsiko dire zure gainerat. Izanen da beraz lurrean zure odoletikako haurretarik, zeruan izar bezenbat, eta, itsas bazterrean, hare edo sable bihi bezenbat.

»Eta lurreko jende guziak benedikatuak izanen dire zutarik sorthuko dena baithan».

Jakop patriarkha eri gaizki zen; hiltzera zohalarik beraz, erran zion Judas bere laugarren semeari, haren familiatik sorthuko zela Salbatzaile agindua.

Moisek erran zioten Juduei bozkariarik handiengan:

«Jainkoak agerraraziko darotzue, zuen artean, nere iduriko igarle edo profeta bat. Beha zakizkote ongi».

Jop sailduak ere hura zuen gogoan, hitz hauk erraten zituelarik:

«Badakit nere Eroslea bizi dela; badakit ere azken egunean piztuko naizela, eta nere begi hautaz berez ikusiko dudala nere Jainkoa».

Dabit erregeak ikusi ditu eta kondatu, diteken ederkiena, Salbatzaile Jaunaren umiliazioneak eta loria distiranta.

Ikusi du hura Jainko dena, bere Aita bezala, Gizon egina; eskuak eta zangoak zilhatuak, hezurak ageri; edaterat ematen diotela beazunez eta ozpinez eginikako edari khirets bat; eta han dituela bere etsaiak, odolez ezin ase ditezken zakhur errabiatu batzuen pare.

Eta gero, ikusi du Jesus Jauna, bere etsai guziak garhaitu ondoan, jarria bere Aitaren eskuinean, loria eta ohore suerte guzien erdian.

Isaias profeta irakurtzean, gogoetatzeko ere bada, ian, Jesu Kristo ethorri ondoan ala aintzinean mintzatu den. Hain da garbiki mintzo Nagusi maite hartaz.

«Hemen dugu, erraten du Profetak, agertzera dohakigu berehala, gu salbatu behar gaituen Jainkoa. Bai, hemen dugu. Errozuete beraz atsekabetan direnei, eta beren nahigabe handien gatik bihotza joana dutenei, pitz ditezela. Ezen Jainko Jauna bera jarriko da gure alde, eta berak atherako gaitu gure etsaien eskuetarik.

»Orduan, dio aintzina Isaias profetak, orduanitsuak argituko dire eta gorrak ernatuko; orduan zangoetarik galdua zenak eginen du jauzi oreñak bezala, eta mutu zena bera ere mintzatu da».

Isaiasek erraten du oraino Salbatzaile hura sorthuko dela Birjina baten ganik; berak ezarriko dituela bide onean jainko faltsuen adoratzailak; bera izanen dela hekien aintzindaria; eta, haren aintzinean, erregeak berak ikhara saindu batean egonen direla.

Eta hola ezagutarazi dituenean Salbatzaile Jaunaren botherea eta handitasuna, Isaias profeta oraino ere mintzo da, eta erraten diote Juduei, nolakoak izanen diren haren umiliazioneak eta pairamenak.

Huna haren hitzak:

«Agertuko da, lurraren gainean, edertasunik ez distiradurarik batere gabe, eta lur txar batzuetako landarearen pare. Ikusi dugu, bainan etzuen begiratzea ere balio. Hortakotz ez ezagutuarena egin diogu haren aldean iragaitean.

»Hura da gauza bat deusik balio ez tuena, gizon bat eritasunek eta gaitzak dena hartua, eta deusetako on eztena.

»Horra nola, haren parera direnean, guziek baztertzen duten burua, haren ez ikusteko.

»Iduritu zaiku Jainkoa bera zela haren joilea eta umiliatzailea.

»Eta bizkitartean joa izatu balinbada eta funditua ere bai, gure bekhatuen gatik da hoin gaizki ekharria izatu.

»Gu guziak alabainan errebelatuak ginen mendiko ardi batzuen pare; gutarik batbedera bazohan bere bide makhurrari behera.

»Jainko Jaunak ezarri ditu beraz haren gainean gure bekhatu eta gaixtakeriak.

»Salbatzaile Jaunaren nahia ere hori zen. Bai, hartu ditu gogo onez umiliazione guziak. Eta, mintzatu orde bere buruaren zaintzeko, egotu da ixilik hiltzera daramaten ardiaren pare, edo oraino, ilea moxten dioten bil-dotxaren pare.



»Hortakotz, dio Profetak, hobiak berak ere erakutsiko du Jainko dela; populu guziek ikusiko dute haren bandera distiranta; eta oraino, zeren hala aghaldu eta umiliatu den, zeren hainbertze laido eta oinhaze ikharagarri jasan duen, izanen da lurraren gainean ere ohoratua eta adoratua menderen mendetan».

Daniel profetak ere erran zioten Juduei, hek igurikitzen zuten Salbatzailea noiz sorthuko zitzaioten, zenbat denbora zuketzen beren artean, eta nola hil beharra zuten. Eta bertzalde erran zioten, zorigaitz guziak erori beharrak zirela hekien gainerat, zeren hilaraziko zuten munduaren Salbatzailea.

«Hirur-hogoi urthezko asteren buruan, zion Profeta hunek, hilaraziko dute Kristo Jauna. Ordean hura hilarazi duen populua ezta gehiago deithua izanen Jainkoaren populua.

»Ezen populu etsai bat ethorriko da bere aintzindariarekin; eta art-hikiko ditu eta fundituko, behin bethikotz, hiria eta eliza».

Baliteke, Profeten erranetarik, bertzerik asko hemen ezagutarazi behar ginukenik; ordean uzten ditut, eta ikusiko dugu nola Jainko Jaunak ematen zuen aditzerat, munduko gerthakari handien bidez, zer izan behar zen haren seme Gizon eginaz.

BIGARREN PONTUA

Munduko gerthakari handiak

Jesusen ixtorioaren itxura batzu zirela

Aiphatu ditugun Profeta horiek eta bertzeak hola mintzo zirelarik Mesias aginduaz, Jainkoak ezagutarazten zuen oraino haren seme bakharraren ixtoria munduko gerthakari handien bidez.

Abel bere anaiak hil zuen.

Bada justo haren ixtorioak erakusterat ematen zuen nola Jesu-Kristo Gure Jauna ere hil behar zuten bere haurridek berek.

Kainek hil zuen Abel bere anaia bekhaizgoz; badakigu arras ongi Juduek ere bekhaizgoz hilarazi zutela Jesus Jauna.

Berantago Jainkoak manatu zion Abrahami, har zezala Isaak, hain maite zuen bere seme bakharra, eta sakrifika zezola erakutsiko zion mendiaren gainean.

Abrahamek estekatu zion beraz bere semeari, bizkarrean, egur zama edo haxe bat, eta, hirur egunez ibili ondoan, heldu zen Galbarioko mendiaren gainera.

Han, Abrahamek egin zuen aldare bat, aldarearen gainean antolatua egurra, eta erran zion bere seme maiteari, eman zadiela etzanik egur haren gainean; Jainkoak manatu ziola haren sakrifikatzea.

Eta Isaak, hogoi urthetako gizon gaztea, eman zen egurraren gainean, Jainkoaren nahia hala zenaz geroz, jo zezala.

Ordean ez! etzen Jainkoaren xedea, Abrahami hilaraztea bere seme umila.

Ezen jadanik estekatua zuelarik, eta ezpata ere altxatua ukhaldiaren emateko, aingeru batek iduki zion besoa.

Jainkoak nahi eta bilhatzen zuena, hau zen, adiaraztea ordu beretik, nola egun batez, Jesus dibinoak behar zuen garreiatu gurutze dorphe bat mendi gain hartarat bererat; eta nola, gurutze hari itzatua, behar zuen ixuri bere odol guzia gure salbatzeko.

Josep Patriarkharen ixtorioak ere badu egiterik handiena Jesus Jaunarenarekin.

Bere anaiek berek saldu zuten Josep saindua tratulari arrotz batzuei.

Jesus jauna apostolu batek saldu zioten Juduei hogoi-ta hamar diru pezentzat; eta gero ezarria izatu zen Erromanoen eskuetan.

Josepek, preso zelarik bi gaizki egilekin, agindu zion hetarik bati, atherako zela laster presondegi hartarik, eta Erregek hartuko zuela bere ganat; erran zion aldiz bertze gaixtaginari estekatua izanen zela phaldo edo zuthoin handi bati.

Jesus Jaunak ere, gurutzeari itzatua zelarik bi ohoinen erdian, erran zion solhas hau ohoin hetarik bati: «Gaur, nerekin izanen zare zeruko lorian; eta aldiz bertze ohoina utzi zuen hiltzera bere bekhatuekin».

Josep athera zen presondegi hartarik, hirur urtheren buruan. Eta presondegitik athera zenean, izatu zituen gizonak izan detzakzen ohore guziak.

Jesus Jauna ere piztu da, eta atheratu hilen artetik hirugarren egunean. Eta, zeruetarat igatean, Aita Eternalak jarrarazi du bere eskuinean, eta eman diozka bothere guziak zeruan eta lurrean.

Josep Esiptoko lehen ministro zelarik, idorte ikharagarri batek funditu zituen Esiptoa eta Esiptoko inguruak. Gosetea izatu zuten beraz zazpi urthez. Bainan nola aintzineko zazpi urtheak hainitz onak izatu baitziren, Josepek bildu eta bere selaruetan ezarri zuen erosi ahal izatu zuen



bihi guzia. Eta gero, gosetea ethorri zenean, jendea haren gana zohan bazter guzietarik; eta harrek ematen zioten guziei behar zutena.

Jesus Jaunak, zerurat igatean, manatu zioten apostoluei berak predikatu zuen Ebanjelio hura bera ezagutaraz zezatela mundu guziari.

Eta hala banatu edo hedatu zen, jenden artean, bizitze eternala ematen duen Ebanjelioa.

Josepek barkhatu zioten bere haurridei, eta bertzalde, ekharrarazirik Esiptorat, eman ziozkaten berentzat hango lurrik gizenenak.

Jesus Jaunak ere galdetu dio Aita Eternalari bekhatore guzien barkhamendua, Gurutzearen gainean zelarik. Eta oraiko egunean ere, haren atsegirik handiena da bekhatorosen konbertitzen ikustea.

Hemen aiphatzen dut oraino Juduek urthe guziz egiten zuten zeremonia bat; hura ere eginga zelakotz adiarazteko Jainkoak zer grazia handiak behar zozkigun aman Aldareko Sakramendu Sainduan.

Legeak manatzen zioten Judeako etxe guziei bildotx baten jatea Bazko egunean.

Jainkoak eman zioten lege hori etzezaten ahantz, nola hekien arbasoak begiratuak izatu ziren aingeru funditzailearen ukhaldietarik, gorritu zituztelakotz beren atheak bildotx baten odolaz.

Guk ere badugu, bederen Bazkoetan, Jainkoaren Bildotxaren jateko manua. Guk ere, janez Jesu-Kristoren haragitik eta edanez haren odoletik, begiratzen dugu gure arima gure etsaiaren ukhaldietarik. Eta, denbora berean, izaten ditugu berthutearen praktikatzeko, eta zerurat heltzeko behar ditugun indarrak.

Huna oraino Lege zaharreko ixtorio bat, erein sugerearen ixtorioa, eta nola Jainkoak ezagutzerat ematen zuen, geroan, zer grazia handiak egin behar zozkigun.

Izraeldarrak eremuan edo bortuan zirelarik, Jainkoak igorri ziozkaten suge ikharagarri batzu, nahi zituelakotz gaztigatu zeren zinkhurdiak edo erasiaz zagozin Moisentzat.

Bazter guziak betheak ziren suge hetaz, eta hekien pozoina halakoa zen, non ezpaitzen nihor sendatzen asikia izanez geroz.

Izraeldarrek ezagutu noizbeit, suge hek ere beren gaizkien gaztigitan zituztela.

Eman ziren beraz Jainkoari buruz, eta galdetu zioten barkhamendu.

Eta Jainko Jaunak, bethi ekharria delakotz barkhatzera, manatu zion Moisi egin zezala kobre-urthuzko suge bat, eta ezar zezala guzien ikusmenean, phaldo edo zuthoin handi baten puntan.

Handik aintzina sugek asikiak zirenek aski zuten suge-iduri edo bulto hari buruz jartzea, hari begiratzea, eta ordu berean sendo ziren.

Guri ere gerthutzen ahal zaiku, mundu huntako bide lanjerosetan, asikiak izatea ifernuko suge madarikatuak; eta garbikiago mintza nadin, gerthutzen ahal zaiku bekhatu egitea.

Bainan nahi balin bagare sendatu, nahi badugu arthiki gure bihotzetik bekhatuarekin batean iretsi dugun pozoina, eman gaiten begira Jesus gure gatik gurutzefikatua izatu denari. Eta ezagutuko dugu bekhatura zer den.

Eta behin ezagutzen ahal badugu egiazki, ekharriak izanen gare haren higuintzera, eta Jainkoaren maitatzera geroago eta gehiago.

HIRUGARREN PONTUA **Jainkoaren Semearen Gizon-egitea** **eta sortzea Betleemeko heian**

Ikusi dugu goraxago Jakop Patriarkha, hiltzera zohalarik, nola mintzatu zen Judas bere semeari.

Jakopek hitzeman zion Judasi Mesias agindua haren arrazatik atherako zela, eta bertzalde, hitzeman zion erregegoa haren ondokoetan egonen zela Mesiasen denbora ethorri arteraino.

Azkenean beraz ethorri zen ordua, Judasen odolletikako erregerik gabe, eta Erromako enperadoreen meneko baitziren Juduak.

Daniel profetak aiphatu denborak ere akhabatzera zohazin. Bada ordu hetan bazen, Nazaretako hiri ttikian, birjina gazte bat, kontzebitua izatu zena bekhatu orisinalik gabe. Hura zen Andre-dena Maria saindua.

Jo zuenean Jainkoaren orenak, Gabriel Arkanjelua joan zitzaion Birjina hari erratera, kontzebituko zuela seme bat Izpiritu Sainduaren berthutez, bere birjinitatea galdu gabe; eta haren ganik sorthuko zen haurra deithuko zela, Jainko guziz botheretsuaren Semea.

Mariak sinhetsi zuen Aingeruaren solhas hori. Eta nahiz etzitzaion iduritzen, bazohakola holako ohore baten izatea, hala ere onhetsi zuen Jainkoak egiten zion galdea.

Hainbertzenarekin, Jainkoaren Seme bakharra gizon egin zen, bere Jainkotasuna galdu gabe. Ezen Jesu-Kristo, Jainko da eta gizon denbora berean.



Hortakotz, haren aphaltenduen eta pairamenen balioa neurrik gabekoa izatu da; Maria Saindua ere Jainkoaren Ama da; eta gu geroni, Jainkoaren haur gare, Jesusen haurride eta zeruko primu.

Aingeruaren berri handi horren ondotik, Andre-dena Maria joan zen Elizabet bere kusinaren etxerat, eta egin ziozkan, hirur hilabetez, egiten ahal ziozkan lan eta laguntza guziak.

Eta gero, hirur hilabete hekien buruan, joan zen berriz ere Nazareterat, san Josep bere espos eta lagun ona ganat.

Han zagon, othoitzean eta hatsperenetan, begira gogoz eta izpirituz, zenbeit egunen buruko, bere belhaunen gainean eta bere besoetan ikusi behar zuen Seme dibinoari.

Bainan Nazareten balinbadago bururaino nola izanen da egia Profeten erran hau, munduaren Salbatzailea Betleemen sorthuko dela?

Huna zer gerthatu zen:

Jadanik Josep eta Maria begira zagozilarik noiz agertuko zen Mesias agindua. Erromako Enperadorearen manu bat ethorri zen Nazaretera.

Manu harrek ekhartzen zuen nongo ere baitzituen batbederak bere aintzinekoak edo arbasoak, eta, han behar zuela eman eta harrarazi bere izena.

Eta horrela Josep eta Maria bortxatuak izatu ziren joaitera Betleemerat; hura zelakotz hekien burasoen herria.

Betleemeko hirirat heldu zirenean, edo-zeinek ikus zezaken Andre-dena Maria haur-esperantzetan zela. Bainan hala Josepek nola Mariak, biek ezagunago zuten oraino jende beharretarik zirela.

Eta hortakotz igorriak izatu ziren, tokirik etzelako aitzakian, etxe batetik bertzera, handik bertzera, eta azkenean hiritik kanpo, piaiantentzat egina zen leihor edo heia txar baterat.

Jesus Jaunaren xedea zen, erratea eta ezagutaraztea, berantxago, mundu guziari zein diren handiak onthasunek berekin dakarzketen lanjerak, eta oraino, pobrezia bere nahitarakoari, edo bederen gogo onez hartzen denari darraizkon abantailak. Eta hortakotz nahi zen sorthu, ez jau-regi batean, bainan haize hotzari idekia zagon, eta jenderik ere egoten etzen heia txar eta hautsi batean.

Heia hartan sarthu zen beraz zeru lurren Erregea bere baithan zakharrena, eta harekin batean san Josep.

Eta erran dezakegu sarthu zirela bihotza arinik. Ezen ikusten zuten hala zela Jainkoaren nahia; ikusten zuten Salbatzaile dibinoak nahi zuela predikatu munduari, haste-hastetik, zein diren ez-deusak hain artha handiarekin bilhatzen dituen onthasunak, atseginak eta ohoreak.

Han beraz, gauerd gainean, eta etzelarik harrabotsik ttikiena ere bazterretan, sorthu zen lau mila urthe hetan agindua eta igurikia zen Kristo Jauna.

Horra zer erraten darokun Ebanjelio Sainduak.

Eta huna, zer irakurtzen dugun, Maria Agredakoa deitzen den Jainkoaren zerbitzari eta adixkide handi baten liburuetan:

Heia hartaratu zirenean, san Josepek ezarririk xokho batean beren zaldi ttikia, garbitu eta antolatu zuen barne hura, egin ziteken bezein ongi.

Gero oraino, san Josepek piztu zuen sua; ezen hotz handia hari zuen; eta suaren ondoan, Mariak eta Josepek egin zuten othuruntza ttiki bat, Jainkozko gauzez mintzo zirelarik.

Othuruntzaren ondotik, ordukotz beranta, san Josepek antolatu zituen estalki batzu Andre-dena Mariarentzat, eta bera joan zen zoko baterat.

San Josep etzen berehala etzan, ordean behar zituela egin othoitz batzu, eman zen belhauniko. Ordu berean Jainkoak erakutsi ziozkan gauzarik xoragarrienak, eta haren izpiritua galdu zen gauza hekiei begira.

Bizkitartean Andre-dena Mariak ere ezagutua zuen bere orena ethorria zuela.

Ikhara saindu batean beraz, zeren bere begiz ikusi eta bere eskuez ukhitu beharra zuen Jainko Gizon egina, eman zen othoitzean.

Bainan othoitzean hasi zeneko, haren izpiritua ere xoratu zuen Jainkoak erakutsi ziozkan mixterio batzuen bidez.

Eta bere baitharatu zenean, han zuen Jesus-Haurra, san Mikael eta san Gabriel arkanjeluen eskuetan, atheraia beraz haren sabel sakratutik, eta atheraia haren birjinitatea kolpatu gabe.

Haur dibino hura, orduan eder eta distirant zen, gero ondoan Taborreko mendiaren gainean agertu behar zuen bezala.

Eta Maria sainduak ikusi zuen atseginik handienarekin begira zago-kola.

Hartu zuen beraz bere besoetarat eta ezarri bere bihotzaren gainean.

Eta nork adiaraziko darozkigu nolakoak izatu ziren bere Seme maite hari erran ziozkan amodiozko solhasak, eta ordainez Jesus Jaunaren ganik izatu zituen barneko kontsolazioneak!

Bai, Maria Sainduaren bihotza, kontsolazione guzien erdian igeri zagon. Bainan hala ere etzuen atxiki luzez bakharririk beretzat Jesus Jaunaren adoratzeko zoriona. Ez! oihu egin zion laster san Josepi, ethor zadiala.



Eta Patriarkha saindu harrek, ikusi zuenean Haur dibino hura Amaren besoetan, adoratu zuen, ematen zelarik belhauniko haren aintzinean; eta, bihotza gaindi egina barneko kontsolazionerik gozoenez, besarkatu zituen errespeturekin haren zango sakratuak.

San Josep egonen zen gehiago ere Haur maite haren oinetan, ordean Maria Sainduak ohartarazi zuen hotz handia hari zuela, behar zutela beraz troxatu; eta ekharrarazirik bere aldera aintzinetik prestatuak zaduzkan oihalak, inguratu zuen hekien barnean gure Jesus maitea.

Gauza xoragarri horiek iragaiten zirelarik Betleemeko heia batean, argidura handi batek harritu zituen, han inguru hetan, beren arthalden zain zagozin artzain batzu.

Eta nola ikharetan baitzagozin, ezin asmatuz zer zen argi hura, Aingeru batek erran zioten:

«Eztuzue zeren izit; ekhartzen darotzuet bozkariozko berri handi bat: *Gaur sorthu zaitzue Betleemen Salbatzaile bat*. Eta huna zertarik ezagutuko duzuen: Aurkituko duzue haur bat xatharrez inguratua, eta azienden aska batean etzana».

Aingeruak erran zitueneko hitz horiek, haren ganat ethorri ziren bertze nork-daki zenbat aingeru; eta denak eman ziren kantuz, ziotelarik:

«Loria Jainkoari zeru gorenetan, eta bakea borondate oneko gizeonei lurrean».

Aingeruak urrundu ziren emeki-emeki; hekien kantu xoragarriak ere histu eta gero osoki galdu; orduan artzainek erran zuten elkhari:

«Gohazen Betleemeraino; eta ikus dezagun solhas hunek zer duen erran nahi».

Joan ziren beraz Betleemerat. Eta aurkhitu zuten, haizeari eta hotzari paratua zen heia barraiatu hartan, Haur bat sorthu berria, xatarrez inguratua, etzana lastoaren gainean, eta idi batek eta asto batek berotzen zutela beren hatsaz. (Idi hura bera ethorria zela, dio Maria Agredakoak).

Artzainek ikusi zuten oraino, emazte bat eta gizon bat, bazagozila Haur haren aintzinean belhauniko, eta Haurrari begira amultsuki.

Ordu berean, Jainko Jaunak argitu ziozkaten arimako begiak artzain on hekiei. Ikusi zuten beraz Haur hura nor eta zer zen; Haur hura bait-han adoratu zuten beren Jainko Salbatzailea; eta gero, joan ziren beren arthaldetarat, bihotza zorionik handiengan.

Aingeru eta Artzain hek bozkariotan ezarri zituen Haur dibinoa eremana izatu zen tenplora, sorthu-eta zortzigarren egunean.

Legeak manatzen zioten Juduei beren muthiko sorthu berrien Elizarat eremate hori. Eta Elizan bazuten zeremonia bat hainitz pairarazten ziotena, zirkonzioinea.

Haurrek jasaiten zuten oinhaze hura, jakin gabe zer min egiten zioten.

Ordean Jesus Jaunaren izpiritua argitua zen hogoi-ta hama-hirur urt-hetan bezein ongi. Bazakien beraz zer pairatzen zuen.

Eta gogo onez eskaini bide ziozkan Aita Eternalari, oinhazeak eta odol ixurtzea ere bai; hasi nahia zelakotz, lehen-bai-lehen, gure zorren pagatzen.

Zirkonziooneko egun hartan, eman zioten gure Salbatzaile dibinoari izena Jesus.

Izen hori osoki zerutikakoa da. Eta Aingeru Gabrielekek ekharri zuen zerutik lurrerat, ekharri zionean Andre-dena Mariari Jainkoaren Ama izanen zelako berria.

Jesus, hitz horrek erran nahi du Salbatzailea.

Eta izen hori guziz ongi dohako Jainko gizon eginari.

Ezen hitz horrek berak adiarazten daroku ezin hobeki, zergatik gizon egin den: gizon egin dela guk Jainkoaren justiziaren alderat gintuen zorren pagatzeko, gure ifernutik libratzeko, eta zeruko loriaren guri merezitzeko.

Izen saindu horren entzuteak zenbat graziez ezkaitu beraz orhoitarazten? Zer esperantza eta kuraia eztitu gure baithan pitzarazten?

Izan dezagun izen saindu horrentzat errespetu handi bat; eztezagun sekulan aipha, bertze edo-zein hitz bezala, eta aho bethegailu liteken hitz bat bezala; ordean bai, debozionerekin eta amodioz, ahalik maizena; eta gure arimen etsaia urrunduko da gure ganik, eta ordu berean, Jainkoaren benedizioneak jautsiko dire gure gainerat.

LAUGARREN PONTUA

Errege Magoen ethortzea.

Haur inozenten hiltzea.

Familia sainduaren Esiptorat joaitea.

Jesusen bizitze gordea

Jesus Jauna ethorria zen mundu guziaren salbarazterat, eta hortakotz, deithu ondoan bere gana lehen lehenik artzainak, eta hekien ariaz



munduko jende umil eta xehe guzia, ekharrarazi zituen oraino iruzkirako eskualdetarik, hirur Errege edo Printze handi.

Iruzkirako eskualde hetan, bazen jenden artean erran hau, izar batek behar ziotela ezagutarazi noiz sorthuko zen, Izraelgo erresuman, mundu guziaren Errege izan behar zen haurra.

Noizpeit agertu zitzaizoten izar berantetsi hura. Eta iruzkirako alde hetan ziren guziek ikusi zuten haren argidura ederra.

Ordu berean hirur Errege eman ziren Jerusalemert buruz, harturik berekin beren eskuko zituzten gauzarik baliosenak. Eta, bethi begien aintzinean zuten izarrari jarraikiz, heldu ziren Jerusalemeko hirira.

Hiri hartarat heltzean izarra gorde zitzaizoten. Hala ere Errege Magoak hirian sarthu ziren, eginez beren baithan, izarra gorde zenaz geroz, hek bilhatzen zuten Haurra han zitakela.

Galdetu zuten beraz, non zen Errege sorthu berriaren etxea; ikusi zutela haren izarra, eta ethorriak zirela haren adoratzera.

Herodes erregearen aintzinerat eremanak, hari ere egin zioten galde bera: «Non zen Errege sorthu berriaren etxea».

Berri hori entzutean gogoeta jarri ziren Herodes eta hiriko jende guziak.

Bizkitartean Herodesek jakinik, Profeten arabera, Betleemen sorthu beharra zela, erakutsi zioten Errege Magoei hiri hartarako bidea eta ongi gomendatu, aurkhitu zuketenean Haur dibino hura, ethor zakizkola, berrien ematera, harrek ere adora ahal zezan.

Errege Magoek izatu zuten laster Jerusalemeko hirian erakutsi fedearen saria, ezen hiri hartarik athera zireneko, beren izar maitea berriz ere agertu zitzaizoten.

Jarraiki ziren beraz aintzina izar hari, eta izarrak ereman zituen Betleemeko heira.

Hekien fedea halakoa zen, eta Jinko Jaunak ematen ziozkaten graziak ere halakoak ziren, non, ezpaizitzaizoten gogoratu ere, ian, heia hartan sartzea etzen, hekientzat, aphalegi jaustea.

Ez! sarthu ziren holako gogoetarik gabe.

Ikusi zuten xatarrez ingurutua eta lastoaren gainean, jan-aska batean etzana, mundua salbatu behar zuelako Haur hura. Baina halarik ere belhaunikatu ziren haren oinetan eta eman ahuspeka.

Ezagutu eta adonatu zuten, Haur xume eta ahul hura baithan, Jinko gauza guzien kreatzailea, Jinko guziz botheretsua; eta eman ziozkaten berekin ekharri zituzten gauza balios guziak.

Jesus Jaunak onhetsi ziozkaten hain gogo onez egiten ziozkaten emaitza hek, eta ordainez, bethe bihotzak kontsolazionerik gozoenez.

Horrela egotu zirenean Jesus maitearen aldean berei zohakoten guzia, gibelat itzultzera zohazin, ethorri bidez; ordean Jinkoak adiarazi zioten Herodesek etzuela jakin nahi Haurra non zen, haren hilarazteko baizik. Eta hortakotz joan ziren etxerat, Jerusalemetik iragan gabe.

* * *

Hemen, berehala gogorat heldu diren irakaspenetarik bat hau da: Jinkoak baituela bere orenak, eta oldarrak edo mementoak bere grazien emateko.

Hanbat gaixtoago beraz, Jinkoaren graziez baliatuko eztenarentzat, eskainiak izanen zaizkon ordu berean.

Hirur erregek izatu zuten Jesus Jaunaren ikusteko zoriona, eta nork-daki bertze zenbat grazia, Jinkoaren lehen grazia hari jarraiki zirelakotz batere luzatu gabe.

Eta bertzerik zenbat jende etziren gelditu, Jinkoak erraten ziotelarik hekiei ere, izarraren bidez, zohazila Errege sorthu-berriaren ikustera.

Eta zeren etzuten obeditu, aldi bakhar hartan, Jinkoaren mintzoari, egotu ziren aintzina ere, beren jaidura gaixtoen esklabo eta ifernuko bidean.

Juduez bezenbatean, hek bazuten hainitz grazia izaturik Errege Magoak ethorri baino lehen ere. Eta egun hartan izatu zuten bertze grazia bat, ordu arterainokoak baino handiagoa: ikustea nonbeiko arrotz aberats batzu, ethorriak hekien herriraino, presentik handienekin: «Present hek hekien Errege sorthuberriarentzat zituztela; eta haren adonatzerat ethorriak zirela».

Eta halarik-ere, etzen izatu nihor hekiei jarraiki zenik.

Ez! aldi hartan ere, Juduek hetsi zituzten beharriak Jinkoaren mintzoaren ez entzuteko. Eta hala, aree gehiago gogortu ziren hekien bihotzak.

Jinko Jaunak erraten balauku, behar tugula hautsi gure aztura edo kostuma txarrak, eta behar garela konbertitu, eztezagun gerorat igor lan hortan hastea.

Zeren-eta ezpaita errana, gero ere izanen dugula hortakotz behar dugun grazia.

* * *



Errege Magoak joan zirenean, Jainkoak manatu zioten bezala, Jerusalemeko hiria bazterrerat utziz, Aingeru bat agertu zitzaion san Josepi, eta erran zion: «Har zetzala Haurra eta Ama, eta zohala hekiekin Esiptorat; Herodes erregeak nahi zuela galarazi Haurra. Geroan jakinen zuela noiz behar zuen ethorri etxerat».

San Josep jeiki zen ordu berean. Eta gauez-gau eman zen bidean Jesus Haurrarekin eta Maria Sainduarekin.

Bainan, hala ihesi joan orde, gizon hilkor baten beldurrez, zer gatik Jesus Haurrak ez diote galdetuko bere inguruan dituen aingeruei, ager ditezela suzko ezpata bat eskuan eta zain dezatela.

Bainan, hala nahi lukelarik, ez luke batere manu emate beharrik-ere: zilhegi balitzaioite, iruzkiak erre lezake Herodes, edo oraino, lurak irets, eta jautsaraz gorphutz eta arima ifernuko su lamenez dirat.

Bai, iruzkiak eta lurak galaraziko eta suntsiaraziko zuten Errege dohakabe hura; bainan zer zen Jesus Jaunaren xederik maitena, gizon egitean eta heia batean sortzean? gure gogoan ongi sarraraztea eta finkaraztea egia hau: umilitatea dela berthute bat baitezpada praktikatu behar duguna.

Jesus Jaunak erran behar zarokun bere Ebanjelio sainduan: «Ikasazue nere ganik, ezti naizela eta umil bihotzez». Hortakotz batere ezagutarazi gabe nolakoak diren haren bothereak, badoha gordetzera Herodesek eztezan atxeman, eta nahiago du san Josepek eta haren Ama Sainduak izan detzaten jasaiteko handik eta Esiptorainoko bide luzeak emanen dioten unhadura, eta bertzalde, pagano batzuen artean izan detzazketen lanak eta atsekabeak.

Jadanik Familia Saindua atheratua ziteken Judeako erresumatik, norbeitek ereman zionean berria Herodesi, etzuela zeren egon gehiago Errege Magoen begira, joanak zirela aspaldion etxerat.

Eta orduan Herodesek, kolerarik ikharagarrienean, zeren etzuen atxematen haren ordain eta hura bezala errege izaterat deithua zela uste zuen Haurra, eman zuen nihork egundaino eman eztuen bezalako manu basa: «Hilaraz zetzatela, Betleemen eta hango inguruetan, oraino hirur urthe etzituzten haur guziak».

Bai, hil zituzten haurrak ehunka eta milaka; eta, hekien amak ezin kontsola zitezkelakotz, etzen entzuten egun hetan, Betleemeko inguruan, nigarrrik eta nigarrrik baizen.

Etzakiten alabainan ama hek zer zoriona zuten hekien haurrek, Jesus Jaunarentzat beren odolaren ixurtzeaz, eta nola gozatu beharrak ziren zeruko lorian, martirek izanen zituzten sari xoragarriez.

Herodesek izatu zuen laster hainbertze gaixtakeriari zohakoten gaztigua. Ezen bizirik usteldu zen; usainik tzarrenak hartua bizi-bizia zelarik oraino, hil zen harra zariola.

Orduan aingerua agertu zitzaion berriz ere san Josepi, eta erran zion, «bazohakela Judeako herrietarat, Herodes hila zela».

Eta Familia Saindua joan zen bere Nazaretoko etxe ttikirat.

Nazaretan Familia Sainduaren lana bethi ohikoa zen: san Josep hari zen bere zurgintzan, edo maaxturuntzan, Andre-dena Maria, bere sukhaldeko eta etxeke lanetan, eta aldiz Jesus Haurra, bere Aita-ordearen eta bere Ama Sainduaren laguntzen.

Eta han zagozin urthe guzia, kasik bethiereko ixiltasunean eta bildura saindu batean.

Hargatik, legeak hala manatzen ziolakotz, san Josep joaiten zen, urthe guziz, Jerusalemeko Tenplorat, Bazkoko besten iragaitera. Jesus Jaunak egin zituen hamabi urtheak, Mariak eta Josepek ereman zuten berekin.

Eta han egotu zirenean legeak manatzen zioten denbora, eman ziren etxerat buruz, eta ibili egun bat osoa, ohartu gabe Jesus Haurra Jerusalem gelditua zutela.

Bainan Buraso saindu hek nola ibil zitezken jakin gabe, ian Jesus Jauna han zuten bai-ala-ez?

Huna:

Jerusalemetik etxeratekoan, gizonak ematen ziren gizonekin, eta emazteak emaztekin; eta aldiz haurrak, berek nahiago zuten bezala, edo aitarekin edo amarekin.

Maria sainduak uste zuen beraz Jesus Jauna san Josepekin zela; eta aldiz san Josepek, bere Ama maitearekin zela.

Eta horra nola gerthatu zitzaioten, arrats hartan elkharretaratu zirenean, beren biziko atsekabe handienetarik bat.

Ikusi zutenean galdua zutela beren Jesus maitea, eman ziren ordu berean, Jerusalemeko bideari gora, beren bihotza erdiratua atsekaberik handienak, eta aintzina ere galdetzen zutelarik batzuei eta bertzei, ian Jesus Haurra etzen hekiekin.

Bainan alferretan galdetu zituzten Jesusen berriak bide hartan guzian. Bai-eta, Jerusalem ere, alferretan ibili ziren, hirur egunez, beren haren bilha, galdetuz bazter guzietan, ian-bada etzuten ikusi hekien Jesus maitea.

Ez, munduak etzioten Jesusen berririk ematen ahal: munduak eztu ezagutzen Jesus Jauna.



Bazuen jadaneko hirur egun, Maria eta Josep zabiltzala beren Haur maitearen ondotik, noiz-eta-ere, Tenplorat joan, eta han aurkhitu baitzuten, jarria Jainkoaren legearen irakasten hari ziren nagusien erdian: nagusi hekiei egiten ziozkatela galde batzu, hek egiten ziozkaten galdei ere ihardesten ziotela hainitz ederki, eta hortakotz jende guzia xoratua zago-la hari begira.

Maria Sainduak eta san Josepek errexki ahantzi zituzten ordu arterainoko atsekabeak eta nigarrak; eta hek ere egotu zitzaizkon begira atseginekin.

Hargatik, Tenplotik athera zenean, Maria Sainduak erran zion ezti-eztia: «Haurra, non zinen, zure Aita eta ni ginabiltzalarik nigarrez zu ezin atxemanez?».

Jesusek ihardetsi zioten: «Etzinakiten bada, niri dela nere Aita zerukoaren egitekoen joanaraztea?».

Orduan jautsi zen, Nazareterat; eta han egotu hemezortzi urthez, gordea, bethi lanean, eta bethi obeditzen ziotelarik Maria bere Amari eta san Josepi.

* * *

Gauza espantagarria! Jesusek eztu, lur hunen gainean iragaiteko hogoi eta hamahirur urthe baizik; eta zer egiten du hogoi-ta hamahirur urthe hetan?

Lehen hogoi-ta-hamar urtheak, bizi da gordea, eta hirur urthez bakharririk hari da Ebanjelio sainduaren predikatzen.

Ala baikare bortxatuak aithortzera, handiak bide direla bitze ilhun eta obedientziatzako batean, zerukotz egiten ahal diren irabaziak.

Zuk, laboraria, edo lanetik bizi zaren jendea, egizu kontu Jesus Jaunak ematen darotzun irakaspen huni.

BORTZGARREN PONTUA

Jesus Gure Jaun Handiaren biziko azken hirur urtheak, eta hirur urthe hetako asko solhas eta mirakuilu

Jesus Jaunak etzuen gehiago, mundu huntan egoteko, hirur urthe baizik. Eta jadanik, Jondoni Joani-Batixtak predikatzen zioten bazter

guzietarik ethortzen zitzaizkon bekhatorosei, itzul zitezela Jainkoaren ganat, eta egin zezatela penitentzia.

Bada egun batez, Joanes-Batixta hari zelarik penitentziatzko bathaioaren ematen bekhatoros urrikiteui, Jurdango ur handian, Gure Nagusi Dibinoa jarri zen bekhatoros hekien artean, hark ere behar zuela penitentziatzko bathaioa.

Ordean Jesus Jaunaren aphaltze eta umiliatze harrek halako atsegina egin zion Aita Eternalari, non entzunarazi baitziozkaten hitz hauk, han ziren guziei: «Horra nere Seme guziz maitea».

Jondoni Joanik etzuen mintzo haren beharrik jakiteko Jesus Jauna nor zen; etzenaz geroz hari predikatzen haren ezagutarazteko baizik.

Mundu guzia harritia zagolarik, ez jakinez zer zen ihurtzuriaren pareko mintzo hura, Jondoni Joanik erran zion Jesus Jaunari: «Jauna, nik nuke behar bathaioa zure ganik, nola beraz ethortzen ahal zitzaizkit nere ganat?».

Bainan Jesusek erran zion egin zezala, aldi hartan, galdetzen ziona. Eta Jesus Jauna bathaiatua izatu zen.

Bathaio hortarik lekhora, gure Salbatzaile Jauna sarthu zen eremuan edo desertuan, han egotu berrogoi egunez, deusik jan ez edan gabe, eta gero, hasi Ebanjelio sainduaren predikatzen, ezagutarazten zuelarik Jainko bezala zuen botherea mirakuilurik handienez.

Huna mirakuilu hetarik zenbeit:

Behin, Jesus Jauna joana zen Kana Galileako eztei batzuetarat. Maria bere Ama sainduarekin eta Apostoluetarik zenbeitekin.

Eztei hetarat joan zen Jesus Jauna, nahi zuelakotz adiarazi mundu guziari, ezkontzako sakramendua ere saindua dela.

Ezteietan zelarik beraz, Andre-dena Mariak erran zion, jende gaixo hek etzutela gehiago arnorik, eta othoiztu zuen urrikal zakizkola.

Orduan Jesusek bethearazi zituen untzi handi batzu urez; eta ur hura, arno bilhakarazi zuen.

Bertze behin Salbatzaile Jauna Simon Petriren etxean zen bere adixkidekin eta etsaiekin. Ezen ordukotz Farisauak eta Iskribatzaileak, erran nahi baita, gizon batzu gaixtoak eta urguluz hantuak, Jesusen ondotik zabiltzan, hura galdu nahiz; eta hortakotz, bilha non zer huts atxemanen zioten.

Adixkide eta etsai hekien erdian zelarik beraz, ekharri zioten gizon bat, zain guziak hilak zituena: «Othoi, sendaraz zezala».

Eta Jesusek nahi zuelakotz han zirenek eta etzirenek ezagut zezaten hura nor zen, erran zion erriari: «Baduzu zure bekhatuaren barkhamendua».



Hitz horiek entzutearekin, Iskribatzaileak eta Farisauak eman ziren gogoeta beren baithan, ziotelarik: «Nor da hau? eta zergatik erraten ditu holako blasfemioak? Nork barkha detzazke bekhatuak Jainkoak baizik?».

Jesus Jauna itzuli zen hekiei buruz, eta erran zioten: «Zer dituzue gogoeta horiek zuen izpirituan? Zein da errexago, erratea bekhatuak barkhatuak dituztu, ala altxa zaite eta zohazi?»

«Bada, jakin dezazuen gizonaren Semea Jainkoaren Semea dela denbora berean, eta hortakotz baduela bekhatuen barkhatzeko botherea, erran zion eritari: "Altxa zaite, har zazu zure ohea, eta zohazi etxerat"».

Eta ordu berean eria xutitu zen, eta, ohea bizkarrean, joan etxerat, Jainkoari laudorioak eta eskerrak ematen ziozkalarik.

Salbatzaile Jaunak, norat-nahi zohala, argitzen zituenitsuak, ernazten gorrak eta pitzarazten hilak.

Egun batez, Jaireko Tenploko apez-nagusiak othoiztu zuen gure Erostaile Jauna, «ethor zakiola etxera: alaba hainitz eri zuela; behar ziola sendarazi». Bainan nola haur hura hil baitzen Jesus Jauna harat heldu gabe, Jesusek egin zuen galdetzen ere etzioten mirakuilua: Haur hura pitzarazi zuen.

Bertze aldi batez, Jesus Jaunak, Naimeko hirian sartzera zohalarik, buru egin zuen, hil baten ehorztera zohan jende multzu handi batekin.

Hil hura gizon gazte bat zen, ama alhargun baten seme bakharra, eta egiten zukuena bere baithan bazuela oraino hainitz urthe lur hunen gainean egoteko, etzuenaz geroz hogoi-bat urthe baizik.

Haren amak ere etzuen uste hain goizik galdu beharra zuela. Eta hortakotz, haren nigarrak eta auhenak erdiragarriak ziren.

Jesus Jaunari berari ere hautsi zion bihotza haren ikusteak. Erran zion beraz ama gaixo hari: «Emakumea, etzazula nigarrik egin».

Orduan joanik hilaren gana, eta ezarririk eskua haren gainean, erran zion: «Haurra, jeiki zaite, ni naiz manatzen darotzudana».

Eta hila eman zen jarririk, mintzatzen ere hasi zen, eta, mundu guzian harritua zagolarik, Jesusek ereman zion bere amari.

Bertze aldi batez, Jesus Jaunak bazituelarik ordukotz hamabi Apostolu hautatuak Ebanjelioaren predikatzeko, jende keta handi bat bildu zen haren ingurura.

Jesusek ikusi zuen bere etsai errabiatuak ere han zituela, eta nahi izatu zioten ezagutarazi hala Apostoluei nola bere etsaiei, egin zituen mirakuiluak egin zituela Jainko zelakotz.

Bertzalde eman zioten aditzerat etsai hekiei, hek hilaraziko zutela, bainan etzela hilen berak hala nahi zuelakotz baizik; eta oraino, piztuko zela hirugarren egunean.

Hortakotz erran zuen denek entzuteko gisan:

«Populu hunek nahi lituzke ikusi mirakuiluak, bainan eztu bertze mirakuilurik izanen, baizik ere Jonas profetaren mirakuilua. Jonas profeta egotu zen bezala, hirur egunez, arrainaren barnean; Gizonaren Semea ere egonen da, lurraren barnean».

Farisauak eta Iskribatzailek ederki aditu zuten Salbatzaile Dibinoaren solhas horiek zer erran nahi zuten, eta hekien errabia hainbertzetarainokoan handitu zen, non, haren ondotik baitzabiltzan haren preso altxatzeko eta hilarazteko.

Hararik ere Jesus Jauna, joanik Jerusalemerat, han ibili zen bere etsai hekien artean, eta gero handik atheratu berari iduritu zitzaionean.

Hiritik kanpo, aurkhitu zuen egun batez, bide bazterrean, sortzez itsu zen erromes bat. Itsu hura han zagon, Jainkoaren nahia zelakotz Jesusek ezagutaraz zezan bere burua haren bidez.

Itsu haren aldera zenean beraz, Jesus Jaunak hartu lur pixka bat, egin thu bat lur hari, eta hala izatu zuen lohiaz gantzutu ziozkan begiak. Gero igorri zuen begien garbitzera Siloeko ithurrira, eta itsua argitua zen.

Haren sendatzeak airean ezarri zuen hiri guzian, eta jendeak etzuen aski mihi Jesusen laudatzeko.

Hortakotz Nagusi Dibinoaren etsaiek, ekharrarazirik berengana itsu-argitu hura, nahi izatu zioten erranarazi Jesus Jauna izpiritu gaixtoek hartua zela, eta hekiei esker izatu zela argitua. Bainan harrek zion, hain ongi handia egin ziona etzela izpiritu gaixtoek hartua izaten ahal, aitzitik hura Jainkoaren adiskidea zala. Eta solhas horien gatik ezarri zuten Tenplotik kanpo.

Ondoko egunetan Jesus Jaunak buruz-buru egin zuen gizon itsu izatu harrekin, eta galdetu zion, ian sinhesten zuen Jainkoaren Semea baithan.

Itsu izatuak ihardetsi zion: «Nor da, Jauna, Jainkoaren Semea?».

Jesusek erran zion: «Jadanik ikusia duzu, eta zuri mintzo zaitzuna bera da Jainkoaren Semea». Eta bertzeak ihardetsi zion: «Bai, Jauna sinhesten dut». Eta, ematen zelarik ahuspeka, adoratu zuen.

Handik zenbeit egunen buruan, ekharri zioten berria Jesusi, haren Betaniako ikasle edo dizipulu maite bat, Lazaro, Maria Madalenaren eta Martaren anaia, eri gaizki zela.



Halarik ere Salbatzaile Jauna egotu zen han berean bertze bi egun; eta gero, joan Bethaniarat, erraten ziotelarik apostoluei, lehenik hekien adiskidea lo zagola, eta azkenean, batere hitz-estalkirik gabe, hila zela.

Bethaniarat heldu zenean, Martak eta Mariak, biek erran zioten: «Jauna, hemen izatu bazine, gure anaia etzen hilen». Jesusek ihardetsi zioten: «Hila izanik ere pizten ahal da».

Hargatik nigar egin zuen ikusiz hekien bihotzmina. Eta gero, bi ahizpa heiekin eta han ziren jende guziekin, joan zen Lazaroren hobira. Hobira zenean, manatu zuen ken zezatela hobia hesten zuen harria.

Martak erran zion orduan: «Jauna, usaindua da, badu jadanik lau egun hila dela».

Bainan Jesus Jaunak egin zion oraino ere othoitz bat bere Aita Eternalari; eta, mintzo zelarik hilari buruz, erran zion: «Lazaro, zato kanporat!».

Eta Lazaro, piztua, atheratu zen hobitik, bere hil-mihiseaz inguratua; eta han zirenetarik hainitzek ezagutu eta sinhetsi zuten Jesus Jauna Jainko zela. Hortakotz, egun hartarik goiti, bazen jende oste bat harren ondotik zabilana. Farisauak aldiz eta Iskribatzaileak errabiarik handienez ziren, etzakitelakotz zer asma Jesusen galtzeko.

SEIGARREN PONTUA

Jesus Jaunaren pairamenak, hiltzea, piztea, eta zeruetarat igatea

Horrelako lanetan joan ziren Jesus Jaunaren mundu huntako azken hirur urtheak. Eta jadanik bere azken egunetarat hurbildua zelarik, erran zioten apostoluei, bazohala Jerusalemerat, eta han apezek eta populuko aintzindariak azotatuko zutela, laidoz betheko eta azkenean hilaraziko; bainan piztuko zela hirugarren egunean.

Apostoluen ustekeria haste-hastetik, eta orduan ere, hau zen: Jesus Jauna mundu huntako errege bat izan beharra zela. Eta hortakotz egin zituzten egin-ahalak Jesusen ez uzteko Jerusalemerat joaitera.

Bainan alferretan.

Jerusalemeko hirian ere banatu zen berria Salbatzaile Jauna ethortzen zitzaiotela. Eta ordu berean jende keta handi bat athera zitzaion bidera, zuhain edo arbola adar ferde batzu eskuan, eta kantatzen zutelarik:

«Hosanna Dabiten Semeari! Benedikatua izan bedi Jaunaren izenean ethortzen zaikuna!».

Horrela sarthu zen Jesus Jauna Jerusalemen, jende oste baten erdian, eta nihork oraino azpian izatu etzuen asto baten gainean. Hirian egotu zen berari zohakon guzia; Tenploan ere predikatu zuen, nahiz ezinbertzeratuak ziren haren etsaiak. Eta gero athera zen hiritik, berari iduritu zitzaionean, nihork deusik egin gabe, nihor ukhitzera menturatu gabe, etzelakotz oraino ethorria haren orena.

Ortzegun saindu egunean, berriz ere Jerusalemerat itzulia, han nahi zuelakotz jan legeak manatzen zion bildotxa bere apostoluekin, egin zuen hekiekin bere azken afaria.

Orduan ere aditzerat eman zioten apostoluei, bazakiela ongi hekien gogoaren berri, eta ethorkizunean ere zer izanen zen.

Erran zioten beraz jaten hari zirelarik:

«Egia erraten darotzuet, zuetarik batek saldu beharra nauela».

Bertzalde erran zioten, gau hartan hura utzi, eta joanen zirela denak haren ganik urrun.

Eta nola Jondoni Petrik erraten baitzion, bertze guziak urruntzen baziren ere, hura leial egonen zitzaioa; Jesusek erran zion apostolu harri nola eta zenbat aldiz arnegatuko zuen harrek.

Bizkitartean, othuruntzaren akhabantzan, Gure Jesus maiteak egin zuen mirakuilu bat, diteken handiena: eman zioten apostoluei bere haragia jatera eta bere odola edatera, ogiaren eta arnoaren itxuren azpian. Berei ere eman zioten mirakuilu beraren egiteko botherea; eta gero, ordukotz gaba, joan zen Olibetako baratzerat, othoitz egitera.

Baratze hartan agertu zen bere Aitaren aintzinean, munduko bekhatu guziak bere gain hartua, eta ekharria behar zen guziaren pairatzera, guri gure bekhatuen barkhamenduaren merezitzeko.

Eta bekhatu hek halako ahalkea eman zioten, hala tinkatu zioten bihotza, non, odolezko izerdi bat jauzi baitzitzaion; eta ez bakharrik soinekoak bainan lurra ere busti zuen izerdi hartaz.

Azkenekotz hala flakatua zen, non erran baitziteken, bere azken hatsaren ematera zohala.

Hargatik kontsolatua Jainkoak igorri zion Aingeru batek, eta ekharria bere gorputzean ere jasaitera gure bekhatuei zohakoten gaztigua, Jesus xutik zen, Judas apostolua sartu zenean baratze hartan, soldadu multzu baten aintzindari.

Han ere gure Nagusi dibinoak erakutsi zuen, etzutela preso hartzen eta hilarazten berak hala nahi zuelakotz baizik. Ezen galdetu ondoan



guziei, noren bilha zabiltzan, eta hek ihardetsi zutenean, Jesus Nazaretakoaren bilha zabiltzala, Jesusek erran zioten: «Ni naiz!». Eta solhas hori entzutearekin batean, guziak erori ziren, ihurtzuriak jo balitu bezala.

Uzten ahal zituen beraz han berean soldadu hek, eta joaiten ahal zen nahi zuen tokirat. Bainan ez, etzuen egin holakorik. Aitzitik utzi zituen guziak altxatzera; eta orduan gaixtagin hek iragan zioten soka bat lepotik, eskuak ere estekatu ziozkaten, eta ereman zuten herrestan Apez Handiaren gana.

Nahiz gaba zen, halarik ere Apez Handiaren etxe hartarat bilduak ziren populuko aintzindariak. Eta hala apezek nola aintzindariak, denek atseginekin ikusi zuten Jesus Jauna estekatua eta beren soldaduen eskuetan. Egin ere zioten hainitz laido eta azkenean, oiuhu egin zuten guziek, hiltzea merezi zuela.

Pilatus gobernadorearen ganik zohan Jesusen hiltzea edo bizirik uztea.

Hortakotz biharamunean ereman zioten Pilatusi Jesus Jauna: hekien arabera hiltzea merezi zuela.

Gobernadoreak laster ikusi zuen Jesusek etzuela hobenik; eta jende guzia sutan eta errabian bazen Jesusentzat, hori apez eta Farisau hekien lana zela.

Bainan nola athera etsai errabiatu hekien aztaparretarik?

Etzakielarik bertzerik zer asma, gogoak egin zion: Agian populua fazegatuko zela, ikusten ahal bazuen Jesusek izatu zuela gatzigaldi bat ona.

Eta, gaixtakeriarik handiena egiten zuelarik, kondenatu zuen Jesus azotatua izatera.

Azotatzeko estekatu zuten, arroparik gabe, harri-oin bati; eta sei burrego haritu zitzaizkon jo-ahala-jo, aldian bia, beren indar guziak joan arteraino. Eta horrela ezarri zioten gure Jesus maiteari bere gorphutz guzia, ez bakharrik dena odola zariola, bainan haragi puskak dilindan eta hezurak ageri.

Bertzalde soldadu batzuk egin eta ezarri zioten buruan arrantzezko korona lazarri bat. Eta arrantze puntak sarrarazi ziozkaten buru fuinetan barna, makhila ukhaldika; eskuetan ere ezarri zioten kanaberazko makhila bat, bizkarrera arthiki kapa gorri puska bat; eta zena-zen-bezala Pilatusen ereman zion populuari, erraten ziolarik: «Horra zuen Gizona!».

Bainan jende eskergabe eta sorraio hekien bihotza etzen hautsi, ez-eta ere guritu; nahiz entzun zituzten azote ukhaldi hekien zartak edo klas-

kak, nahiz Jesus Jauna gizona ez-bezala ezarria zen eta dena funditua. Aitzitik ihardetsi zioten Pilatusi, gurutzefika zezala Jesus, edo, Erromako enperadoreak jakinen zituela haren berriak.

Eta orduan Pilatusen etzuen izatu aski indar, aski zain bere eginbiderean bethetzeko; eta kontzientziak erraten ziolarik Jesusek etzuela hobenik, hala-ere ezarri zuen Juduen eskuetan, egin zezotela nahi zuten guzia.

Juduek etzuten bertzerik bilhatzen!

Eta nola haste-hastetik ere baitzuten esperantza, eginaraziko ziotela Pilatusi nahi zuten guzia, bazaukaten gurutze handi bat egina Jesus Jaunarentzat.

Entzun zuteneko beraz, hilaraz zezaketela Jesus nahi zuten bezala, ekharri zioten aintzinerak gurutze ikharagarri hura: behar zuela berak ereman Galbarioko mendi gainera.

Jende basak! Aintzineko gau guzia, atxikia zuten Jesus Jauna lorik gabe; azote ukhaldika odol hustu zuten; eta halarik ere, ez aski gurutzearen gainean hilaraztea, behar diote berari eremanarazi bere heriotzeko tresna lazarria!

Bainan sutan jarri orde Juduentzat, eman dezagun ongi gure gogoari, guk dugula kondenatu Jesus Jauna hiltzera, guk dugula kondenatu gurutzearen erematera eta haren gainean hiltzera! Bai, eman dezagun ongi gure gogoari, Jesus Jaunak gure bekhatuen gatik pairatu duela pairatu duen guzia, gure bekhatuen gatik hil dela, eta har dezagun higuintza saindu bat bekhatuarentzat.

Jesus Jauna etzen izitu, ez lotsatu gurutze dorphe hura ikustean; aitzitik, izitu-orde, besarkatu zuen atseginekin gurutze hura, ezarri ere bai bere sorbalda fundituen gainean; eta, hiriko jende guzia han zuelarik bere inguruan, eman zen Galbariorako bidean.

Bide hartan egin zuen asko eroriko, eta izatu trufa eta burla asko; bide hartan oraino, buruz-buru egin zuen bere Ama sainduarekin; eta mila ezpata ukhaldik eginen zioten baino min handiagoa egin zion ikusteak nolakoa zen Ama maite haren bihotzmina.

Hargatik noizpeit heldu zen Galbarioko mendi gainera.

Mendi hartara zenean, kendu ziozkaten berriz ere, bere soineko guziak. Bainan nola zauriei lotuak baitzituen, kendu ziozkaten haragi puska ere soinekoak kentzean.

Biluzi zutenean, manatu zioten, eman zadiela etzinik gurutze haren gainean. Jesus Jaunak, zeru-lurren Erregeak, egin zuen hekien nahiaren arabera.



Galdetu ziozkaten ere eskuak, bat bertzearen ondotik. Jesus maiteak eman ziozkaten gogo onez, eta utzi lehenik eskuak eta gero zangoak lotzera gurutzeari itze handi batzuz.

Azkenean biziaren arbola agertu zen xutik, eta egiazko biziaren fruitua ere bai agertu zen arbola adarretik dilindan. Edo hobeki mintzatzera, harat bilduak ziren jende hek guziek ikusi zuten Salbatzaile Jauna, gurutzetxe hari lotua hiru itze handiz.

Gurutzeari itzatua izateak ematen ziozkan oinhaze ikharagarriez bertzalde, Jesus Jaunak behar izan zituen jasan oraino bere etsaien atseginezko irriak eta trufak. Eta horiek guziak hiru orenez.

Laugarren orenera heltzera zohalarik, egin zuen oihu handi bat: «Akhabo dire guziak».

Hainbertzenarekin aphaudu zuen burua eta eman azken hatsa.

Jainkoaren justizia zein den ikharagarria! Edo hobeki, bekhatua zein gauza lazgarria bide den, hainbertze gosta behar izatu zaionaz geroz Jainko bati haren barkhamenduaren merezitzeko!

Arratsaldeko hiru orenak ziren, Jesus Jaunak eman zuenean azken hatsa. Orduan haren arima dohatsua jautsi zen Linboetarat, han zagozin sailduen kontsolatzera, eta hekiei erratera, hurbildua zutela zeruan sartzeko eguna.

Eta aldiz bi gizon sailduak ezarri zuten haren gorphutza hobi berri batean.

Erran gabe doha, Jesusen hila ikusteak atsegin handia egin ziotela haren etsaiei. Eta hargatik etzitzaioten iduritu oraino lanik gabe zirela.

Ordean orhoituz Jesusek erran zioten solhasaz, piztuko zela hirugarren egunean, jo edo markatu zuten hobia hesten zuen harria hiriko zigiloez edo kaxetez, eta haren inguruan ezarri zuten soldadu multzu bat, apostoluek etzezaten ereman gorphutz hura, eta gero, erran bazterretan piztua zela.

Nonbeit zabilzan!

Apostoluak gorderik zauden beren Nagusi Jauna galduz geroz, trixteziarik handienez eta osoki lotsatuak.

Horrela joan zen ortziraleko gaba eta larunbata ere bai. Eta bihar-munean, Bazko goizean goizik, Jesus Jauna piztu zen eta atheratu hobitik.

Bai! Jesus Jauna piztu zen, berak Jainko bezala zuen bothereari esker.

Jesus Jauna hobitik atheratzean, lur-ikhara handi batek iharrosi zuen Galbarioa. Ordu berean, bazterturik hobia hesten zuen harria, aingeru bat eman zen jarririk haren gainean.

Aingeruaren ikusteak hala harritu zituen soldaduak, non erori baitziren ezagutza galdua eta osoki aldi-xartuak.

Eta gero, iragan zitzaientenean beren izialdura, joan ziren Juduei erratera zer gerthatu zitzaienten eta zer ikusi zuten.

Judu ondikozkoek etzuten sinetsi Jesus Jauna Jainko zela, eta hiletarik piztu zela; eta hortakotz egotu ziren, eta oraino ere hainitzak daude zeruko bidetik kanpo.

Bainan guk badakizkagu eta sinesten ditugu bi egia horiek. Guk badakigu apostoluei eta Jainkoaren graziari esker, Jesus Jauna hiletarik piztu dela. Ezen apostoluek etzaizku mintzo beren begiz ikusi eta beren beharrez entzun dutenez baizik.

Hiletarik piztu ondoan, Jesus Jauna egotu zen lurraren gainean berrogoi egunez, eta berrogoi egun hetan agertu zen Maria Madalenari, emakume saildu batzuei, Jondoni Petriri, Emauseko dizipuloei, apostoluei bi aldiz, lehenik San Tomas kanpoan zutelarik, eta bigarren aldian San Tomas ere han zelarik, eta oraino bertze behin Jondoni Petriri, arrantzan hari zelarik bertze dizipulu batzuekin.

Bertzalde, berrogoi egun hekien buruan, Gure Erostaile Jaunak bilazari zuen, Olibetako mendiaren gainera, bortz ehun ikasle edo dizipulu baino gehiago; eta, hekien aintzinean, erran zioten apostoluei, zeruko eta lurreko bothere guziak bere eskuko zituela; zohazila beraz munduaren argitzera, eta gizon guzien bathaiatzera Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sailduaren izenean.

Agindu ere zioten, hekiekin izanen zela, munduaren akhabantzaraino; eta azkenean, emanik bere benediziona han ziren guziei, igan zen hekien aintzinean zeruetarat, non jarria baitago bere Aitaren eskuinean.



ANDRE-DENA MARIA

Iduritu zitzaionean behar zarokula bere burua ezagutarazi, Jainkoak egin zituen zerua eta lurra ezdeusetarik, eta bethe zuen zeru guzia izarrez. Gero lurraren argitzeko, berotzeko, eta gizonak ikus ahal zezan bere bidea, egin zituen eta ezarri izarrek baino ahalago iruzkia eta ilargia.

Miragarriagoa da oraino Jainkoak gure arimentzat egin duena. Gure salbatzeko, edo hobeki mintza nadin, guri gure eginbiden irakasteko, eta gure bihotzen sustatzeko bere ganako amodio sailduaz, Jainko Jaunak ezarri darozkigu begien aintzinean bertzelako iruzki bat eta ilargi bat, Jesus eta Maria.

Bainan Jesusek, agertzeraz utzi dituen berthutetarik eta botheretik, ezagun du Jainko dela; Jesusen justiziak distiratzin du iruzkiak bezala. Eta non da jendea begia aski garbi duena, ahalkatu gabe, harri begira egoteko.

Ala Jainkoaren ontasuna handia baita! Jainkoak ikusten zuen ahuleziak behar gintuela lotsarazi, ezkinela abiatzen ere ahal Jesusen ondotik; eta hortakotz, ezarri darokun begien aintzinean norbeit ilargiak lur hundertako bidea bezein ezitiki, zerurakoa erakutsiko darokuna.

Gure arimen argitzaile ezti hura, Birjina Maria, gutarteko bat da, Adam eta Ebaren haur denaz geroz. Baina bere berthute miragarrien distiraduraz histen du ilargiaren edertasuna. Zenbatez ezta beraz gu ez-bezalakoa!

Ikusi dugu gorago Profetak nola mintzo ziren Jesu Kristo Gure Jaunaz, hura mundurat ethorri aintzinetik. Maria sailduaz ere hala-hala mintzo ziren Testament Zaharreko Liburuak.

Hura zuen gogoan Jainko Jaunak erratan zionean sugeari, lurreko parabisuan: «Noizpeit izanen duk emazte bat zangoaz burua lehertuko darokana».

Lurreko parabisu hartan gure galgarri izatu ziren birjina bat, zuhain bat eta fruitu bat. Hala-hala Birjina baten sabeleko fruitu benedikatuak merezituko daroku bethi iraunen duen bizitzera, hilez arbola baten gainean, edo batera dohana, ixuriz bere odola gurutze baten gainean.

Bainan, utziz aiphatu gabe profeten erranak, eta Mariaren saildutasuna eta podoreak nolakoak izanen ziren ezagutarazi behar zituzten gertakariak, lotzen naiz Gure Ama Maitearen ixtorioari.

LEHEN PONTUA Birjina Sailduaren sortzea, Tenplorat joatea eta Tenploko bizitzera

Hain handi izan beharra zen hauraren burasoak Joakin eta Ana, saildu handi ziren hura sortu gabe. Ezen, jadaneko hogoi urthe haurrik gabe zirela, eta oraino othoitzik khartsuenak egiten ziozkaten Jainko Jaunari, ken zezotela haurrik gabe izate harrek ematen zioten ahalkea. Zer berthutea ezta behar, gauza bat galdetu ondoan hogoi urthez ardietsi gabe, aintzina ere galde beraren egiteko?

Hogoi urtheren buruan Jainkoak egin zioten beren nahiaren arabera. Ana sailduak kontzebitu zuen haur bat. Eta hortakotz buraso saildu hek bozkario handia zuten.

Bainan nolakoa etzen izanen hekien zoriona jakin balute haur hura kontzebitua zela bekhatu orisinalaren notharik gabe, Trinitateko hiru Presunek eman ziozkatela graziaren nasaienak, eta harrek behar ziola lehertu burua ifernuko suge maradikatuari.

Etzakiten holakorik.

Eta hargatik, sortu zenean, eman zioten izen bat zerutikakoa: Deitu zuten Maria. Ez uste gabez, bainan Jainkoak hala nahi zuelakotz.

Hitz horrek erran nahi du Erregina, Andre guzien Andrea, eta oraino Itsasoko Izarra.

Zer laguntza, alabainan, etzarokun eman behar gu mundu huntako itsaso ilhun eta kalernatsuan gabiltzane! Nor da izen gozo eta ezti hori bihotz onez aiphatzen eztuena? Zenbat ama dohakabek eztiokate gomendatzen eri, edo munduko bide makhurretan dituzketen beren haur maiteak hitz bakhar huntaz: Maria Saildua! Bai, lehenik Jesusen izen sakratua da gehienik maitatua eta benedikatua dena mundu guzian, eta gero Maria sailduarena.

San Joakinek eta santa Anak ereman zuten beren haurra Tenplorat, legeak manatzen zioten bezala, sortu zenetik lauetan hogoi egunen buruan, eta eskaini zioten Jainko Jaunari amodiorekin.

Jainko Jaunak ere ikusi eta benedikatu zuen atseginekin haur saildu hura.

Ezen ordukotz haren adimendua osoki argitua zen eta haren bihotza ere sutan Jainkoaren amodioaz.

Hortakotz, Tenplotik atheratu-eta, joan zen etxerat graziarik nasaie-nez bethea.



Hiru urtheak egin zitueneko, jadanik Jainkoaren zerbitzuan jarri nahia, erran bide zioten beren burasoei, Jainko Jaunak galdetzen ziotela egin zezaketen sakrifizioerik handiena: Jainkoaren nahia zela, athera zadien etxetik, eta joan Tenploan zagozin birjina gaztekin bizitzera.

Eta buraso saindu hek, nahiz jadanik berak zahartuak ziren, nahiz etzuten haur hura baizik, eta hura ere noizpeit izatua, bizkitartean ezagutu zuteneko Jainkoaren nahia, ereman zuten Tenplorat beren haur maitea.

Maria ere joan zen alegerarik eta bozkarioa bihotzetik gaindi, izpiritu, gorphutz eta arima, behar zitzaiola zen guzia Jainko Jaunari kontsekratu beren bizi guzizkotz.

Eta orai, nor da haur xume hunek zaraman bizitzea adiarazten ahal duena? Nola adiaraz zein khartsu ziren haren othoitzak, zein handi eta behar-bezalako haren obediencia, ezintasuna, modestia eta bertze bertxuteak; zein ongi egiten zituen bere lan guziak; zer merezimenduak irabazten zituen egun guziz zerukotzat?

Othoitzak bezenbatean, bere egitekoek hartzen etzioten denbora guzia Tenploan zaraman, bere Jainko maitearekin solhasik samurrenetan. Eta zenbeit aldiz uzten bazuen othoitzak, bere lagunei atseginegiteko, orduan ere haren gogoa hartua eta bethea zen Jainko Jaunaz, bere aldean zituen lagunez eta hekien solhasez baino gehiago. Ezen etzen lanik, ez jostetarik, ez bertzerik deus, hari bere Jainko Jaunaren amodioa gogotik kentzen ahal zionik.

Eta horren gatik Tenploan zagon ahalaz, bera bakhar-bakharra, eta kanporat agertu ere gabe.

Gu, Birjina Maria ez-bezala, bekhatuan sortuak gare, guk Maria sainduak ez-bezala bekhatu guzien haziak edo erroak hemen tugu gure baitan, eta halarik ere behar dugu jakin, eta ahal bada ikusi non zer iragaiten den, non zer den; gu, ezin gaudezke agertu gabe eta gure buruak ezagutarazi gabe.

Zer du horrek erran nahi? Horrek erran nahi du, gu, bagabiltzala non-nahi eta nola-nahi, eta konturik eman gabe etsai errabiatu batzuez inguratuak gabela. Bederen ondoan, baldin erori bagare, eztezagun sobrarik mirets nola erori ahal izatu garen.

Ikusi-eta Maria saindua nola bizi zen, errex da sinestea egunetik egunera gero-eta khartsuago zohala, eta gero-eta sainduago.

Horra nola, birjinen Erregina izan behar zenak ezagutu zuen egundaino nihork egin etzuen: birjinitatea zein den berthute ederra; zein den beraz Jainkoaren gogarakoa, eta nola berthute horrek egiten duen gizona Aingeruen pareko. Ezen ordu arteraino, bazter guzietan, eta oraino gehia-

go Judu-Herrietan, hainitz ahalkegarri zen, neskakta batentzat, ezkondu gabe egotea.

Ordean Mariaren begi garbiak ikusi zuen ongi zertan zen egiakzko ohorea, eta, bihotza zerutikako zorion batez bethe-bethea, egin zion Jainko maiteari birjinitatearen botua.

Tenploan zen oraino Birjina Maria hil zitzaizkonean bere aita eta ama. Eta nola legeak, halako orduetan, apezzei berei manatzen baitzioten Tenploan zauden umexurtzen aita-orde izatea, apezek artha hartu zuten Mariaren egitekoek, eta hek bilhatu zioten behar zuen laguna.

Apezek beraz hautatu zioten Josep: Hura zen gizon bat justua eta osoki Jainkoaren bihotzaren arabera.

Mariak hamabortz-bat urthe zituzken Tenplotik atherarazi zutenean; eta san Josepek berrogoi-bat urthe.

BIGARREN PONTUA

Inkarnazioneko mixterioa eta Birjina Sainduak

Santa Elizabeti egin zion bisita

Ethorri zenean Jainkoak mundua salbatu gogo zuen egun benedikatua, Gabriel Arkanjelua jautsi zen zerutik Maria Sainduaren gana, Birjina hau othoitzean hari zelarrik; eta erran zion: «Agur Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin, benedikatua zare emazte guzien artean».

Maria aldiz, harritua aingeruaren ikusteaz, zagon bere buruarekin, zer erran nahi zuketzen hitz horiek, noiz-eta ere aingeruak erran baitzioten berriz: «Eztuzu zeren beldurrik izan, Maria, ezen amodiorekin begiratu darotzu Jainkoaren begiak. Kontzebituko duzu eta mundurat emanen seme bat Jesus deituko duzuna. Jainko Jaunak emanen dio Dabit bere aitaren tronua, eta Jakopen etxeko errege izanen da menderen mende».

Mariak ihardetsi zion aingeruari: «Nola diteke hori, eztudanaz geroz ezagutzen gizonik?». Eta aingeruak erran zion: «Izpiritu Saindua jautsiko da zure ganat, eta Jaun-Goikoaren berthuteak itzal eginen darotzu. Hortakotz, zure ganik sortuko den fruitu saindua Jainkoaren Semea deituko da. Eta horra non, Elizabet zure ahidea, adin handia izana gatik, kontzebitu duen seme bat; eta haurrik gabea deitzen zutenak, badu sarri sei hilabete esperantzetan dela; zeren ezpaita Jainkoak egin eztezakenerik». Eta Birjina Sainduak ihardetsi zuen: «Huna Jaunaren neskatoa, gertha bekit zure hitzaren arabera».



Gerthakari miressgarri hortarik lekhora, Maria Saindua, san Josepek lagundua, joan zen Zakarias eta Elizabet zagozin mendi arteko herrirat, behar ziola bere kusinari egin egiten ahal zion laguntza guzia.

Luzez ibili ondoan, heldu zen etxe hartarat; eta hura sartzearekin batean, hark lehen hitza ahotik athera bezein laster, jauzika abiatu zitzaion haurra Elizabeti. Elizabetek ere izatu zituen argi bereziak Izpiritu Sainduaren ganik; eta erran zion Maria Sainduari, bozkariorik handienan: «Benedikatua zare emazte guzien artean eta benedikatua da zure sabeleko fruitua.

»Eta nola dut nik hain zorion handia; zer gatik behar nuen ikusi nik, nere etxean, nere Jaunaren Ama!

»Nere sabelean daukadan haurrak nabaitu edo sumatu dueneko hemen zarela, zure boza entzun dueneko, jauzika edo saltoka abiatu da atseginez.

»Zein zaren dohatsu, Jainkoak erranarazi darotzun guzia sinhetsi duzulakotz. Ezen Jainkoak osatuko ditu, hasi dituen gauza handiak, errana izatu zaitzun bezala».

Solhas eder horien guzien gatik ere, Andre-dena Maria etzen urguitan sartu; ordean, umilitatezko sentimendurik handienekin, erran zuen kantika hau:

«Nere arimak goresten du Jainko Jauna, eta nere izpiritua bozkarioz bethea da Jainko nere Salbatzailea baithan.

»Begiratze bat egin nahi izatu dio Jaun Handiak bere neskatoaren ezdeustasunari; eta horra non, orai beretik hasirik, jende guziek deituko nauten dohatsua.

»Ezen Guziz Botheretsua denak egin du nitan gauza handirik, haren izena saindua da, eta haren urrikalmenduzko graziak jautsiko dire menderen-mende, haren beldur direnen gainerat.

»Suntsiarazi ditu, hats batez, beren buruaz hartuak direnen gogoeta arguiltsuak.

»Arthiki gizon botheretsuak beren alkhiatarik eta altxatu xumeak; bethe onthasunez erromesak; eta igorri etxerat aberatsak eskuak hutsik. Eta aldiz hartu du bere besoetan Izrael bere semea, bere lehenagoko amodioaz orhoituz.

»Hori da gure arbasoei eta Abrahami erran eta agindu ziotena, beren ondoko guzientzat, mende guzien akhabantzaraino».

Maria saindua egotu zen bere kusinarekin Jondoni Batixta sortu arteraino, eta egin-ahala lagundu zuen.

Gero joan zen berriz ere Nazareterat; eta han zagon san Josepekin, noiz eta ere biek joan behar izan baitzuten Bethleemera Erromako enpedorearen manuz.

HIRUGARREN PONTUA

Birjina Saindua, Jesus Jaunaren sortzeko egunetan eta bere Purifikazionean

San Josep eta Maria Saindua Bethleemerat zireneko, Haurraren sortzeko eguna zen. Hargatik etzioten hirian nihork leihorrik eman nahi izatu.

Hortakotz, eta Jesus Jauna han nahi zelakotz sortu, joan ziren heia baterat. Bai, munduaren nagusia han sortu zen. Eta Mariak, xatarrez inguratu ondoan, ezarri zuen othalakoan edo aberen jan-askan, lasto pixka baten gainean.

Aingeru baten mintzora ethorri ziren artzainak, eta haukien ondotik Errege Magoak izar batek gidatuak.

Maria Sainduak aldiz gogoan zaduzkan ikusten eta entzuten zituen guziak, eta bere izpiritua ere alha zuen gauza hekien gainean.

Jesus sortu, eta berrogoi egunen buruan, Maria saindua joan zen Jerusalemara, Haur-Jainko hura besoetan. Ezen legeak manatzen ziozkaten ama guziei Purifikazioneko edo elizan sartzeko zeremonia batzu.

Bertzalde Maria Sainduak behar zuen Jainkoari eskaini eta eman bere haur hura, eta gero, berriz erosi bertze zerbeit gauza emanez harren ordain. Zeren-eta Jainkoak erran baitzioten Juduei, Harrek beretzat nahi zuela familia guzietako lehen semea, non-eta burasok etzioten, aldaren oinetarat ekharri ondoan, erosten bertze zerbeit gauza emanez harren ordain.

Bainan elizan-sartzea, zergatik eginen du Birjina Sainduak, eztenaz geroz egundaino hura baithan izatu bekhatuaren notharik ttikiena? Mariak, bai, ikusi zuen lege hori etzela harrentzat egina, bainan bertzerik ere gogoratu zitzaion ordu berean: «Ez othe liteke bertze asko emakume, zeren eztudan urrats hau egin, egon litekenik pontu huntan legeari obeditu gabe?». Birjina Mariak etzuen niholaz-ere nahi, nihork haren gatik bekhatu egin zezan. Eta hortakotz jarri zen, hura ere, bertze ama bekhatosen herronkan, eta bertze Ama guzien zeremoniak izatu zituen.



Maria Sainduaren erakuspen horren aintzinean kontu emateko dugu, nola behar diotegun obeditu Elizaren manamendurik ttikienei berei, eta zer artha behar dugun, nihork eztezan egin bekhaturik gure gatik.

Purifikazioneko zeremonia hortarik lekhora, egin zion Andre-dena Mariak Jainko Jaunari egundaino nihork egin dion eskaintzarik ederrena: eskaini zion alabainan bere Seme bakharra, haur ttiki baten gorputz ahularen azpian gerizatu eta osoki gordea.

Jesus Jaunak ere berritu bide zion bere Aita Eternalari, lehenago ere egin zion eskaintza, erraten ziolarik:

«Gizonak etzautzuten zure maiestate handiari dohakon bitimarik ematen ahal; ordean, nere Aita, huna non naizen, gorputz bat jauntzia. Hartzen dut nere gain gizonaren zor guzien pagatzea, eta gizonak merezi dituen gaztigu guzien jasaitea. Hemen nauzu, nahi duzun guziaren egi-terat ekharria».

Ordu berean zeruko aingeru guziak eman ziren ahuspeka horrela mintzo zen Jesus Jaunaren adoratzeko. Eta Jainko Jaunak egin zioten begiratzerik eztieta eta samurrena hala bere Seme maiteari nola harren Ama sainduari.

Zeremonia hortan aberatsek eman behar ziozkaten apezpei urtheko bildotx bat eta etxe-uso ume bat edo uso-ttorttoila bat. Jende xeheari aldiz etzion legeak galdetzen bi etxe-uso ume edo bi uso-ttorttoila baizik. Maria etzen aberats, baina Judeako erregen odola izanki bere zainetan, eta zer-gatik eztu, bederen aldi huntan, aberatsek bezala eginen? Ez, Maria Sainduak etzuen iduriarazi zen baino aberatsago zela. Eta bi uso ttiki eskuetan agertu zen Tenploko athean.

Jainkoaren nahia zen Birjina Sainduak iragan zezan bere bizia behiereko trixtezian eta atsegabetan. Hortakotz gertharazi zuen aperiko azpian Simeon profetarekin. Eta Profeta harrek ezagutarazi zion zenbeit hitz baxharrez zer izan beharra zen Haur hartaz.

Simeonek beraz, hartu bere eskuetan Jesus Haurra, eta, mintzo zitzaiozari Jainkoari, erran zuen: «Orai, Jauna, utz dezazuke zure zerbitzaria bakean hiltzera. Ezen badut agindu zinarotana; nere begiz ikusi dut munduari ematen diozun Salbatzailea, lurra hazten dituen jende guzien argia, eta Izrael zure populuaren loria».

Josep eta Maria beha zagozilarik xoratuak solhas horiei, Profetak eman zion Haurra bere Amari erraten ziolarik: «Huna Izraeldar hainitzen kondenezioneko eta salbarazteko ethorria den Haurra. Hunek jasan behar dituen atsegabek eta tormentek zilhatuko darotzute bihotza, alderen-alde, ezpata zorrotz batek bezala».

Zer solhas pisuak Mariarentzat!

Ordu beretik Ama maite hura eman zen ethorkizunari begira. Eta ethorkizunean ikusten zuen Herodesek hilarazten zituela haurrak ehunka, milaka eta milaka, haren hura atxeman nahiz.

Bertzalde ikusten zuen zein handiak izanen ziren Juduen itsumen-dua eta gaixtakeria, eta nola behar zioten bere Jesus maitea funditu azote ukhaldika, arrantzez koroatu eta hilarazi bi ohoinen artean. Ikusten zituen Jesus Jaunak bere amodiozko Sakramenduan hainbertze giristinoen ganik hartu behar zituen laido ikharagarriak; eta nola, Salbatzaile dibinoaren aphaltenduen gatik-ere, gehienak damnatu beharrak ziren. Eta gauza horien jakiteak behar zioten iduki bihotza, bere bizi guzian, dena herustua eta lehertua. Zer bizitzea, edo hobeki errateko, zer martirio luzea!

Purifikazioneko zeremonien ondotik Josep eta Maria joan ziren Nazareterat beren Haur maitearekin. Nazareten bizi beharrak ziren elkharrekin hogoi-ta-hamar-bat urthez. Eta nolakoa ziteken egundaino lurra hazi duen familiarik sainduenaren bizitzea, Ebanjelio sainduak hitz baxhar batez ezagutarazten daroku: Jesus hekien eskupeko zen.

Eta errex da asmatzea, Maria Sainduak eta san Josepek, biek egiten zutela Jesusen etsenpluen arabera; bai, eskola maite hartan, biak igan ziren saindutasunik gorenera.

LAUGARREN PONTUA

Birjina Saindua, Jesus Jauna predikatzen hari zelarik eta Pasioneko denboran

Jesus Jaunaren urratsez, predikuez eta mirakuiluez mintzo zaizkigun Ebanjelioek ezte aipatzen Maria saindua bi edo hiru aldiz baizik. Eta erran diteke, orduan ere aipatua dela, baduelakotz apalmendu zerbeit jasaiteko.

Kanako ezteietan, Maria Sainduak, ez nahiz ahalkatuak ikusi jende gaixo batzu, erran zion Jesusi: «Eztute arnorik gehiago». Eta orduan Jesusek egin zion Amari ihardeste gogoetarazgarri hau: «Emakumea, zuk eta nik, zer egiteko dugu elkharrekin?». Erran balio bezala: «Noren ganik daukat, nik, dudan botherea? Zure ganik, ala nere Aitaren ganik? Eta nere Aitaren ganik balin badut, izan othe diteke bertze norbeit, erraten ahal darotanik, zer behar dudan egin? Orai oraino, ezta ethorria zer indar eta ahal dudan erakusteko ordua».



Bertze behin, Andre-dena Maria, jakinik Jesus bere biziaren galordean zela, joan zen hura ere, Nagusi Dibino harri begira zauden jenden aldera. Eta berehala norbeitek erran zion Jesusi haren ama eta ahideak ere han zirela.

«Nere ama eta ahideak, ihardetsi zuen Jesusek, huna non diren». Eta besoaz erakusten zuen han zen jende ostea. «Ezen nere Aita zerukoaren nahia egiten duena da nere anaia, nere arreba eta nere ama».

Huna oraino, nola, bertze aldi batez ere, aipatua den Maria Saindua Ebanjelioan. Behin batez, Jesus Jauna predikatzen hari zelarik, emazte bat bozkariarik handiengan hasi zen oihuka, jende guziaren artetik: «Dohatsu ekharri zaituzten erraiak! Dohatsu esnea eman darotzuten bulharrak!».

Eta beldur izan balitz bezala haren Ama bozkaria zadin solhas eder horien gatik, Jesusek ihardetsi zuen ordu berean: «Dohatsuago Jainkoaren hitza entzuten dutenak eta hari jarraitzen direnak!».

Birjina umil harrek etzuen ohorerik, ez laudoriorik behar mundu huntan; aitzitik bai bethiereko atsegabeak eta apalmenduak. Hargatik ezta errana Maria Saindua han zela, emakume khartsu hura mintzatu zenean.

Ordean huna non garen Maria Sainduaren biziko egunik beltz eta ilhunenean, Jesusen Pasioneko egunean.

Salbatzaile dibinoa abiatu zeneko, gurutzea bizkarrean, Jerusalemeko karririk barna, bere Ama athera zitzaion bidera. Eta, handik aintzina, etzen gehiago urrundu harren ganik, bainan jarraiki zitzaion bururaino, ahuspeka ematen zelarik, bereziki bere gurutzearekin batean erori zitelen tokietan.

Galbarioko mendirat heldu zirenean, han ere Maria Sainduak entzun zituen Jesusi egiten ziozkaten trufak eta irriak. Eta gero, trufek eta irriek baino saminkiago bihotza hautsi behar ziotena, entzun zituen eskuak eta oinak itzaten ziozkaten marteilu ukhaldiak.

Azkenean landatu zuten gurutzea, eta ikusi zuen gurutze hartarik dilindan bere Guziz Maitea, dena funditua eta gizona ez-bezalakaturia. Halarik ere Maria han berean egon zen, bere haren aintzinean, xutik eta ixilik.

Hemen gogoratzen ahal zaio norbeiti, Maria Saindua xutik eta ixilik zagola, zoratua zelakotz eta sorraiotua, atsekabearen handiz. Zenbatak munduan, holakorik gabe, ezinbertzeratuak direnak! Bainan ez! Mariaren bihotza, etzen hein hartan.

Jakinki, edo hobeki mintzatzera, ikusten Aita Eternalak sakrifikatzen zuela bere Seme bakharra, gure salbatzea gatik, eta Seme Jaunak xede bera zuela bere burua gaixtaginei largatzean, Mariak ere egin zuen bertze hain-

bertze. Maria Sainduak onetsi zuen, egundaino amak bere haurra baino miletan maiteago zuen bere Seme hobengabeak eman zezala bizia gizonaren ifernuko bidetik atheratzeko, eta Jainko Jaunaren ezagutarazteko eta maitarazteko.

Eta erranez Maria Sainduak onesten zuela Jesusen hiltzea, eztituz gauzak adiarazten diren bezala. Mariak, ordu lazgarri hartan eskaintzen zion Jainko Jaunari harren maiestateari guziz ongi zohakon bitima. Eta horra, nola zagon xutik. Xutik zagon mezaren ematen hari den apezaren pare; eta aldiz ixilik, etziolakotz Jainkoak kontsolazionerik ttikiena ere eman nahi gure Erostaile amultsuari, gure bekhatuez penitentzia egiten hari zelarik.

Jainkoaren nahiaren arabera izanen du Jesusek. Nihork, eztio erranen, ez eta bere Amak berak ere, oinhazerik ikharagarrienen errexkiago hartzen lagunduko duen solhas bakhar bat.

Ordean, Maria sainduak, han egonez, ez othe du, kontsolatu-orde, handitzen bere Seme Jaunaren bihotzmina? Nola etzitziaion gaitzi izan behar, Seme on hari gurutzefikatua izatea bere Amaren aintzinean? Eta Mariak berak ere ez othe luke hobe handik joaitea, eta ezpalu begien aintzinean ikusgarri trixte hura?

Bai, baditeke! Hala Amak nola Semeak, biek arinago zuketzen beren atsegabea. Ordean etzion Jesusek manatu bere Amari handik urrutzea; eta han berean egon zen Salbatzaile Dibinoaren pairamen hek guziak jasaiten zitelarik bere baithan. Halako gisaz non Jainkoaren grazia berezi bati esker, Jesusi ezarri zioten khoro harren punta zorrotzak heldu baitziren Mariaren bihotzeraino; eta Jesusen eskuak eta oinak gurutzeari josi zituzten itze lodiek arima bera ere zilhatu baitzioten Mariari, eta Jesus Jaunak izatu zituen laidoek eta trufek xukharazi eta iharrazi bihotza.

Eta halarik ere Ama samur hark hartu zion, bere Seme Jaunari ezpainetarik, jastatu-orduko utzi zuen edari kirets hura. Bai, gure Ama maiteak hartu zuen bi eskuz kalitz hura, eta han zen edari guzia edan zuen eta hustu azken xortaraino; erran nahi baita, Jesusen laido eta oinhaze guziak denditu zituela bere baithan ezin borthizkiago.

Eta atsekabezko itsaso harren erdian ithoa bezala zelarik, bazuen oraino, izpirituan landaturia, handik ken etzezaken bertze gogoeta bat: «Jaun zerukoak hainbertzekoak ikusten, eta gizonak nola egin zezaken hain kontu gutti haren merezimendu neurri gabekoez? Nola etzen ifernua behin-bethikotz hetsia egonen».

Gogoeta horietan zen galdua, eta bihotza lehertua, Jesus Jaunak erran ziozkanean hitz hauk, erakusten ziolarik ordu berean Jondoni



Joanes: «Emakumea, horra zure Semea». Gero Maria Sainduak ongi sinhets zezan Jesusen errana, ongi ezagut zezan Jondoni Joanesen ama izan behar zuela, eta, ordu berean lurrak hazi behar zituen jende guzien ama, entzun zituen Jesusek bere apostolu maiteari buruz erran zituen solhas hauk: «Horra zure Ama».

Bainan Semetzat Jainko bat duena nola bilhaka diteke munduko bekhatoros guzien ama, munduko Judas berri guzien ama? Berak ere nola izan dezake ama on baten amodioa higuintzarik baizen izanen ez tuten arima dohakabe batzuentzat? Eta oraino, zer gatik maita eternitate guzian ifernuko su lamen erdian ikusi behar dena?

Ezen ikusten zuen, harrek emanik ere argi eta laguntza guziak, hainitzak joanen direla alegerarik ifernuko bideari behera; eta zenbatenaz ere grazia gehiago galtzerat utzi baitukete eta hainbertzenaz ere lazgarriago dituzketela beren tormentak ifernuan.

Horiek guziak han zituen bere begien aintzinean. Bainan ikusten du, hartaz baizik, zenbatak galduak litezken; bertzalde Jesus Jaunak ere manatzen diola onets dezan jende guzien ama bilhakatzea; eta erran zion bere Seme Jaunari, bihotzaren zola-zolatik: «Huna, Jauna, zure neskatoa, egizu nitaz nahi duzun guzia». Eta gure Ama bilhakatu zen.

Jondoni Joanik ere onetsi zuen Jesusen errana, eta ordu beretik izatu zuen bere Nagusi Dibinoaren Amaz, bere amaz izatu zuen artha.

Hemen, guk ere ikusi behar ginuke, ian, Andre-dena Mariak ezagutzen ahal gaituen bere haurtzat; edo, hobeki mintza nadin, behar ginuke ikusi, ian aski bilhatzen othe dugun Andre-dena Mariari atsegin egitea, harren ezagutaraztea eta maitaraztea.

Maria Saindua gurutzearen oinetan egotu zen Jesus Jaunaren azken hatseraino; eta, aintzina ere bai, Jesus gurutzetik jautsi arte. Jautsi ziotenean, lotu zen besatraka dilindan zagon buru hil eta funditu harri. Garbitu ere zuen, egin ziteken bezenbatean, azotek eta arrantze puntetik odola zariola ezarri zuten begitarte maitea, egotu zitzaion begira astiroki mila ezpata kolpek baino saminkiago bihotza zilhatzen zion ikusgarriari, eta gero, lagundu ondoan gorphutz adoragarri hura, bi gizon sainduak eman zioten hobiraino, itzuli zen Jerusalemerat Jondoni Joanirekin eta bertze emakume sainduekin.

BORTZGARREN PONTUA

Birjina Sainduaren

mundu huntako azken egunak

Jesu Kristoren pairamenen ixtorioa kondatuz geroz Ebanjelioaren iskribatzailek eztaokute gehiago deusik erraten Maria sainduaz. Ordean geronek asma eta erreki sinets dezakeguna da, Jesus Jauna bere Amari agertu zitzaiola, Bazko goizean, bertzerik nihori baino lehen, eta orduan, ederki kontsolatu zuela eta halaber saristatu harren gatik hartu zituen atsekabe guziez. Nolakoak etzitezken Mariaren atseginak bere Jesus Jauna ikustean bizi-bizia eta edertasun guziez jauntzia!

Erran diteken guzia da egun hartan hasi zirela Mariarentzat, zeruan, menderen-mende, bethiraute guzian izanen dituen zoriona eta bozkariak.

Egia da, Salvatore egunean, Jesus Jauna zerurat igan zitzaiola, eta aldiz berak bazuela oraino hainitz urthe lur huntan egoteko, bainan egun hartan berean ere, bazen Ama maite harrentzat atsegabe baino atsegin gehiago. Ezen nola ez izan bozkariarik handiena, bere Seme Jauna ikustean zerurat igaten, nihoren laguntzarik gabe, eta Jainko bezala zuen bothereari esker.

Ordu arteraino, Judu eta pagano, guzien ustekeria zen: Jesus langile ttiki baten Semea zela. Populua ere haritua zen oihuka, eta izkirituka, iduri bazter guziak hautsi behar zituela, nahiago zuela bizirik eta libro ikusi Barrabas, erran nahi baita, gizon bat ohoina eta jende hiltzailea, ezen ez Jesus Saindutasuna bera zena.

Maria sainduak etzituen ahantziak horrelako laidoak.

Harren bihotz kolpatu eta zaurtuak zer gudukak etzituzken noiz nahi izpirituarekin: Jesusek argitu diozkateitsuak, ernearazi gorra, eriak sendatu, hilak piztu, zernahi ongi egin diote!

Juduak, errazue, egintza horietarik zeinen gatik egin darotazue nere Semea jende hiltzailearen pareko, eta hura baino ere areago? Zer gatik ematen diozue gaixtaginari libertatea eta nere Semeari gurutzea? Eta izpirituak ihardesten zion: Etzakiten zer hari ziren.

Bainan Salvatore egunean, Mariak erraten ziokeen gogoz eta bihotzez bere Jesus maiteari: «Orai arte ezpazaituzte ere ezagutu, bederen orai, zerurat zohazin huntan, beharko dute ikusi Juduek eta bertzek Jainko biziaren Semea zarella.



»Zohazi beraz zerurat. Han emanak izanen zaitzu gizonaren Salbamenduaren gatik jasan dituzun laido eta pairamen lazarrirei dohazkoten atseginak eta ohoreak.

»Errege izanen zare, zeru lurren Errege! Mundu guziak, bazter guziek ezagut zaitzatela beraz beren Nagusi eta Jainkotzat. Eta nitaz, bai, nitaz izan bedi nahi duzun guzia».

Horiek zitezken, edo bederen zerbeit holako, Birjina Sainduaren sentimenduak Jesusen zerurat igatean. Eta, aingeruak manatu ziotenean harri eta apostoluei Jerusalemert joaitea, jautsi zen hura ere mendi gain hartarik apostoluekin batean.

Jainkoaren xedea zen, guri irakastea, bere Ama maitearen bidez, zertan den saindutasuna eta nola saindutzen ahal garean.

Egon behar izatu zitzaion beraz lurraren gainean, hainitz urthe, eta bizi izatu zen ordu arteraino bezala, ahal guzian ixilik, eta izpiritua Jainkozko gauzez bethea.

Andre-dena Mariaren lana oraino, Jesus Jauna zerurat iganez geroz, hau zen, othoitzean haritzea eta othoitzik khartsuenen egitea, populu guziek entzun eta sinhets zezaten apostoluen mintzoa, Ebanjelio saindua heda zadin, lehen-bai-lehen lurreko zokho eta bazter guzietaraino, eta hala, Jesus Jauna izan zadin ezagutua eta maitatua.

Azkenean ethorri zitzaizkon aingeruak erratera, akhabatzera zohazkola lur huntako egun beltz eta luzeak, zeru guzia berandetsia zuela; hurbildua zuela zerura joan behar zen egun ederra.

Eta huna Elizako Nagusiek zer erraten darokuten Mariaren heriotze horren gainean:

Maria Sainduak bethe zuenean bere mundu huntako denbora, Jesusek eman nahi izatu zion oraino bizi ziren apostoluen ikusteko zoriona, hala nola apostoluei ere bai, beren Ama onaren ikustekoa.

Jesus Jaunak igorri ziozkaten beraz aingeruak apostoluei erratera, Maria Sainduak etzuela gehiago, lurraren gainean egoteko, hiru egun baizik.

Horrela apostoluak bildu ziren Andre-dena Mariaren ingurura, Jainkoaren mirakuilu bati esker.

Gure Ama maiteak bazituen orduan hiruretan hogoi-ta zenbeit urthe; bainan hala-ere, etzen ezindua edo hautsia adina, ez eritasune.

Ezen Maria Agredakoaren arabera, Andre-dena Mariaren gorphutza eta itxura egotu ziren, hogoi-ta hamahiru urthetarik goiti, ganbiorik bate-re gabe.

Irakurtzen da oraino Maria Agredakoaren liburuetan, Maria Saindua joan zitzaioleta atheraino bere ongi-ethorriaren egitera Jondoni Petriri, Jondoni Paulori eta bertze apostoluei.

Hekiei guziei galdetu zioten beren benedizioea; eta gero, jarria zagolarik bere ohearen gainean, egin ziozkaten bere azken gomendioak, eta eman zioten hark ere bere benedizioea.

Andre-dena Maria heldua zen bere biziaren burura.

Orduan hautsi zituen lurrari estekatzen zuten lokharriak azken amodiozko akta baten bidez, eta haren arima saindua igan zen zerurat aingeruen bozkariozko kantiken erdian.

Apostoluentzat eta lehenbiziko girstino hekieztat atsegabe handia izatu zen Ama on harren galtzea. Hargatik kontsolatu ziren, egin ez bere baitan, zeruan izana gatik ere, Maria Saindua hekien Ama botheretsua izanen zela, eta ehortzi zuten Jerusalemetik kanpo hobi berri batean.

Erran dut Mariaren arima igan zela aingeruen bozkariozko kantiken erdian. Aingeru batzu zerurat zohazilarik bertze hainitz gelditu zen haren gorphutzaren inguruan. Hek ere haritu ziren, hiru gau-egunez, bozkariozko kantika kantatzen. Eta gero, hiru egunen buruan, ixildu ziren.

Bainan zergatik etziren gehiago kantuz hari?

Apostoluek jakin behar zuten hori san Tomasi esker.

Apostolu hura heldu zenean Jerusalemara, bazuen jadanik hiru egun Andre-dena Maria ehortzia zela. Halarik ere galdetu zuen egin zezotela hobiaren idekitzeko atsegina: behar zuela harrek ere, oraino aldi bat, ikusi bere Ama maitearen begitarte. Eta hortakotz apostoluak joan ziren berriz ere Andre-dena Mariaren hobira.

Bainan, ideki zutenean hobi hura, ikusi zuten etzela han gorphutzik; Mariaren arropa batzu zirela han bakharrik zerutikako usain on-on batekin. Eta orduan apostoluek eta girstinoek ezagutu zuten Maria Sainduaren gorphutza piztua zela eta zerurat altxatua.

Nola izan ziteken bertzela?

Ez, hobiko harrek etzuten ikustekorik notharik gabeko gorphutz harren gainean. Altxatu zuten beraz aingeruek zerurat, hil-eta hirugarren egunean. Eta, gorphutz eta arima, Andre-dena Maria jarri zen bere Seme Dibinoak aphaindua idukitzen zion alkhi distirantaren gainean.

Jainko Jauna du bakharrik bera baino gorago, eta bera baino apalago, han ikusten ditu Aingeruak eta Arkanjeluak, Patriarkak eta Profetak, Apostoluak, Martirak eta bertze saindu guziak.

Tronuari dohakon bezalakoa da haren jaunztura; buruan duen korona Jainkoaren Amari dohakon bezalakoa; eta aldiz haren bothereak dire



zeru-lurren Erreginari dohazkonak. Ezen, Jainko Aitak zeru-lurren Erregina egiten zuelarik, Jesus Jaunak ere ematen ziozkan bere pairamenen, eta heriotzearen bidez egin zituen irabazi guziak. Eta hori, zen baino ere miletan aberatsago eta botheretsuago izan ahal zadin.

Han ditu beraz bere eskuetan gure sokhorritzeko eta salbarazteko behar dituen indar eta grazia guziak.

Zerurat altxatua izatu zen ordu hartan berean hasi ziren, gure Ama maitearentzat, bethi eta bethi iraunen duten bestak eta kantu zoragarriak.

Lurrean ere eman zen jendea, ordu beretik, Maria Sainduaren ohoratzen. Eta egundaino geroz baditu eta izanen elizak bazter guzietan, eta aldareak eliza guzietan.

Bertzalde egiazko giristino den guziak badakharke bere Ama onaren iduria medaila batean; eta haren haur dela erakusterat emateko oraino hobeki, giristino egiazkoak izanen du soinean, gau eta egun, Ama Birjinak guziz maite duen ordre zenbeiten arropa edo abitua.

Erran nahi baita, Maria Sainduari gerthatu zaiola bere solhas hunen arabera: Jainkoak ikusi du haren neskatoak zer gauza gutti eta ezdeusarentzat daukan bere burua, eta hortakotz jende guziek deituko dute dohatsua mende guzien akhabantzarraino.

Irakaspena

Nahi balinbadugu egiazki Andre-dena Maria hel dakigun gure behar-orduetan, eztezagun uste izan aski zaikula haren medailaren eta arroparen garreatzera, erakuts dezagun haren haur garela, harenak garela gure bizitzeaz beraz. Eta, orai arteraino, izatu balinbagine ere bekhatoros, eztugu zeren etsi gure salbamenduaz.

Maria gure Amak bere gerizan hartzen duena ezta nihoiz galduko.

Urtharilaren 2an SAN ODILON ABADEA

Hila 1049an

San Odilon sortu zen Auberñan 962an. Haren aitaren izena urru-
nean ere aipatua zen; halakoak zirelaketz haren kuraia eta jakitatea gerlan
haritzeko. Haren Ama ere aitoren semen alaba zen. Eta, gehiago balio
duena, hala aita nola ama biak giristino khartsu ziren.

Odilon oraino haurra zen, bere gisako paralesia batek hartu ziozkan-
nean kasik menbro guziak; hain ongi, non ezpaitzagoken gehiago bere
zangoen gainean, eta bere eskuetan ere ezpaitzezaken deusik atxik.

Bainan haur hura hasia zen ordukotz Andre-dena Mariaren ohora-
tzen; eta Andre-dena Mariak ere egiten ziozkan begiratze maite batzu.

Behin bada, Odilonen zaintzaileak ereman zuen haur ttiki hura zeru-
ko Erreginaren ohoretan egina zen eliza baten athera. Eta hara ekharri
zuenean han utzi zuen erraten ziolarik, han berean egon zadiela, bazuela
mezu edo mandatu bat egiteko.

Haurra, ohartu zenean bera zela, itzuli zen berehala elizarat buruz.
Eta, bermatuz zangoen eta besoen gainean, sartu zen elizan. Elizan sartu-
eta, etzen han berean gelditu. Bainan, herrestan eta herrestan, joan zen
aintzina aldarearen oinetaraino, lotu zen aldareko oihalei, ikusteko bezala,
ian bada etzen altxatzen ahal, eta ordu berean, Andre-dena Mariari esker,
xutitu zen, egundaino eri izatu ezpalitz bezala eta osoki sendatua.

Handik goiti bazuen bethi debozione berezi bat bere Ama zerukoa-
rentzat. Eta nahiz munduko eskoletan ibili zen, eta munduan ere bai
egotu, hogoi-ta sei urtheak arteraino, halarik ere bizi ahal izatu zen garbi-
ki eta sainduki.

Hogoi-ta sei urthetan, emanik ongi bere gogoari behar zuela Jainkoa
maitatu ordu arteraino baino hobeki, eta Andre-dena Mariak zerbeit gatik
sendatu zuela bere haurtasunean, athera zen mundutik, eta egin zen bene-
diktano Kluniko komentuan.

Denbora hetan san Maiul zen komentu hartako abadea edo lehen
aintzindaria, eta saindu hari esker komentua hainitz ederki zohan. Odilon
ere eman zen haste-hastetik eta hain gogo onez berthutearen praktikatzen,
non, handik lau urtheren buruko, fraiderik hoberenak begira baitzagozin
haren su sainduari.



San Maiulek ere ezagutua zuen ongi gizon gazte hura nor eta zer zen. Eta, hiltzerat zohalarik, galdetu ziotenean nor beharko zuten hautatu haren ordain, erran zioten, hauta zezatela Odilon; hura zutela hoberena.

Kluniko fraidek egin zuten errana izatu zitzaizoten bezala; nahiz Odilonek etzuen oraino hogoi-ta hameka urthe baizik, eta bakharrik bortz urthe komentuan zela; eta bertzalde berak ere egin zituelarik egin-ahal guziak, bertze norbeit hauta zezaten.

Bai! Jainkoaren nahia zen Odilon izan zadin hekien abade. Eta hari esker Kluniko komentuak eta bertze hainitz komentuk behar zuten Jainko Jauna maitatu eta zerbitzatu diteken hobekiena.

Odilonen baithan gehienik ageri zen berthutea hau zen, Jainkoaren eta lagunaren amodioa. Jainkoaren gatik, Jainkoari atsegin egitea gatik hartzen zituen gogo onez fraidegoari darraizkon nahigabe eta atsegabe guziak.

Jakinki mezaren indarrak hainitz handiak direla, mezak ematen diola Jainkoari ohore berezi bat, eta purgatoriotan diren arimei eta oraino lurra-
ren gainen direnei ardiesten diozkatela graziarik nasaienak, etzuen nihoiz huts egiten mezaren ematea.

Lagunaren alderako karitateaz bezenbatean, hainbertze eta halako amoinak egiten zituen, non askotan fraide lagunek erraten baitzioten urrunegi zohala. Bainan Odilon sainduak bazuen konfiantza itsu bat Jainkoa baithan, eta hortakotz aintzina zohan hura bere bideari. Eta Jainkoak etzuen uzten saririk gabe haren sinheste handia.

Behin, bertze komentu batera joana zelarik, bere karguak ematen zion eginbide baten gatik, bildu zen komentu hartara nihork igurik zezaken baino hainitz eta hainitz fraide gehiago. Eta komentuan etzuten zer eman jaterat jende hekiei guziei, ez eta ardiei ere. Lan handiak zituzten beraz, eta etzakiten soberarik non ziren. Bizkitartean Sainduak manatu zuen eman zezatela zutena; eta gero, ikusiko zutela zer beharko zen egin.

Mahain zerbitzariak hasi ziren beraz zathien partitzen. Eta bethi begira zagozilarik, noiz izanen zuten ahalkea errateko etzutela gehiago deusere, ikusi zuten atseginekin bazutela mundu guziarentzat, eta berentzat ere bai, behar zen ogia eta jakia.

Bertzealdi batez, Odilon sainduak, komentu batetik bertzera zohalarik asko fraiderekin, kausitu zituen mendi bizkar batean jende gaixo batzu, lehertuak kargaren azpian, eta egarria ezin gehiagoa jasanean zirenak.

Nola utz jende hek sokhorritu gabe?

Ez, bere bihotzak etzion holakorik onesten ahal, eta manatu zioten bere fraide lagunei, eman zezotela jaterat eta edaterat. Fraidek egiten bide

zuketean beren baithan: «Eta gero guk, ditugun guziak eman-eta, zer dukegu?». Bainan hala-ere egin zuten manatua zitzaizotena, eta beren edari untiak hustu zituzten kasik osoki.

Urruntxago zirenean Sainduak erran zioten behar zutela jan ahotara bana, indar pixka bat hartu-eta kurrituko zutela errexkiago. Fraideak etziren gose, bainan bai egarri. Eta hortakotz jarri ziren ziotelarik beren baithan: jan baino lehen nahiago zuketela edan.

Bainan etziren berek uste zuten bezein gaizki. Ezen, edari untiak hartu zituztenean eskuetarat, ohartu ziren unti hek betheak zirela gainearaino, eta Jainko Jaunak nahi ziotela adiarazi zer atsegina egin zion hekien Abade sainduak bere amoina handia egitean.

Lagunaren alderako karitate hori agertu zen oraino hobeki jende xeheri hainitz sofriarazi zuen gosete handi batean.

Orduan, eman ondoan beharretan zirenei bere komentuko jatekoak, eta bihia bera ere bai, saldu zituen elizako unti sakratuak. Gero, unti sakratu hekien dirua ere bazohala ikusi zuenean, abiatu zen bera eske jauregiz-jauregi eta hiriz-hiri. Eta Jainkoak berak daki zenbat mila jendei salbatu zioten bizia, eta zenbat mila erik ardietsi zuten, haren benedizionario esker, batzuk bixta, bertzek zentzua, eta bertze batzuk bertze asko gaitzetarik sendatuak izatea.

Bere meneko fraide guzientzat ezitasuna bera zen. Behar zuenean eginarazi norbeiti lan bat edo bertze, etzen nihoiz mintzo othoizka baizik. Eta erraten ziotenean onegia zela, harrek ihardesten zioten: «Baditeke onegi naizela zenbeit aldiz, bainan bietarik bat, nahiago dut Jainko Jaunak kondena nazan onegi izatu naizelakotz, ezen-ez, borthitzegi edo idorregi».

Bere burua zuen bakharrik ekhartzen borthizki eta idorki. Haren barurak bethierekoak ziren; etzuen loik egiten hainitz gutti baizik, bazakarhazkan bethi larru arraseko zurdazkoa eta punta zorrotzez bethea den gerrikoa; eta, janaz bezenbatean, etzuen jaten dodoia gosez ez hiltzeko behar zena baizik.

Huna hargatik zer gerthatu zitzaion hauste egun batez: Egun hartan, behar zuela egin bertze orduz baino penitentzia handiagoa, ongi bethe zuen hautsez jan gogo zuen ogi piska; eta bertze fraidek baitzuten Erregela sainduak onesten duen arno xorta ere, Odilon sainduak hitzartua zuen mahain zerbitzariarekin hari ura ezarriko ziola arnoaren orde.

Bazkariteko denboran beraz, jan zuenean ogi pixka bat, hartu zuen eskuetarat gathilua, behar zuela edan bere ura; bainan ordu berean ikusi zuen nahi etzuenik; uraren orde arnoa zuela.



Ekharrazirik zerbitzaria, erakutsi zion arno hura; galdetu balio bezala, zergatik etzuen egin erran ziona.

Zerbitzaria harritu zen. Ezen bazakien arras ongi etziola arnorik eman. Gero, kendurik arnoa, ereman zion bere gathilua urez betherik. Eta aldi hartan ere, ura arno bilhakatu zen sainduaren ezpainetara zeneko.

San Odilonek ikusi zuen orduan, Jainkoak etzuela nahi urik edan zezan egun hartan, eta edan zuen arnoa.

Saindu hunen debozione maitenetarik bat oraino, hau zen: Purgatorioetako arimentzat othoitz egitea, eta hekien sokhorritzea bere egin-ahal guzian. Haste-hastetik ere bazuen debozione hori, bainan hainitz gehiago handitu zitzaion beilatiar batek kondatu zionean zer gerthatu zitzaion bere bidean.

Behin fraide frantses bat, Jerusalemetik etxerat hari zelarik, bortxatua izatu zen gelditzera Ziziliako inguruetako isla ttiki batean, denbora eta itsasoa gaiztu zirelakotz.

Fraideak, isla hartan zabilalarik, aurkhitu zuen han harpe batean zagon ermitau bat, eta eman ziren solhasean elkharrekin. Ondoko egunetan ere egin zuten solhas hainitz aldiz.

Azkenean ermitauak, ikusirik fraide frantses batekin zuela bere egi-tekoa, galdetu zion: ian ezagutzen zituen Kluniko komentua eta Odilon, hango abade saindua. Eta fraideak ihardetsi zionean Odilon saindua eta haren komentua hainitz aipatuak zirela Frantzia guzian, ermitauak erran zion:

«Hemen harrokarik baizik ezten zokho batean, bada, noizik behinka zabaltzen dena, leze ikharagarri bat suzko itsaso batez hartua. Su hartan ageri dire orduan arimak, ez bakharrik ehunka, bainan ehun milaka; eta han dagozi nigarretan, hatspereneta eta auhenik erdiragarrieta.

»Badire, arima heien tormentatzen hari diren debruak, uliak bezala, nork-daki zenbat ehun mila: Izpiritu gaixto heien oihuak eta izkirituak edo garrasiak ere entzuten ohi dire, eta nola errabian ematen diren, eskapatzen zaizkotenean aztaparretarik oraino behingotz han zituztela uste zituzten arimak.

»Beren koleran aipatzen dituzte maiz Odilon abadea eta Kluniko fraideak, hekien othoitzten eta penitentzien gatik dutelakotz galtzen gehienik.

»Eztezazula beraz hutsik egin Odilon sainduari erratea nik zer kon-tatu darotzudan, eta aintzina ere egin eta eginaraz dezala ahal duen guzia arima gaixo heien onetan eta Jainkoaren loriakotz».

San Odilonek, jakin zituenean gauza horiek, ezarri zuen legea hilen ofizioak emanen zirela Umiasaindore biharamunean, haren ordenako komentu guzietan.

Handik zenbeit denboraren buruan, Aita Sainduak ere ekharri zuen lege bera Eliza guziarentzat. Eta horrela hasi zen giristino guziek hain maite duten Umiasaindore biharamuneko besta.

San Odilonen karitatea eta bertze berthuteak halakoak zirelakotz, jendea hartaz mintzo zen bazter guzietan. Eta bazter guzietarik jendeak ethortzen zitzaizkon, batzu arimako, bertzeak gorphutzeako onaren bilha.

Behin san Anri edo Henri Alemaniako enperadorea ere ethorri zitzaion bere gorteko jauneria guziarekin. Eta nola enperadore harrek baitzuen kristailezko unti bat hainitz baliosa, eta nonbeiko printze batek present igortzen ziona, unti hura eskaini eta eman zion san Odiloni.

Untzi hura hain zen ederra, non komentuko fraide guziek nahi izatu baitzuten ukhitsu beren eskuz. Eta, han zabilatarik batetik bertzera, izatu zen fraide gaizo bat erortzerat utzi zuena. Hautsi zen beraz unti eta pusketan eman. Orduan zituzten lanak eta bihotzminak.

Sainduari ereman ziotenean berri hori, harrek ere etzioten gorde zer atsekabe handia zuen, ez untiaren beraren gatik, bainan enperadorea bera oraino han zelakotz, eta hura gai zelakotz, ezartzeko unti haren haustea, hura Abade sainduari ereman zuten zerbitarien gain.

Joan zen beraz elizarat bere fraide guziekin; eta han othoitz pixka bat egin zuenean, manatu zuen ekhar zezotela unti hura zena zen bezala.

Fraideak joan ziren bilha. Eta bozkario handitan, eta irriz zagozilarik, ekharri zioten unti oso-osoa.

Bainan sainduak etzuen irrik. Ezen ikusi zuenean unti etzela hausten hasia ere, eta fraideak aintzina ere irriz zaudela, gogoak egin zion hari egin nahi izatu ziotela trufa bat; eta galdetu zioten bizi-bizia, ian, halako trufaren egitean, etziren beldur Jainkoak gaztiga zetzan?

Orduan fraidek erran zioten unti hura hautsia izatu zela egiazki eta pusketan ezarria, eta Jainko maiteari zor ziotela haren berriz ere osorik ikustea. Eta guziek elkharrekin eman ziozkaten eskerrak Jainko Jaunari.

Erran ditugun berthuteak pratikatzen zituelarik, eta Jainkoak ere aditzerat ematen ziolarik zein zuen maite, aipatu eta aipatzeko utzi ditugun grazia handiez, heldu zen lauetan hogoi eta zazpi urthetara. Eta, adin handi hartan, oraino erretreta baten predikatzen hari zelarik, eritu zen.

Ezagutu edo jakin ere zuen etzuela gehiago lur hunen gainean ego-teko zenbeit egun bakhar baizik, eta hortakotz Jainkoaz eta Jainkozko gauzez bethea zagon haren gogo. Iduri zuen beraz gure arimen etsaia



etzela menturatu ere behar harren ganat hurbiltzera. Ordean eztitugu ongi ezagutzen izpiritu dohakabe harren gaixtakeriak.

San Odiloni ere agertu zitzaion azken eritasun hartan, behar ziola oraino eman iharros-aldi on bat. Bainan eri maiteak, harturik gurutze saindua eskuan, erran zion hazkarki:

«Ifernuko suge madarikatua, manatzen daiat Jesus nere Nagusi eta Jaunaren izenean, eta hi garhaitu hauen Gurutzearen izenean, ohakit begien aintzinetik, Jesusen gurutzean aurkhitu diat nik bizia, eta hik heriotzea. Eta nere gatik gurutzefikatua izatu den Jainkoaren eskuetan nahi diat ezarri nere arima».

Horrela kasaturik izpiritu gaixtoa, aintzina haritu zen othoitzten eta solhasean bere Jesus maitearekin zortzi bat egunez. Eta gero, azken aldi-kotz benedikaturik bere komentuko fraide guziak, loharkatu zen ezti-etzia Jauna baithan. Bazuen hiruetan hogoi-ta bat urthe komentuan zela.

Irakaspena

Zergatik san Odilon joan zen komenturat, utzirik mundua eta munduan izan zetzazken abantailak? Jesus Jaunak egin darozkigun agintza ederren gatik. Jesus Jaunak hitzeman diote harren gatik mundua eta munduko gauzak utziko dituztenei, emanen diotela lur huntan berean ehunetan gehiago, eta bertze munduan bizitze eternala.

Eta horra san Odilonek zer zuen nahi segur baino segurkiago, lurreko onthasun, atsegin eta ohore guziak zangoen azpian ezarri-eta, komenturat joan zenean.

Irakurtzailea, agintza horiek zuretzat dire san Odilonentzat bezein ongi, nahi balinbaduzu beiratu zure bihotza onthasunei eta atseginei sopra estekatetik; nahi balinbadiozute ihesi egin bekhatuzko okasionei, eta nahi balinbaduzu Jainko Jauna maitatu zure bihotz guziaz.

Galde dezogun Jesus Jaunari grazia handi hau san Odilonen arartekotasunaz.

Urtharilaren 2an

SAN MAKARIO ESIPTOKOA, ABADEA

Hila 39lan

San Makario sortu zen Esiptoan laugarren mendearen hastean. Huna zertarik dakigun iragan zuela sainduki bere haurtasuna:

Abere edo azienda zain zagolarik bere kideko lagun batzuekin, lagun hek ebatsi zituzten fikoak. Bainan gero laster egin behar izatu zuten; eta nola, beren lasterka hartan, utzi baitzuten erortzera fruitu hetarik bat, Makariok altxatu zuen eta jan. Nongo haurrak etzuden egin gauza bera?

Eta bizkitartean saindu hunek auhendatzen zuen bere haurkeria hori, zahartu ondoan ere, urrikizko sentimendurik bizenekin; bere huts hortaz nigar egiten zuen, eta hola, berak batere nahi gabe, adiarazten zarokun zein ongi iragan bide zuen bere haurtasuneko denbora.

Handitu zenean, kontatu zioten nolako bizitza zeraman san Antoniok bortu-barnean. Eta ordu berean gogoak eman zion behar zuela egin Antoniok bezala; behar zituela utzi harrek ere mundua eta munduko ezagun eta ahide guziak.

Erran zioten beraz burasoei, etzitezela grña edo khexa haren gatik, harrek bereaz eginen zuela, eta jarri zen etxola ttiki batean, jenderik bate-re iragaiten etzen oihañ zokho batean.

Nahiz oraino gazte-gaztea zen, hala ere lotu zen hain khartsuki bere saindutasuneko lanari, non, zenbeit urthe bakharren buruko, bizi baitzen Jainko Jaunarekin batasun oso batean, eta iduri baitzuen, bazuela jadanik hainitz urthe fraide zela. Jainkoak ere ezagutarazi nahi izatu zuen ordu beretik nolakoa zen gizon gazte harren saindutasuna.

Behin, bera kanpoan zelarik, ohoin bat sartu zitzaion etxolan, hartu ziozkan ere harrentzat on ziren guziak; eta gero, kamelu handi batekin baitzabilan, kamelu harren gainean antolatzera zaramazkan bere gauza hartu guziak, Saindua bera ethorri zenean.

Bertze edo-zein izatera, Makariok erranen zion: «puska hek han berean utz zetzala, eta berak ere, bai, huts zetzala toki hek arin-arina». Makariok aldiz egin zuen nihola ere guk egin ezkinukena. Alegia nonbeiko arrotz bat izanki, joan zitzaion ohoinari alde-aldera, eta lagundu zuen puska guzien antolatzen kameluaren gainean.



Denak ongi estekatu zituenean, ohoinak eman zion zaldiari makhila ukhaldi bat, abia zadiela; bainan zaldia etzen higitu ere; jo zuen oraino hobeki, eta kamelua han berean zagon.

Orduan Saindua joan zen bere etxolara, eta han ikusirik xokho batean pala txar bat, ereman zion ohoinari pala hura, erraten ziolarik: «Horra, segur naiz zure kamelua tresna hunen beha zagola; ikusiko duzu orai abiatuko dela».

Hainbertzenarekin jo zuen kamelua eta abiatu zen. Saindu gazteak aintzina ere lagundu gogo zuen, bainan, bide pixka bat egin zutenean, berriz ere kamelua gelditu zen; eta hain ongi, non ezin gehiago abiarazi ahal izatu baitzuten.

Ohoinari etzitzaion oraino halakorik gerthatu. Gogoeta egon ondolan beraz, zer zuken haren zaldiak, galdetu zion lagundu nahi zuen gizon gazte hari, erran zezola othoi, hura nor zen.

Makariok ihardetsi zion, hura zela bekhatoros bat etxola hartan zagona. Eta ohoina harrিতua eta ordu berean Jainkoaren graziak argitua, eman zen belhauniko harren aintzinean; galdetu zion barkhamendu, eta othoiztu zuen har zezala bere etxolan, behar ziola irakatsi zer behar zuen egin zerurat joaiteko.

Eta denborarekin hura ere fraide bilhakatu zen.

Mirakuilu horren gatik, eta gero oraino, jasan zuelakotz pairurik handienarekin, belztua izatea mihi tzar baten solhasaren gatik, jendea hasi zen ohartzen gizon gazte hura saindu handi bat zela. Eta hortakotz san Makariok bazituen maiz ikustiarak alde guzietarik.

Bainan, nola ezpaitzen ohore gose, ihesi egin zuen bortu barnerat.

Hargatik, bortu-barnean bere etxe-tokia hautatu baino lehen, joan zen san Antonioren ikustera, nahi ziozkalakotz galdetu xehetasun batzu komentuko bizitzaren gainean.

Hamabortz egunez ibili ondoan, joan ahala joan, heldu zen san Antonio zagon etxolara. Saindu handi harrek ikusi zuenean gizon gazte bat bere etxolako atxean, galdetu zion hura nor zen. Arrotzak erran zion hura Makario Esiptokoa zela. Eta ordu berean Antonio sainduak hetsi zuen athea; ezen entzuna zuen handia zela saindu gazte harren pairua, eta nahi zuen jakin ian hala zena ala etzena erran othe zioten.

Makariori etzitzaion batere gaitzitu san Antonioren egitate hura: eta emanik ongi bere gogoari, etzuela harrek egiazki zohakona baizik jarri zen belhauniko, eta egotu zen luzez hala-hala.

Bizkitartean san Antoniok ere ikusi zuen gizon gazte harrek bazuela egiazko umilitatea. Ideki zion beraz athea, besarkatu zuen amodiorekin,

eta, erraten ziolarik atsegín zuela harren ikusteaz, eman zion bide luze baten ondoan behar zuen guzia.

Makario, egotu zenean nagusi handi harren eskolan berak nahi zuen bezenbat, joan zen bertze bortu zokho baterat, su berri batek hartua, eta ongi iragana bere gogoarekin, behar zuela egin ordu arteraino baino hobeki.

Egun hartarik goiti, etzuen jaten astean behin baizik, eta gabak eta egunak lanean eta othoitzean zaramazkan, kasik loik ez pausarik gabe, eta bertzalde, jasanarazten ziozkalarik bere gorphutzari jende biziak jasan detzakzen guziak. Ura bera ere, askotan, nakhaizgarria edo desgustagarria zuen, zeren behin untzitara bat ekharriz geroz hartarik hari baitzen ziraueino, eta hartarik ere edaten zuen ez nahi zuken bezenbat, bainan aldian zenbeit xorta bakhar.

Harren lana saski egitea zen. Eta gero, egin zuenean jasan ahal zeza-ken bezenbat, bazohan heien saltzera.

Behin hargatik ohartu zen bazuela ereman ahal baino gehiago ere.

Bidean zelarik beraz, eta joan behar zuen tokitik oraino hainitz urrun, ikusi zuen etzezakela egin urratsik ere gehiago, lehertua zela. Orduan erran zion Jainkoari bere bihotzaren zolatik: «Jauna, badakizu zer heinetan naizen; zuri nago». Eta handik berehala aurkhitu zuen bere burua Esiptoko ur handiaren bazterrean. Etzen urrunago joan baharra oinez.

Makario sainduak maite zituen, bertzen gaintetik, bi berthute hauk: bere buruaren mortifikatzea gauza guzietan eta ixiltasuna. Harren moneko jarri ziren fraidei ere gomendatzen ziozkaten bereziki bi berthute horiek. Eta nahi zuen bidean ere, bia balin baziren elkharrekin, etzitezela egon bat bertzearen aldean, bainan zohala bat aintzinaxago.

Egun batez, hola zohan bere fraide lagunarekin, bera gibeletik eta lagun hura aintzinean, noiz eta ere gerthatu baitzitzaioten nahi etzuketén ixtoria.

Lagun harrek, urrunsko joana zelarik aintzinean, ikusi zuen apez pagano bat, lasterka zabilana bere jaingo faltsuaren ohoratzea gatik, makhila handi bat eskuan zut-zuta.

Hura ere ixilik utzi orde, fraide ondikoizkoak erran zion: «Haizen bezalako debrua, norat oha laster hortan?». Solhas hori erran zueneko, paganoa joan zitzaion berari buruz, eta haritu zitzaion bere makhila handiaz jo-ahala jo. Halako gisaz non xehakatu baitzuen eta funditu. Eta gero eman zuen berriz ere bideari.



San Makarioren parreratu zenean, harrek erran zion mintzorik eztiarenekin: «Egun on, egun on; zer lanak dituzun, eta nola unhatua bide zaren!».

Paganoa, harritua horrelako agurraren izateaz, joan zitzaion sainduari aldera; eta galdetu zion: «zer zuen hain onik ikusten harren baithan, halako solhas onen errateko».

Sainduak ihardetsi zion: «Hitz horiek erran darozkitzut, zeren-eta ezagutu baitut zure buruaren funditzen hari zinela deusik balio eztuen lan batean».

«Orai ageri da Jainkoaren zerbitzari bat zarela, erran zion berriz ere paganoak; eta ezta segur zure idurikoa, hantxet aurkhitu dudan fraidea. Atrebitu harrek erran darot solhas bat xarra eta behar ezten bezalakoa; bainan, makila huni esker, baditu bereak».

Horrela mintzo zelarik, Makario saindua othoitzean zagon harrentzat. Eta etzuen alferretan egin othoitz; ezen argitua betbetan bere ordu arterainoko zoramenduaren gainean, eman zen belhauniko Sainduaren oinetan, erraten ziolarik, etzuela urranago joaiterat uzten, non etzion agintzen hartuko zuela hura ere fraidetzat.

Orduan joan ziren fraidea eroria zagon tokira. Eta nola ez-paitzagoken bere zangoen gainean, ereman zuten biek handik hurbil zen komen-tu baterat.

Apez paganoa zin-zinez emana zen Jainkoari buruz; hartu zuen beraz fraide-arropa. Eta zeren hura konbertitu zen, bertze hainitz paganoak ere egin zuten harrek bezala, utzi jainko faltsuen adoratzea eta giristino bilhakatu.

Jainko Jaunaren xedea zen beharretan ziren asko jenderen sokhorritzea saindu hunen bidez. Hortakotz eman zion nagusitasun osoa ifernuko izpiritu gaixtoen gainean. Eta saindua baliatu zen bere bothere handiaz hala bere fraiden onetan, nola ethortzen zitzaizkon bertze jenden sokhorritzeko.

Behin bere etxolaren aintzineko bidearen gainean zelarik ikusi zuen Satan harren alde-aldean iragaitera zohala. Alegia jaun arrotz bat izanki, ifernuko printzea lihozko arropa batez jauntzia zen. Baina arropa hura dena bethea zen zarpa edo sakela ttiki batzuz, eta zarpa baktxean bazuen fiola ttiki bat.

Sainduak galdetu zion norat zohan. Eta izpiritu gaixtoak erran zion: «Banohak hire fraidetara, behar diat ikusi, ian ez othe diotedan harrarazi-ko hemen tudan erremedio hautarik zerbeit-bat».

Fraiden etxolak barna ibili zenean, eta egin ondoan bere egin-ahal guziak hekien erorrarazteko bederen gogozko zenbeit bekhatutan, berriz ere agertu zen san Makarioren aintzinean; eta nahi bazuen-eta-ez, bortxatua izatu zen erratera zer egin zuen.

Sainduak galdetu zionean beraz zer berri zen, Satanez ihardetsi zion: «Hire fraide horiekin etzukek egin deusere. Eztire neretzat trufarik eta trufarik baizik. Eztarokat nihork konturik egin nahi izatu.

»—Zer, erran zion berriz ere Sainduak, eztuk beraz nere haurridetan nihor-ere adiskiderik?

»—Dena den bezala erratera, baduk bat sinesten nauena. Eta ni ikusi orduko itzulia duk niri buruz haizea bezala.

»—Nola dik izena fraide hark?

»—Teopemto, ihardetsi zion oraino ere debruak; eta hitz horrekin batean suntsitu zen».

Hemen erran behar dugun gauza bat, hau da, san Makario bera fraide bakhar batekin zagon, eta haren bertze ikasle guziek bazuten beren etxola ttikia, eta etziren elkharretarat biltzen larunbat arratsaldetan baizik kobesatzeko; eta gero hargatik igandea elkharrekin zaramaten.

San Makariok entzun zituenean debruaren solhas hek, etzuen denborarik galdu; ordean joanik berehala fraideak elkharretara biltzen ahal zituen tokira, egin zuen zenbeit solhas bakhar batzuekin eta bertzeekin, eta gero, erran zion Teopemtori behar zuela iragan gaba harrekin, haren etxolan.

Teopemtorentzat ohore handia zen ermitau guzien Aitaren izatea bere etxolan gau bat osoa; eta atsegin handia zuen.

Etxolara zirenean, eta gero jarri bat bertzearen aldean, Sainduak galdetu zion: «Eta, haur maitea, zertan gare?».

—Arras ongi, nere Aita, zure othoitzei esker.

—Bainan, erran zion Sainduak, gogoeta horiek etzaituzte unhatzen pixka bat?

Teopemto etzen menturatu egiazen erratera; eta ihardetsi zion, ezetz.

—Eta nik, erran zion berriz ere san Makario, baduelarik bortu huntan naizela hainbertze urthe, nik lanak ditut, gogoeta gaixtoen kentzen nere izpiritutik.

Sainduaren solhas horrek hazkartua, ermitaua ere mintzatu zen, ziolarik: «Nere Aita ona, ez nagoke gehiago ixilik, erranen darotzut zertan naizen: Bai, badire aldi batzu, gogoeta gaixtoek tinkatzen eta hestutzen bainaute».

San Makariok etzuen bertzerik entzun nahi. Horrela aitortu ziozkanen bere tentazioneak, erran zion xehe-xehea zer behar zuen egin halako orduetan, eta gero biharamunean joan zen bere etxolarat.



Handik zenbeit denboraren buruan, ikusi zuen berriz ere debrua, eta galdetu zion, ian bazuen hainitz adiskide haren fraidetan.

Eta izpiritu gaixto harrek ihardetsi zion: «Eztiat egitekorik deusere hire fraidekin, eta gehiago dena, orai arte nahi nuen guzia eginarazten nion fraide harrek ere ezta rotak konturik egiten. Horra zeren erratera bortxatua naizen».

Orai emanen dudan ixtorioak adiarazten ahal daroku nolako sinhes-tea zuen Jesus Jauna baithan:

Behin, bere fraiden ikusten ibilia, etxerat buruz hari zen, noiz-eta-ere denbora gaitz ikharagarri batek hartu baitzuen. Etzela halako aroarekin urrunago joaiten ahal, begira eman zen non aurkhituko zuen atherbe pixka bat. Eta ikusirik bazirela han hemenka paganoen hobi batzu, dorre punta xorrotz batzu iduri, joan zen hetarik hurbilenerat.

Etzen ere lotsatu ikusi zuenean bazirela hobi hartan gorphutzak oraino oso-osoak; ordean egin zuen gurutzearen seinalea fede bizi batekin, eta sartu zen beldurrik gabe.

Barne hartan haritu zen othoitzean berant arte. Azkenean hargatik, ordukotz gauerdia iria, eman zen etzanik, behar zuela egin lo pixka bat. Eta loharkatu zen harturik gorphutz hetarik bat bururditzat.

Bainan, ongi loharkatu zeneko, ethorri ziren debrua harrabotsik handienetan, iduri behar zituztela errotik athera hobi guziak. Bizkitartean harrituak gure sailduaren atrebentziaz, hasi ziren oihuka erraten ziotelarik bururditzat hartua izatu zenari: «Hi, holakoa, jeiki hadi, eta athor gurekin mainhu baten hartzera».

Bertze debru batek ere ihardetsi zuen, hilaren barnetik, eta alegia hila bera mintzo: «Ez naitekek altxa, badiat norbeit nere gainean».

Hainbertzenarekin Saindua hasi zen ukhail-ukhaldika, bururditzat zuen gorphutzari, erraten ziotelarik: «Jan jeikiko haizen! ian higituko ere haizen!».

Eta ordu berean debru guziak joan ziren handik, erraten ziotelarik Sainduari: «Bagohazik, bagohazik! nagusi haiz, gaina duk!».

Kontatzen dut oraino bertze mirakulu bat:

Behin gizon gaizo bat joan zitzaion san Makariori, «othoi urrikal zakiola, han zituela bere ondotik preso altxatu nahi zutenak, harrek hil balu bezala hekien gizon bat; gaizki zabiltzala, harrek etzuela hil nihor egundaino».

Ethorri zirenean beraz gizonak, Sainduak erran zioten: «Zuek baitiozue, hau dela zuen gizonaren hiltzailea, eta aldiz hunek, eztuela egundaino nihor hil, zatozte eta gohazen gorphutz hartara».

Hilera zirenean, Sainduak erran zion: «Zu norbeitek hil zaituenak, behar darokuzu jakinarazi, ian gizon hunek kendu darotzun bizia; mintza zaite; manatzen darotzut Jesusen izenean».

Eta guziak harrituak zagozilarik, zer behar zuten ikusi, hila mintzatu zen, erran zuen, «ezetz», eta ikhararik handienean joan ziren etxerat preso altxatu nahi zutena, eta harren bilha zabiltzanak.

San Makariok bazuelarik jadanik larogoi eta hameka urthe, harren aldean ziren fraideak oharu ziren indarrak ttikitzen hari zitzaizkola. Galdetu zioten beraz egin zezala oraino ager-aldi bat bere meneko fraiden artean.

Saindua joan zen gogo onez. Eta nola hainitz ahuldua baitzen, erran ziozkaten bakharrak hitz hauk: «Nere haurride maiteak, egizue nigar zuen bekhatuez, mundu huntzan zareteino. Ezen uzten duenari nigar egitea bertze munduko, hango nigarrak etzaizko baliatuko baizik ere harrentzat ditezken su-gar ikharagarrien hazteko eta hazkartzeko».

Solhas horiek entzun zituztenean, fraide guziak eman ziren belhau-niko eta ahuspeka, nigarrez zagozilarik; eta galdetu zioten egin zezala othoituz heientzat.

Sainduak benedikatu zituen, eta gero utzi behin-bethikotz. Ezen handik berehala hil zen ezti-eztia, eta haren arima ederra joan zen zeruko loriaz gozatzerara.

Irakaspena

Ikusi dugu nola saildu hunek aipatzen eta deitoratzen zuen haurtasuneko huts xume bat; eta nola huts harren gatik egin dituen penitentziarik handienak.

Bertzalde, huna oraino, ixtorioaren akhabantza huntan, nola erraten darokun, behar dugula, guk ere, egin nigar eta penitentzia gure biziko hainbertze bekhatuz, non-eta ezitugun egin nahi eternitatean batere baliatuko etzaizkunak.

Bekhatuan litekenak beraz har beza xede egiazkoa, bekhatutik atheratzeko. Garen guziek ereman dezagun gure bizia urrikizko sentimendu on batzuetan, hartuz penitentziatzat eta Jainkoaren eskutik izan detzaz-kegun lan eta atsegabe guziak.



Urtharilaren 3an SANTA JENEbieBA BIRJINA

Hila 499an

Behin batez san Sermein edo Germein apezpikua, Angletarrerat zohalarik bertze apezpiku saildu batekin, gelditu zen Nanterreko herrian, han behar zuela gaba iragan. Bi apezpiku horiek saildu handi batzu ziren, eta, urrunean ere, jendea horietaz mintzo zen. Hortakotz Nanterreko populu guzia bildu zen horien ingurura lehiarik handiengan.

San Sermein ezin zagoken hakiei zenbeit solhas on erran gabe. Mintzatu zitzaioten beraz. Eta erran-gogoak jadanik erranak, ixiltzera zohan begiek eman ziotenean hamar urthekeo nexka bat.

Hurbilarazirik haur hura, eta hari eginik gurutze bat kopetan, galde-tu zuen: «Nola du haur honek izena? Non dire hunen burasoak?».

Haur hori, ihardetsi zioten, haur hori Jenebieba da; eta huna horren aita eta ama. Ezen buraso dohatsu hek ere jarraiki zitzaizkon beren haurrari.

Apezpiku sailduak erran zioten orduan: «Zuen haur benedizioez-ko huni aingeruak egotu zaizko begira atseginekin eta amodiorekin, bere sor-egunean. Ezen handiak dire eta miresgarriak Jainkoaren izenean egin behar dituen gauzak».

Gero, haurrari buruz ematen zelarik, erran zion: «Nahi nuke jakin, haurra, ian eztuzun behin-ere ezagutu, zure baithan, Jesus Jaunari zere buruaren emateko eta Nagusi dibino harren espos bilhakatzeko zerbeit gutizia».

«Nere Aita on eta saildua, ihardetsi zion haur gazteak, Jainkoa izan dadiela laudatua, zeren ezagutarazi darotzun zer amets edo zer nahikunde sumatzen nuen aspaldion nere bihotzean. Hori zen nik Jainkoari galde-tzen nion gauza bakharra».

«Ongi da, haurra, erran zion apezpiku sailduak, zohazi aintzina; Jesus Jaunak beretzat nahi zaitu, galde zotzu beraz nahi tutzun graziak, emanen darozkitzu».

Biharamun goizean, Sailduak nahi izatu zuen jakin, ian haur hura orhoit zen bere bezperako agintzez. Gero, gomendaturik ongi, etzezala beraz bilha Jesus maitez kanpo bertzerik nihori atsegin egitea, eman zion gurutze ttiki bat, lephotik ekhar zezala, eta joan zan bere bidean.

San Sermeinek horrela mintzatu zuen haurra, Nanterreko familiarik errumesenekoa zen; eta, haren adineko bertze nexkek bezala, azienda

zaintzea zuen bere lan egun guzietakoa. Handik aintzina ere lan bera izatu zuen, oraino zenbeit urtez. Ordean egiten zituen bere othoitzak eta lanak artha gehiagorekin, eta hobeki kontu eman ez zer hari zen.

Bertzalde, handik goiti, goizean bere aziendetarat gabe, arratsean aziendetarik ethorri-eta, bethi lanari lotua zen. Eta izan zadiela azienden ondotik edo etxeko lanetan; haren izpiritua bethi Jainkoaz hartua zagon; eta, bere egitekoek zerbeit hutsarte uzten ziotela iduritzen zitzaionean, egiten zuen elizarainoko bat, ahalik denborarik guttiena hartzen zuelarik.

Hargatik haren othoitz hek, eta elizan hain maiz ibiltze hek hainitz gaitzi zitzaizkoten haren burasoei. Eta etzioten bakerik ematen: «Zergatik behar zuen egin hainbertze othoitz, zer zuen hain maiz Elizan ibiltzeko».

Eta nola, erasia horien gatik ere, Jenebieba, aintzina baitzohan bere bideari, bazuen buraso hekien ganik jasaiteko asko beltzuri eta asko egitate txar.

Ordean huna zer gerthatu zitzaion amari igande egun batez:

Igande hartan beraz, amak nahi izatu zion sentiarazi bere hasarre-goa, eta erran zion: «Bederen egun hartan beharko etxean egon, elizarat joan gabe».

Haurrak othoiztu zuen, nigarrez zagolarik, etzezala erran halako solhasik; lehenagorik ere orhoit zadiela, zer botu egin zuen san Sermeinen aintzinean, eta utz zezala meza sailduaren entzutera.

Bainan ama dohakabe hura etzen hartan.

Utzi orde haur gaixo hura elizarat joaitera, eman zion mazelako bat, noizpeit ixil zadiela.

Bai! jo zuen haurra, zeren galdetzen zion mezaren entzutera joaitera; eta jo zueneko, lanho batek hartu ziozkan begiak; itsutua zen osoki.

Eta erran diteke egiazko izpirituko itsumenduan ere eroria zela; ezen ezagutu eta aitortu orde berehala, Jainkoaren gaztigu bat zuela itsumendu egotu zen itu hemezortzi hilabetez.

Hemezortzi hilabete hekien buruan, Jainkoaren graziak argitua, eta urrikitan zeren eman zion bere haur sailduari gaztigu handi bat, laudoriorik baizen behar etzuen denboran, ekharrarazi zuten bere besoetarat haur hura, ongi besarkatu zuen, eta erran zion, ekhar zezola ithurriko ur xorta bat.

Gero, berari benedikarazirik ura, eta Jainko Jaunari ongi barkhamendu galdeturik bere gaizkiaz, garbitu zituen begiak ur hartaz, eta ordu berean argitu zitzaizkon.

Burasoek ezagutu zuten halaxet, hekien haurra saildu bat zela. Eta utzi zuten bizi zadiela berari zohakon bezala. Bainan mirakuilu hortaz



geroz, denbora guti zuten bizitzeko. Jenebiebari hil zitzaizkon aita eta ama, biak, hamabortz urthe baizik etzitularik.

Eta nola aita eta ama galduz geroz, ezpaitzuen gehiago ahiderik Nanterreko herrian, Jenebiebak egin zuen nigar eta othoitz, zenbeit denboraz, bere burasoen hobiaren gainean, eta gero, baitzuen Pariseko hirian izeba bat, joan zen haren etxerat.

Izeba hura emakume Jainkotiar bat zen, eta hortakotz eman zen, haren etxean sartu zeneko bizitzerik sailduenaz bizitzen.

Erran diteke Jenebiebaren othoitz, Pariserat joanez geroz, bethierekoa zela. Haren izpirituak etzezaken gal Jainkoa begien aintzinetik. Eta bera balin bazen bakharrik bere ganbaran, halako su saildua pizten zitzaion Jesus Jaunarentzat, non nigarra jausten baitzitzaion, eta baitzarian asko aldiz gau guzia eta taulak berak ere bustiak izaten baitziren belhauniko egotu zen tokian.

Bertzalde jakinki, ez balinbagare Jesusen iduriko mundu huntan, Jainko Aitak ezkaituela ezagutzen ahal bere haurtzat; eta oraino, beldur, ekhartzen bazuen bere gorputza sobra ongi, hauts zetzan Jainkoari egin ziozkan agintzak, etzuen gehiago jaten astein bi aldiz baizik, igandetan eta ortzegunetan. Eta orduan ere janharitzat garagarrezko ogi pixka bat zuen eta zenbeit baba bihi.

Gabaz etzuen loik egiten hainitz guti baizik. Eta biharamunean komuniatu behar bazuen, hala nola igandetan, orduan othoitzean hari zen gau guzia, begirik hetsi ere gabe.

Bazituen oraino denbora batzu bertzeak baino bildura handiagoan zaramazkanak.

Trufanatik eta ortzegun Sainduraino etzen atheratzen ere bere gelatik.

Denbora hura guzia bakharrak zagon, eta izpirituko bilduririk handiengan. Jainkoak berak daki nolakoak ziren orduan haren othoitzak, penitentziak, eta Jesus Jaunari egiten ziozkan amodiozko aktak.

Hargatik emakume batek ere egin zuen bere baithan behar zuela ikusi Jenebieba zer hari zen hala bere ganbaran bakharrik zagon hartan.

Bai, hurbildu zuen begia athe xilora, bainan bere kaltetan. Ezen itsutu zen ordu berean, eta egotu osoki itsutua Bazko arteraino.

Orduan Jenebiebek berak sendarazi zuen, egiten ziolarik gurutzearen seinalea begien gainera.

Eta nola Birjina saildu harrek egiten baitzioten ongi handia arime, bere bizitze ederraz, eta oraino bere solhas Jainkozkoek, gure arimen etsaia etzagoken luzez egin gabe bere egin-ahal guzia, hari bere omenaren galarazteko.

Erranarazi zuen beraz norbeiti Jenebiebaren berthuteak etzirela berthute-orde batzu baizik, eta, itxura eder hekien itzalean, bizitzerik itzusi zaramala.

Batetik bertzera, bertzetik bertzera, solhas horrek egin zuen bide, eta azkenekotz hainitzak eta hainitzak ziren nardatuak ere zirenak entzuteaz Jenebieba saildu bat zela.

Horrela bazen hainitz erasia jenden artean, Jenebiebaz goiti beheiti, eta haren izena herrestan zabilaten, san Sermeini gerthatu zitzaionean berriz ere Parisetik iragaitea.

Etzuen ahantzia lehenago Nanterreko herrian benedikatu zuen haur ttiki hura. Galdegin zituen beraz haren berriak. Bainan etzion nihork eman berri onik.

Halarik ere apezpiku saildu harrek galdetu zioten non zagon, eta joan zen haren etxera, bere inguruan zituen jende guziakin. Jendeak etzezaken asma, apezpiku batek zer egiteko izaten ahal zuen Jenebieba bezalako neskatxa batekin.

Eta nolako etzen izatu jende hekien estonimendua. ikusi zutenean, san Sermein mintzo zitzaiola Jenebiebari aingeru bati mintzatu ziteken bezala, eta harren aintzinean zagola, tabernakle baten aintzinean egon ziteken bezala?

Bai, jende hek harrituak zauden apezpiku saildu hari begira. Eta gero, oraino are gehiago harritu ziren, san Sermeinek erran ziotenean: «Jende onak, huna bada nori esker dukezuen bizia denbora laburrik barnean».

Horra nola xutik ezarria izatu zen, eta sailduz atzagotua, mihi pozoinatu batek itxilean eta lohian ezarri zuen Jesusen espos garbia.

Bertze aldi batez ere, hainitz gauza guttiak egin zuen ezpaitzuten erre bizi-bizia, sorgin gaixto bat zela.

Huna zer gerthatu zitzaion:

Hura zen denbora, armada ikharagarri bat Pariserat buruz hari baitzen, ezartzen zitularik sutan eta odoletan bere bidean aurkhitzen zituen hiri guziak.

Armada harren aintzindariak deitzen zuen bere burua Jainkoaren azotea, eta hura zen Atila, errege bat guziz oiesa eta gaixtoa.

Errege harren beldurrez beraz, Paristarrak jadanik ihesi abiatuak ziren. Eta aldiz Jenebiebak erraten zioten, etzitezela athera hiritik, ezpaziren hirian egoten galduak zirela, zagozila han berean eta egin zezatela othoitz.



Ordean hainitz gaizki hartua izatu zen solhas hori. «Baizik-eta, hekien guzien galaraztea gatik mintzatu zela». Eta erretzera zaramaten, Jainkoak adiarazi ziotenean, mirakuilu baten bidez, gaizki hari zirela.

Gauzak ere joan ziren harrek erran bezala. Hiritik athera zirenak erori ziren etsaien eskuetarat; eta aldiz hirian etzen sartu Atilaren soldaduetarik bakhar bat ere. Eta, oraino gehiago dena, mundu guzia ikharan zaukan armada hura urrundu zen Parisetik, nihork etzakielarik zergatik.

Bainan Jenebieba ezagutzen zutenek bazakiten haren othoitzei esker zutela grazia bat hain handia.

Orai erranen dudan mirakuiluak oraino hobeki ezagutarazi zuen nolakoak ziren haren bothereak.

Behin, lau urtheko haur bat erori zen putzu baterat eta han itho; hain ongi itho, non, uretik athera zutenean, beltz-beltza baitzen eta osoki hoztua.

Nor da eztakienik buraso batzuk zer atsekabea duten holako orduetan?

Orai aipatzen dugun haurraren amak, burutik joana zela iduri, hartu zuen besoetan gorphutz maite hura, eta ereman zion Jenebiebari, erraten ziolarik othoi urrikal zakiola; etzela oraino bathaiatua ere.

Ama gaixo harren bihotz-mina ikusi zuenean, Jenebieba eman zen belhauniko gorphutzaren alde-aldean, hedatu zuen kapa hegal bat harren gainerat, eta galdetu zion Jainkoari, eman zezola ama dohakabe hari hain fede biziarekin bilhatzen zuen grazia.

Eta ordu berean haurra piztu zen.

Gaixtaginek bazuten aski, ixilik egoteko. Eta aldiz bertze jende guziek hainbertze ezagutza eta halako amodioa ekhartzen zioten, non ezpaitzitzaioten iduritzen ematen ahal ziotela aski laudorio hain ongi handiak egin ziozkaten sailduari.

Bertzalde ordukotz santa Jenebieba bere biziko azken egunetarar heldua zen. Eta bere berthute ederren saria behar zuen, ez lurrian, bainan bai zeruan. Hil zen beraz sailduen heriotzeaz larogoi urthe zituelarik; eta hil ondoan, Pariseko hiriak hartu zuen bere Patrointzat.

Irakaspena

Mundu huntako bidexketan, zenbat-nahi xuxen ibilirik ere, gerthatzten ahal zaikuna hau da: apalduak eta gaizki ibiliak izatea gaixtaginen mihi izurritsuek.

Bainan nahi bagare jarraiki santa Jenebiebaren etsenpluei, nahi bagarre bizi umilitatea eta karitatea pratikatuz, Jainko maiteak berak artha atxikiko du gure izenaz eta ohoreaz.

Eta ezpagaitu ere altxatu nahi mundu huntan, bederen emanen daroku pazientzia. Eta gero, zenbatenaz ere apalduago baikaituzkete mundu huntan, eta hainbertzenaz ere gorago izanen gare zeruan.



Urtharilaren 4ean
ANSELA FOLIGNOKOA,
DOHATSUA; ALHARGUNA
Hila 1588an

Dohatsuaren izena baizik garreiatzen ez tuen saindu hunen bizitzeak baditu irakaspenik baliosenak gaztetasuna lazokiegi iragan dutenentzat, emazte alhargunentzat, eta oraino saindutasun gora baterat heldu nahi diren guzientzat.

Sortzez Italiakoa zen, eta Foligno erraten dioten hiri batekoa. Hunen gaztetasunaz eztugu zeren mintza. Ezen adin hartan airean zuen oraino izpiritua; eztuen maite Jainkoa; eta alfer da Jainkoaren amodiotik kanpo ematen diren egunez mintzatzea.

Gaztetasunean ibili zen zoratua atsegín eta aisia guzien ondotik. Eta gero ezkondu zen, begiratu ere gabe zer eginbideren azpian ematen den ezkontzen dena.

Hargatik ezkondu-eta zenbeit urtheren buruan, bazuelarik ordukotz haur multxu bat, hasi zen gogoeta hobe batzuen egiten. Egotu ere zitzaion begira pixka bat ordu arterainoko bizitze txar-galduari. Eta ikusirik zenbat bekhatuz hobendun zen, eta nolakoak zitezken haren kontuak, nigarra jauzi zitzaion.

Joan zen beraz kobesatzera; kobesatu zen behin, bietan eta askotan ere bai; kobesatu eta komuniatu zuen; eta hargatik erraten daroku berak, hari ere gerthatu zitzaiola, bertze hainbertzei gerthatzen ohi zaiotena, lehenaldi hetan guzietan, ahalkeak gaina hartu, eta etzuela bihotzik aski izatu bere buruaren ezagutarazteko zena zenarentzat.

Ordean, nola bere barneko harrak ezpaitzion bakerik ematen, eta nola gero eta saminago baitzohazkon haren asikiak, egin zion Jainko Jaunari othoitz hainitz, aurkhiaraz zezola kobesor bat argitua eta bere bihotzaren araberakoa, eta berari ere eman zezola bere bekhatuen aitortzeko behar zuen kuraia. Eta hala kobesatu ahal izatu zen behar zen xehetasun guziarekin, dena ahalkatua Jainko maiteari eman ziozkan atsekabez, eta ordu berean, izitua ikusiz zer zorrak zituen Jainkoaren justiziaren alderat.

Hortakotz egiten zituen artharik handienarekin kobesorak eman penitentziak eta bertzerik ere bai, kobesorak onesten ziozkanean.

Lehenbiziko grazia horiez ongi baliatu zelakotz, Jainkoak eman zion bertze bat handiagoa: adiarazi zion zein zen ona izatu harren igurikitzeaz,

eta hari eskua emateaz bere bekhatuek ezarri zuten lezearen zolatik atheratzeko, joiten eta arthikitzen zituelarik bertze hainitz arima ifernuko su lametarat, zenbeit bekhatu bakhar egin orduko.

Eta Ansele, egundaino baino ukhitsuagoa eta urrikituagoa, eman zen berriz ere bere bekhatuen deithoratzen, eta hetaz nigar eta nigar egiten. Bere ezin-bertzean, eta urrikiaren handiz, galdetzen zioten barkhamendu zeruari, lurrari, aingeruei eta bekhatu egiten ikusi zuten gauza guziei. Eta othoizten zituen etzitezela harren kontra athera eta altxa Jainkoaren tribunalean.

Hainbertze urrikizko nigar eta auhenen gatik, Jainko Jaunak aditzerat eman zion bazuela bere bekhatu guzien barkhamendua. Eta nola ordutik hasia baitzen, ezagutu nahiz zer gosta zitzaion Gure Salbatzaile Jaunari gure salbamendua, Jesus onak eman ziozkan amodiozko mixterio horren gainean ere hain argi handiak, non ikusi baitzuen, ezin hobeki, Jaun maite harrek zer pairatu zuen bertze bekhatoren gatik, eta berak ere zer pairarazi zion. Eta jakitate horrek eman zion halako urrikia bere bekhatuez, non haren bihotzak iduri baitzuen alderen-alde iragana zela ezpata batek.

Hargatik bazen Anselaren bihotzean bertze sentimendu bat batere ttikiagoa etzena. Anselaren bihotza bethe-bethea zen ezagutzaz eta ikusitatez Jainko Jaunaren alderat, zeren ematen zion penitentzia egiteko denbora. Eta hortakotz, barkhaturik berak ere bihotzaren zola-zolatik zerbeit nahigabe edo hoben egin zioten guziei, jarri zen osoki Jesus maitearen eskuko.

Erratean osoki Jesus Jaunaren eskuko jarri zela, menturaz aintzinegi gohazi. Ezen etzezazken hain errexki trenka estekatua zaukaten lokharri guziak, orduan oraino bizi zituelakotz ama, senharra eta haurrak. Hargatik, handik goiti, bere jende hek berak ere etzituen maite behar zen baino gehiago.

Haren amets bakharra zen Jesus Jaunari atsegín egitea. Eta, Jesus Jaunari atsegín egitea gatik, uzten zituen zokhoan ailamendu eder eta baliosak; besta eguna izanik ere, soineko histu eta higatu batzuekin zabilan; janean-ere hautatzen zuen gutienik zohakona; eta gero, hartuz Jainkoaren eskutik eta penitentziatzko izpirituz egun buru batetik bertze-gerthatzen diren atsegabeak eta lanak, egiten zituen zerukotzat irabazirik handienak.

Bizkitartean ezin gaudezke erran gabe orai aipatzen ditugun penitentzia eta sakrifizio horiek egin zituela luzez, geroan, halatsuko sakrifi-



zioak egitean, Jainko onak eman behar ziozkan barneko kontsolazionetarik batere gabe.

Hortaz orhoitzeko lukete, zenbeit aldiz, Jainkoa ganat berriki itzuli arima batzuk. Beren lehenbiziko su hartan egiten dute asko sakrifizio; badohazi ere aintzina, zenbeit egunez; bainan gero, Jainko Jaunak eztiotelakotz berehala erakutsi bere begitarte adoragarria, eskasten zaiote bihotza. Unhatuak direla beraz urrunago joaiteko, ematen dire begira zenbat bide egin duten, eta berek eztakitelarik nola, han diren beren ustez behin bethikotz utzia zuten bide zabalaren erdi-erdian.

Eztezagun holakorik egin. Bainan Jainko maiteak kontsolazionerik gabe utzi nahi bagaitu ere, gohazen gu aintzina lotsatu gabe.

Gogoeta on eta xede maite horietan zen Ansela saildua, hil zitzaizkonean, batzu bertzen ondotik, eta arte laburrik barnean, ama, senharra eta haurrak. Erran gabe doha, pikoa pikoaren gainera bezala izatu zituen ukhaldi horiek lazki kolpatu ziotela bihotza. Bainan ikusi zuen laster Jainko Jaunak berak hautsi ziozkala zeruko bidean kurritzetik gibela zezaketen traba guziak. Adoratu zuen beraz haren manu saildua, eta egin zuen garbitasunaren botua, ematen zelarik ordu berean Jesus maitearen eskuetan, ekharria harrek nahi zuen guziaren egitera.

Jesusek adiarazi zion, nahi zuela harren iduriko jar zadiela, haren Pasioneari ongi kontu eginez, eta haren Pasioneko urratsei jarraikiz, egin ziteken bezenbatean. Eta izan ahal zezan zeren ganean gogoeta egon, gure Salbatzaile Jaunak ezagutarazi ziozkan nolakoak izatu ziren haren pairamenak Pasioneko denboran.

Azken grazia hunek argi-argia ezarri zion Pasioneko mixterioa. Ikusi zuen orduan zer oinhaze eta laido handiak jasan zituen Nagusi maite harrek. Eta, hari begira, etzitzaio gehiago nigarra gelditzen ahal. Gabaz eta egunaz nigarrez zagon, begitarte noizik-behinka ur hotzez bustiz, ezin jasan zezakenean gehiago nigar hekien erredura samina.

Orduz geroz, ongi nahi izatu ziteken urrundu behin bethikotz eza-gutzen zuten guzien ikusmenetik. Bainan nola gaztegi baitzen oraino bidez-bide ibiltzako, sartu zen san Frantsesen heren-ordrean, eginik ongi bere buruarekin, jasanen zuela behar zen guzia, gosea, egarria, hotza eta beroa, eta behar bazen heriotzea ere bai, baina biziko eta hilen zela Jesus Jauna bezala, pobrezian eta apaltasunan.

Eta nola sakrifiziozko bide hortan behin hastea baita guzia, erromes bizitza eta aipatu ditugun penitentzien egitea deusik etzitzazkon Anselari. Eta maiz zaasan bere gogoarekin: «Nik, zer ez nezake eman eta egin izatea gatik nere odolaren Jesus Jaunarentzat ixurtzeko zoriona!!!

»Bainan ez, zion gero berriz, ni hain bekhatoros handiari, eztohakit martir hiltzeko ohorerik! Halaere, banitu bederen martiren tormentak eta oinhazeak! Oh! zer zoriona! bai, zer zoriona! lurreko oinhaze eta atsegabe guziak erortzen ahal balaizkit gainerat!«.

Bertze aldi batzuetan erraten zuen, jakin izatu balu ere, etzela harrentzat zerurik, eta kondenatua zela ifernurat, etzela hortakotz penitentzia egitetik geldituko.

Penitentzia egite horren gatik, eta bere bethiereko othoitzei eta nigarrei deus trabarik ez ezartzeko, gogo onez utzi zituzken jana, loa eta gainerako gorphutzaren artha guziak. Ordean bazakien, eztela nola-nahika haritzen ahal penitentzia egiten. Hortakotz uzten zituen bazterrerat osasuna galarazten ahal zioten penitentzia guziak, eta zuhurki zohan. Nahiz gero eta gehiago emendatuz joan zitzaion Jesusen amodioa.

Jesusen amodio hori gero eta handiago zohakola, huntarik ageri da: Azkenekotz ethorri zen pontua aski baitzuen gurutze baten aurkhitzea bere bidean, edo Jesusen pairamenean ezagutarazteko egina ziteken table-ro zenbeiten ikustea, burutik joana den baten pare bilhakatzeko. Orduan etzagoken Jesus Jaunari erakutsi gabe maite zuela eta urrikaltzen zitzaio-la. Eta hori, nor-nahi izan zadiela han gaindi. Hilene ere zuten bere bihotzeko su saildua erakustetik gibelatuko zuten baino lehen.

Jainkoak ematen ziozkan hainbertze grazia eta hain grazia handiak Ansela dohatsuari, nahi zuelakotz oraino ere hobeki hazkarrarazi eta finkarazi berthutean. Ezen gure arimen etsaia ethorri beharra zuen, lehena-gio Job sailduaren ganean izatu zuen eskubide guziarekin, eta Job sailduari bezein ongi, behar zion zer-nahi pairarazi bere gorphutzean eta bere ariman.

Hemen hobe dugu bera nola mintzo den entzutea. Dio beraz:

«Jainkoaren ganik ditudan argi eta jakitate handiek eztezadaten uste izanaraz naizen baino gehiago banaizela, jaidurarik ahalkegarrienean airean dadukate nere bihotza. Etabertzalde, eztakit zenbat ifernuko izpiritu gaixtoek baduten ni baithan nahi duten bothere guzia.

»Horra nola jendearen gainerat erortzen ahal diren gaitz guziek hartu nauten beren azpian; eritasunak jaten eta iharrarazten hari nau; ohean nago beraz, etzina eta oheari josia; bainan ohean izana gatik, ezta loik jausten nere begietarat; minez nago gabaz eta egunaz, eta bertzalde baditut hiltzera dohanaren tormentak, higitzen edo lekuz aldarazten nautenean.



»Eta oraino, ezpanu pairamenik nere gorphutz ez-deus huntan bai-
zik. Ordean horiek ez-bezalakoak dire, eta egiaz, ezin adiarazizkoak nere
ariman ikusten ditudanak.

»Nere ariman, jazarri behar natzaiote tentazionerik borthitzenei.
Han ditut, egundaino bezein bizi eta hazkar, aspaldion bakean uzten nin-
duten jaidura gaixto guziak. Eta behin bethikotz garhaituak nituela uste
nuen jaidura hekiekin batean, piztu eta agertu zaizkit, orai arte ezagutzen
ere ez nituenetarik nork-daki zenbat».

Azkenekotz emakume Jainkotiar hura haizerik nahasienak joa den
zuhain edo arbolaren pare zen, edo oraino lanho pean bidea galdu duen
jendearen pare. Etzakien norat joan, ez norat begira. Aintzinetik hain
maite berthutea, eta orduan etzitzaion iduritzen, ez-eta, ezagutu ere zuela
egundaino zer ziteken.

Denbora berean, harritia zagon nola menturatu ziteken gogoak
ematen ziozkan bekhatu batzuen egitera. Eta etzuen bekhatu hetarik,
bakhar bat-ere egin, ez-eta egin behar zuelakorik ere gogoan iragan.

«Gaizkirat ekharria izatea, gaizki harren egiteko heinean edo pon-
tuan izatea, hori nahigabe handia zen Anselarentzat. Bainan bertze tenta-
ziona guziek elkharrekin etzuten lotsarazten garbitasun sailduaren kon-
trako tentazionek bezenbat. Horra zergatik entzuten ziozkaten zenbeit
aldiz solhas hauk: Halako tentazione tzarretarik berriz iragan baino lehen,
nahiago nituzke jasan, munduaren akhabantzarraino, eritasun mota guziak
eta martiren tormenta guziak».

Horrelako guduka gaitzen erdian egotu ondoan bi urthez, izatu zuen
bakea, eta, bakearekin batean, Jainkoak eman ziozkan graziaz baliose-
nak. Ezen Ansela dohatsu berak erraten darokun bezala, tentazione handi
horien lehenbiziko ondorioa da arima garbien garbitzea hobeki, eta aldiz
bigarrena arima hekiei gero eta hobeki, ezagutaraztea beren ez-deustasu-
na, eta hala, arima hekien preparatzea Jainko Jaunak egin nahi diozkaten
grazia berrien hartzera.

Erran ditudan tentazione handien ondotik Jainkoak eman ziozkan
grazia bereziak. Eta, grazia hekiei esker, iskribatu ditu gauzarik ederrenak
Trinitate sailduaren gainean, Sakramendu sailduaren, Jesusen
Pasionearen eta Birjina sailduaren gainean.

Gero, Jesus Jaunaren bihotzaren berri hain ongi zakiena etzagokela-
kotz bere lagunei ere ahal zioten ongia egin gabe, bazabilan bertze lagun
saindu batzuekin eri-etxetan, edo ospitaletan, eta ematen zioten eriei
athez-athe ibiliz bildu zuena; eri hekiei oraino mintzo zitzaioten Jesus

Jaunaren pairamenez, eta erraten zioten, behar zutela hek ere maitatu
hainbertze maite gaituen Jainkoa.

Eri hetarat joatean erraten zioten zenbeit aldiz bere lagunei:
«Gohazen erietarat: nork daki, ian ez othe dugun Jesus maitea hekien
artean kausituko». Eta ezpazuen ere Jesus Jauna ikusten, bederen eri art-
hatze horrek ematen ziozkan kontsolazionerik gozoenak.

Behin, ezkabeak edo leprak hartua zen bati, garbitu ondoan bere
esku okhazta edo nakhaizgarriak, edan zuen esku hekien garbikina, hor-
tzen artean astiroki xehatuz, min tzar hetarik erori zen zakhar puska zik-
hin bat. Eta erran zuen etzuela egundaino edari gozoagorik jastatu.

Errexki sinetsiko dugu jendearen nahiez edo ez-nahiez hain axola
guti zadukanak, behar zuela hainitz grazia Jainkoaren ganik, eta sutan eta
garretan zitekela haren bihotza. Bai sutan zen Anselaren bihotza. Eta
erraten zioten bere lagunei, hek ere nahi bazuten saindu bilhakatu, behar
ziozkatela eginarazi beren gorphutzari ere egintza edo obra sailduak.
Huna bi hitzez haren irakaspena:

«Othoitz egin nahi denean, ezta aski izpirituari othoitz eginaraztea,
behar da othoitz egin oraino ahoz eta mihiz; othoitzean garelarik, xutik
balin bagare, behar dugu belhaunaz lurra ukhitu zenbeit aldiz, eta burua
ere apaldu». Ezartzen ahal litezke oraino, xede berera, besoak gurutze
zabal-zabala.

Ansela dohatsuak ematen zioten oraino irakaspau hau bere lagunei:
«Eztuela nihork ongi egiten ahal gogozko othoitz edo meditazionea,
ezpada trebatua kanpozko othoitz horietan; egia hori ezagutu aintzinetik,
gerthatu zitzaiola askotan gogozko othoitzaren hastea, eta gero bere
buruaren nonbeit aurkhitzea, edo zagola deusik egin gabe eta nagikerian,
edo oraino loak arthiki nahi zuela. Ordean ezagutuz geroz zertan huts
egiten zuen, ematen zela molde hobean eta gorphutzaren molde onak
bazaukala barneko bildura handiago batean, edo, airatzen bazitzaion ere
izpiritu, gorphutzaren othoitzak bere baitharitzen zuela laster».

Huna oraino bere lagunei ematen ziozkaten bertze irakaspau batzu:
erraten zioten, «Bere ez-deustasunaz ongi hartua etzenaren gogozko
othoitzak edo meditazioneak etzuela ondorio onik izaten ahal»; Eta gero
oraino erraten zioten: «Jesus Jaunaren pairameneu gainean gogoeta ego-
teari iratzikiak diren graziez baliatzeko, behar dugula ongi kontu eman
nor eta zer den Jesu-Kristo, eta gero berriz, gu nor eta zer garen, zein
garen ez-deusak, eta halarik ere zein bekhatoros ahalkegarriak».

Bere buruaz bezenbatean zion (eta egiazki ustekeria hortan zen),
etzela nihor hura bezein ez-deusik, etzela gauzarik ere hura bezein hon-



darkinik. Eta ongi botz edo kontent izanen zen utzia izatu balitz bazterrat deusetako on ezten gauza bat bezala.

Horrelako gogoeta sainduetan eta bethiereko oinhazetan eta erran ditugun lanetan bizi eta saindutu zen hainitz urthez. Zenbeit egun baizik etzuelarik gehiago lur huntan iragaiteko, erraten zuen oraino bizitasun saindu batekin: «O gizonaren ez-deustasun nihork uste duen baino ezdeusagoa! O baginaki ongi gure ez-deustasunaren berri, eta egoten ahal bagine bederen ixilik, Jainkoak ezarri gaituen bide ilhun eta apalean!».

Bere azken egunaren bezperan joan zitzaizkon bere min eta atsegabe guziak. Izpiritua ere jarri zitzaion laxo-laxoa, eta egundaino izatu etziten bezalako atseginek hartu zioten bihotza. Iduri zuen jadanik zeruko zorionaz gozatzen hasia zela. Eta hartan egun hura emanik, gauerd gainean, urtharrilaren laua zelarrik, eta mila bortz ehun eta hogoi eta zortzia, joan zen haren arima saindua Jesus Jaunaren ganat.

Irakaspena

Entzunez saindu hunek zer darokun erraten umilitatearen balioaren eta beharraren gainean, ikusiz zer gauza ez-deusarentzat zadukan bere burua bere bizitze sainduaren gatik-ere, eman dezagun kontu, ian badohakigun guri, behar-bada bekhatuz kargatuak gaitzekelarik zerbeit onik bagarelako ustekeria hortan egotea, eta horrekin aintzina joaitea.

Egin dezagun hobeki: galde dezagun Jesus Jaunari saindu hunen bitartekotasunaz, lagun gaitzala gure ezdeustasunaren ezagutzen; eta hortakotz, egin dezagun, ahal badugu, meditazio pixka bat egun guziz, edo bederen gogoeta on zenbeit, has ahal gaitezen, gu ere, gure bekhatuen deithoratzen eta bekhatu hekientzat zerbeit penitentziaren egiten.

Urtharrilaren 5ean SAN SIMEON PILARREKOA

Hila 459an

Simeon Pilarrekoa sortu zen Ziriako herri batean, aita eta ama giritino batzuetarik. Aita artzaina zuen, eta bera ere ibili zen lehenbizian azienden ondotik.

Hamahiru urthe zituelarik, entzun zituen elizan Ebanjelioko hitz hauk: *Dohatsu nigarrez dagozinak, dohatsu bihotzez garbi direnak, zeren ikusiko baitute Jainkoa*. Elizatik atheratu zenean, galdetu zuen gizon adinetako bati, zer egin behar zuen hitz hekien arabera bizitzeko. Eta jakinik behar zela penitentzia egin, eta hortakotz, mundutik athera, utzi zituen etxea eta etxeokak, eta joan zen eremu edo desertu baterat.

Desertu hartan, bizi izatu zen zazpi egunez, deusik jan ez edan gabe. Eta ezaguturik bazela komentu bat, handik hurbil, joan zitzaion hango aintzindariari galdetzera, othoi har zezala hura ere fraidetzat.

Abadeak ikusi zuen laster haur hura Jainkoaren izpiritua hartua zela, eta hortakotz ideki zion athea.

Komentuko bertze fraidek ere ezagutu zuten, denbora laburrik barnean, saindu handi baten gaia zela; halako suarekin lotu zelakotz penitentzia egiteari, eta berthute guzien pratika sainduari.

Behin fraideak ohartu ziren gorphutz guzia funditua zuela zorne edo materia zikhin bat zariola. Eta jakin zuten, aspaldiko egun hetan jauntzia zadukala, edo hobeki erratera, josia bere gorphutzari, itze zorrotzez dena bethea zen espartuzko athorra bat.

Komentu guzia harritu zen, nola jende biziak jasan zetzazken hainbertzekoak, oinhazetik batere bazuela ere iduriarazi gabe.

Hortakotz, nahiz bazuen jadanik hamar urthe fraide-etxe hartan zela, Aita Abadeak othoiztu zuen zohala bertze norapeit; gai zela, bere penitentzia heiekin, batzuen lotsarazteko, eta buruaren beroarazteko sobra bertze batzuei.

Manu horrek etzuen trixtarazi Simeon gaztea. Bainan Jainkoari berrari galdeturik zer behar zuen egin, joan zen mendi zokho baterat.

Han moldatu zuen nolazpeit etxola txar bat; eta eman zen osoki penitentzia egiteari. Lehen-lehenik utzi zituen bazterrat jateko eta edateko guziak, behar zuela egin Jesus Jaunak bezalako garizuma bat.



Heldu ere izatu zen bururaino, bainan hala ahuldua eta trenkatua, non ezpaitzagoken ez xutik, ez jarririk.

Bizkitartean, apez batek ekharri zion komunione saildua Bazko egunean; eta komunioneak eman ziozkan bet-betan, edo kolpe-kolpez, barur egiten hasi aintzinetik zituen indar guziak.

Erran nahi baita, Jainkoak egin zuela mirakuilu bat, adiarazteko bere haur maiteari, onesten zituela haren penitentziak. Eta Simeon eman zen penitentzia egiteari egundaino baino khar gehiagorekin.

Horrela iragan zituen hiru urthe bere mendi zokhoan, igan zen mendiaren gainerat.

Mendi gain hartan, eginarazirik asentu edo murru bat inguru-inguru eta batere teilaturik gabe, sartu zen harren barnerat.

Egina zuen bere baithan, behar zela egon mendi kasko hartan, paratua iruzkiari, haize hotzari eta nekhaitez, edo denbora gaixtoei.

Eta etzadien nihoiz handik athera, ez-eta tentazioneak nola-nahiko izaturik ere, eman zen estekan zangotik harroka bati burdin gathe edo khadena batez.

Inguru hetako jendeak ohartuak ziren Simeonen berthute handiaz; eta nahiz urrundu zitzaioten, halarik ere joaiten zitzaizkon ikustera.

Antiokheko apezpikuak berak ere ikusi eta mintzatu nahi izatu zuen, jakiteko ian egiak othe ziren saildu hartaz erraten ziozkatena.

Apezpiku hura ere harritu zen nola bizi ziteken jendea halako penitentzen erdian. Hargatik erran zion: «Adimendurik gabe diren kreaturen-tzat zirela sokak eta gatheak, bainan harrek, aski zuela Jainkoaren Izpiritua harroka harren gainean egoteko handik jautsi gabe».

Simeonek ezagutu zuen arrazoin zuela apezpikuak, eta hautsarazi zuen bere burdinazko gathea.

Eta halarik ere han berean egotu zen, nahiz bazuen egun guziz penitentzia bat hainitz pairarazten ziona: bethi eta bethi jendez inguratua izatea.

Egia da bazuela bere egoitza tikiaren inguruan harresi bat, eta etzela emakumerik sartzen harrasi harren barnerat, bainan gizonak han zituen kasik bere gainean; gizonak behar zuten ukhitu, eta, bere azienda-larruzko arropatik, behar zioten kendu pixka zerbeit.

Unhatu zen beraz noizpeit jenden artean izateaz; eta asmatu zuen egoitza bat egundaino nihork izatu etzuen bezalako.

Eginarazi zuen pilar bat, lehenik bederatzpiakoa. Gero, oraino ere jendeak hurbilegi zitzaizkolakotz, handiarazi zuen bere pilar hura, bi-hiru alditaraino.

Hirugarren aldikotz gorarazi zuenean, ezarri zioten berrogoi-ta hamalau pietan. Eta orduan igan zen bere bizi guzikotzat, batere gerizarik ez arherberik gabe zen punta hartarat. Eta handik aintzina han zagon, izan zadiela uri ala atheri, uda ala negu, gau eta egun; batean iruzkiak errea, bertzean hotzez ikharetan, eta zenbeit aldiz nekhaizak funditua. Eta han zagon nihoiz jarri ez belhaunikatu gabe, edo xut-xuta, edo osoki ukhurtua.

Egun guziz ekhartzen zioten komunione saildua. Eta hura zen haren janhari bakharra. Ezen etzuen jaten berrogoi egunetarik berrogoi egunetara baizik.

Haren izpiritua osoki bethea zagon bethi Jainko Jaunaz, eta Jainkozko gauzez. Bizkitartean ematen zen egun guziz, ilhun nabarrean, barneko bildura handiago batean: eta othoitzik khartsuenetan zaraman handik hasirik-eta, biharamun eguerdirainoko denbora, besoak zabalzabala, batere erortzerat utzi gabe, eta begiak ere zerurat altxatuak.

Gure bihotz nagiek zer erraten othe dute horrelako bizitzeaz?

Alde hetako Fraide-Aintzindari batzuk ere, ezin sinetsiz Jainkoaren izpiritua harrarazi ziola bide bat hain borthitza, bidali edo igorri ziozkatena mandatariak erratera jauts zadiela pilar hartarik, eta etzezala egin bertzek ez bezalako penitentziarik.

Hargatik mandatariet errana izatu zitzaioten, utz zezatela han berean, hekien manua ongi hartua balin bazen.

Mandatariet erran zioten beraz Simeoni, bere aintzindariet manatzen ziotela pilar hartarik jaustea, eta eman zadiela bertzeak bezalako bizitze batean.

Eta Simeon saildua abiatu zen, ordu berean, manu harren arabera egitera.

Ordean mandatariet etzuten utzi zolaraino ethortzera, eta erran zioten berriz ere: «Orai badakigu Jainkoaren Izpiritua zurekin dela, zaude zure pilarraren gainean, eta hemendik aintzina ere jarraik zaite Jainkoaren graziari».

Bertze aldi batez, nonbeitik ethorririkako fraide bat egotu zitzaion begira luzez saildu gogoetarazgarri hari; etzezakelakotz sinhets, jendea bizi zitekela hura bezala. Eta azkenean egin zion galde hau: «Simeon, erraguzu etzarella aingeru, bainan bai gizon».

Eta Simeon sailduak ihardetsi zion: «Haurride maitea, zato, igan zaite hunaraino; behar duzu ikusi zer naizen». Eta gainera zenean, fraideak ikusi zuen oraino are gehiago harritu zuena: bere ixterrean edo azpian bazuela zauri bat ikharagarria eta dena harrez bethea.



Erran gabe doha sailduak etzuela deusik egiten zauri harren sendarazteko. Ezen maite zituen zauri hura eta har hek, mundutarrek perlarik baliosenak baino gehiago.

Eta ohartzen balin bazen har hetarik zenbeit erori zitzaiola, berriz ere ezartzen zuen bere zaurian, erraten ziolarik: «Jan zazu Jainkoak eman darotzun janharria».

Erran dut gau guzia, eta goiz guzia ere bai, othoitzean zaramazkala; arratsaldetan aldiz, bazuen bertze lanik. Ezen nola gau eta egun, jende oste handi batez inguratua baitzagon, hekiei guziei predikatzen zioten arratsaldetan. Eta Jainkoak berak daki zenbat mila bekhatorsei adiarazi zioten zer zorigaitz ikharagarria den bekhatu mortalean bizitzea.

Bertzalde, bere prediku hekien sarrarazteko hobeki aditzaileen bihotzetan, egiten zituen egun guziz mirakuilurik handienak.

Behin jende-alde baten aintzindaria ethorri zitzaion, othoi urrikal zakiola paralesian erori zitzaion soldadu gazte bat.

Sainduak erran zion ekhar zezola gizon gazte hura, eta gero, galde-tu zion erieri berari, ian sinesten zuen Jainkoa baithan badirela hiru Presuna, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua?

«—Bai, Aita, ihardetsi zion eriak, sinesten dut».

Eta berriz ere san Simeonek erran zion:

«—Egia hori sinesten baduzu, manatzen darotzut Aitaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean, altxa zaitez, har dezazun bizkarrean zure aintzindaria eta ereman zuen oihalezko egoitzetarat».

Eta paralesiatua zenak egin zuen manatua zitzaion bezala; ezen sendatua zen osoki.

Inguru hetako gizon batek ere egin zuen behin botua, etzuela gehiagor haragirik janen; hark ere behar zuela egin penitentzia pixka bat, Simeon sailduak hainbertze egiten zuenaz geroz.

Bainan egun batez, atxeman zuen hegastin bat, eta konturik egin gabe bere botuaz eta kontzientziaren oijuez, prestatu zuen eta erre bere ihizia. Jatera ere zaraman, ohartu zenean haren haragia harria bezein gogor zela.

Dena ahalkatua eta osoki urrikitan bere bekhatuaz, joan zitzaion Sainduari erratera zer egin zuen.

Eta hari esker, ardietsi zuen bere gormandizaren barkhamendua.

Egun guziz egiten zituen mirakuilu berriak, eta etzuen uzten egunik iragaitera erran gabe etxerat zohazinei, nahi zituzten graziak ardietsirik: «Norbeitik galdetzen badautzue, nork sendatu zaituzten, erranen duzue Jainkoak sendatu zaituztela. Eta ez aipa Simeon bekhatorosaren izenik».

Azkenean, lureko jaunik handienak eta apezpikuak berak ere ikustera ethortzen zitzaizkon saildua, Simeon mundu guzian aipatua eta ezagutua zena, ukhurtu zen oraino aldi bat, bere othoitzaren egiteko, eta etzen gehiago xutitu. Ezen haren arima saildua hegaldatu zen Jainkoaren ganat; eta joan zen bizitze bat hain garratzari zohakon zorionaz gozatzerat.

Hil zenean, ereman zuten haren gorputza Antiokheko hirirat. Eta haren hobiaren gainean ere, egiten ohi ziren mirakuilu handiak.

Hortakotz, Leon enperadoreak nahi izatu zuen hartu Konstantinopoleko hirirat. Bainan Antiokheko jende gaztiatu zioten, hekien hiriak etzuela bere inguruan harresirik, eta horren gatik, zadukate-la san Simeonen gorputza hiriaren erdian, beira zaitzan beren etsai guzietarik.

Enperadoreak onetsi zuen arrazoin hori, eta aintzina ere san Simeonen erlankiek izatu zituzten Antiokheko hirian ohorerik handienak.

Irakaspena

Egia da Jainkoak eztaokula galdetzen saildu hunen urratsei jarraitzea. Bainan ezta gutiago egia, ezkarela zeruan sartzen ahal, non ezkarrean sailduki bizi.

San Simeonen bizitzeaz orhoituz, bederen utz detzagun hartu gabe hainbertze jan-edan, pausaldi eta aisia behargabeko, eta har detzagun gogo onez eta penitentziatzko izpirituz, ethorriko zaizkun atsegabe eta unhadura guziak.

Ezen alfer da uste izatea Jesus Jaunaren zorionera helduko garela, ez balin badugu, lur huntan gareino, edan nahi haren kalitetik, eta ezpaigazko jarraiki nahi, gure gurutzeta bizkarrean Galbarioraino.

Eta horra zer grazia behar diogun galdetu Jainkoari, san Simeonez arartekotasunaz: penitentziatzko izpiritua.



Urtharilaren 5ean
SAN JERLAK,
BEKHATOROS URRIKITUA

Hila 1170an

Belsikaren eta Holandaren artean da Linboureko probeintzia. Jerlak sortu zen probeintzia hartako jauregi batean. Ezen hango aitoren-semetarik bat zen Jerlaken aita.

Gaztetasunean etzituen baliarazi behar-bezala Jainkoaren graziak. Hortakotz eman zen lazakeriari; eta berantxago, sartu soldadu, ohoinkeriatik eta gaixtakeriatik bizi zen jaun baten armadetan.

Soldadukoa hartan errexki atzeman zituen bere iduriko lagunak, eta heiekin batean, are apalago jautsi zen bere bide tzarrean. Eta handik goiti etzuen gehiago nihork igurikitzen harren ganik tzarkeriarik eta tzarkeriarik baizen.

Hain da nekhe, hain da bakhan gerthatzen den gauza, gero ondoan Jainkoaren ganat bihotz osoz itzultzea, egotu balin bada, gazte denboran, bekhatuan lakhetua.

Hargatik Gure Jainko maiteak bazuen bertzelako biderik soldadu galdu harrentzat.

Denbora hetan aitoren semeak kasik bethi gerlan hari ziren. Eta ezpala bazuten gerla egiazkorik, elkharretaratzen ziren oraino, noizik-behinka, plaza batzuetan, beren zaldirik ederrenen gainean, gudukako harma guziekin eta begitarreak gordeak. Eta gero, mundu bat bazelarik bildua hekien ikusteko, hari ziren, alegia zin zinez eta eginahala egin, batzu bertzeekin gerla-orde batean.

Behin beraz, orai ezagutarazi behar dugun soldadua, ordukotz ezkondua eta kapitein iragana, halako besta hetarik batean zen, ametsik ederrenek burua harrotua, bertzenak ez-bezalakoak zirela haren jakitatea eta indarrak, eta izanen zuela ohore eta laudorio franko egun maite hartan.

Jadanik plazan zen, bere zaldi ederraren gainean; eta, unhatua zaldi hura ezin atxikiz, gudukan hasteko seinalearen begira zagon, noiz eta ere ethorri baitzitzaion herresekan bere etxeko muthil bat, erratera, andrea hil zitzaiola.

Ihurtzuria alde-aldean erori litzaiokena bezein lastua eta zorotua, Jerlak ere eman zen gogoeta, Jainko Jaunak berak ematen zion gaztigu bat

zela hiltze hura; eta zer othe zion galdetzen azote ukhaldi ikharagarri harren bidez.

Eta ordu berean, jausten zelarik zalditik, arthiki zituen lurrerat bee gudukako jaunztura eta harma distirantak, zin egin zuen goratik, akhabo zirela harrentzat lureko jostetak eta irriak, eta, han zen jende guzia harritua uzten zuelarik, joan zen etxerat asto txar baten gainean.

Antolatu zituenean bere egitekoak, ezarririk soinean zurdazko larru-arraseko bat, eta errainetan burdinazko gerriko bat dena zorra zorrotzez bethea, athera zen etxetik orthuts, eta abiatu zen elizaz-eliza, bere Jainkoaren amodioak zaraman toki sailduei buruz.

Noizpeit heldu zen Erromarat. Eta heldu bezein laster egin zion bere bekhatu guzien kobesioa Aita Sainduari berari urrikizko sentimendurik handienekin.

Aita Saindua bera ere ukhitua izatu zen haren nigarrez eta hasperenez, eta bereziki egin zion galde huntaz, eman zezola penitentziatzen lanik apalenean eta umiliagarrienean haritzea bere bizi guzia.

Hortakotz, manatua izatu zitzaion ospitale batean eri arthatzen hari-zea zazpi urthez.

Bainan ospitaleko aintzindariak etzioten uzten egitera barne-nahagarri diren lanetarik deusere, ezen laster ikusi zuten, bere larru-arte leu-netik beretik, gizon hura etzela edo-zein jende. Bizkitartean etzuten holarik eginen ezagutu balituzte Jerlaken sentimenduak.

Jerlakek, ahal izan-eta, berak eginen zituen hango lan eta garbiketa guzi-guziak.

Ordean bazuen bere izpirituan gogoeta bat, handik ken etzezakena: Hura bezalako bekhatos bati, etzohakola ongi Jesusen haurride berezietzen arthatzea.

Othoiztu zuen beraz Aita Saindua, eman zezola bere penitentzia haren orde bertze zerbeit apalagorik eta umiliagarriagorik. Eta Aita Sainduak eman zion bere nahiaren araberako lana, azienda beltz batzuen zain egotea zazpi urthez.

Bere azienda beltz hekien ondolik zabilalarik, gerthatu zitzaion zangoan hartzea ukhaldi bat hainitz pairarazi behar ziona bere bizi guzian.

Bainan orhoituz, lehenago haurrean, zango hartaz beraz jo zuela bere ama, eskerrak ematen ziozkan Jainkoari, zeren jasanarazten zion zor zuen penitentzia, harren damuztatzeko altxatu zuen zango hartan berean.

Bethe zituenean bere penitentzien denborak, joan zitzaion oraino ere Aita Sainduari, galdetzera zer behar zuen egin handik goiti. Eta nola ezpaitzaitzaion iduritzen oraino ardietsia izaten ahal zuela bere zorren



barkhamendua, Aita Sainduak onetsi zion bizitzea lagunik gabe eta bakar-bakharra, errexkiago egin ahal zetzan gogoak ematen ziozkan penitentziak. Hortakotz, joan zen bere sorherrirat, han biziko zela ermitau bezala.

Etzen hargatik bere etxean sartu; ordean, saldurik bere ontasun guziak, eman zuen dirua erromesei.

Gero barne-hustua zen haritz zahar baten zola bethe zuen harri xehez, harri hek estali zituen lasto pixka batez, eta eman zen haritzaren barnean.

Ohetzat beraz, harri meta hura zuen; janharitzat, garagarrezko ogi pixka bat, dena ere hautsez zikhintzen zuena, eta edaritzat ur hutsa.

Haren soinekoak ere etziren hobeak. Uda ala negu, jauntzia zagon bethi, fraide arropa zuhail batez. eta arropa harren azpian bazakharzkan, nihoiz kendu gabe, larru-arraseko zurdazkoa eta gerriko punta zorrotzez bethea.

Eta gero, huna nola bizi zen:

Lehen-lehenik eguna othoitzean edo Jainkozko lanetan zaraman; eta gabaren parte on bat ere hari zen hala-hala. Hargatik ematen zion bere gorphutzari pausa pixka bat. Gero bethi atzarria gauerditik berehala, bazohan, oilarrak kantuz hasi zirenean, oren bat bidetan Maestrixeko hirira, san Jərbasioren komentuko fraidek erraten zituzten ofizioetarat.

Ofizioak ziraueino Jerlak ere othoitzean hari zen. Eta gero, ofizioak erran-eta, fraideak atheratu zirenean edo pausatzerat, edo bertze zerbeit lanetarat, Saindua han berean zagon othoitzik khartsuenetan, edo Jesus Jaunarekin solhasik maitenetan. Goiz aldera hasirik, bazituen mezak laguntzeko, edo bederen entzuteko, eta horrela iragan ondoan kasik goiz guzia, bazohan bere haritz-zilhorat.

Jendea behar zen mintzatu nahi-ta-ez hain bizitze garratza zaraman gizonaz. «Jerlak saindu bat da», zioten batzuek: «Ez, bainan alfer-gezurti bat da», zaasaten bertze batzuk.

Ondo hetako fraide batzu ere mintzo ziren, eta ondikotz saindua galdu nahiz; haren bizitzeak kondenatzen zuelakotz goraki hekien lazakeria.

Orai aipatzen ditugun fraidek helarazi zioten Jaun Apezpikuari ere berria Jerlak ermitaua nihork uste etzuen bezalako gizona zela.

Eta apezpiku harrek, sinetsi bazuen eta ezpazuen bidali zioten mezua, berak bere begiz ikusi nahi izatu zituen Jerlak eta haren haritza.

Erran zioten haritzaren zolan gordetzen zituela ematen ziozkaten amoina handiak, han zaukala ere gordea etxea saldutz egin zuen dirua, Jaun Apezpikuak egoitarazi edo pikarazi zuen haritza ondo-ondotik. Eta

erori zenean, han baitzen harat bildua jendeketa handia, jende hek guziek ikusi zuten, ez dirurik ez, baina harri meta bat, eta penitentzia egiteko diren bertze asko gauza.

Ordu arteraino ere jenden ustekeria zen Jerlak Jainkoaren zerbitzari leial bat zela; bainan, egun hartan, agertu zen oraino hobeki haren saindutasuna. Eta nola Jaun Apezpikuak eman baitzuen manua, egin zetzotela haritzaren orde etxola bat eta kapera ttiki bat, eta haritzaren barneko zabor hek, ezar zetzatela asentuan, han ziren jende hek berek egin zioten gogo onez lan hori.

Horra nola, gaixtagin batzuen gatik, Jerlaken saindutasuna izatu zen aree hobeki ezagutua.

Bertzalde Jainko Jaunak egin zituen mirakuilu batzu, aditzerat emateko Jerlaki berari, onetsiak zirela haren nigarrak eta auhenak, eta, guri ere bai, nolako kontua dadukan gure hautura eta nahitara egiten ditugun penitentziez.

Huna bia:

Apez bat ethortzen zitzaion noizik-behinka mezaren ematera. Eta harrek ekhartzen zion behar zuen ura.

Bada Pasioneko igande batez apez hura ohartu zen, Sainduaren etxolara zenean, uraren orde arnoa zuela bere untzian. Eginez bere bait-han unti bat hartu nahi, eta bertze bati lotu zela, itzuli zen gibelat ur keta.

Eta bigarren aldian ikusi zuen aree gehiago miretsi zuena, orduan ere etzuela bere untzian arnorik baizen. Harritua eta etzakielarik zer asma, joan zen bigarren aldi hartan ithurrira, han bederen etzuela arnorik izanen. Bainan orduan ere Jainkoak egin zuen mirakuilu bera; eta apeza eta Jerlak biak eman ziren belhauniko Jainkoari eskerren emateko.

Eta, bere bethiereko uraren orde, Sainduak hartu zuen egun hartan Jainko Jaunak ematen zion arnotik.

Huna oraino nola Jesus Jauna heldu zitzaion san Jerlaki, bere biziko behar-ordurik handienean.

Bazuelarik ordukotz urthe multzo on bat bizi zela erran dugun bizitzez, eritu zen. Lehenbizian etzitzaion iduritzen haren minak merezi zuela arthatua izatea ere. Ezen etziteken erran eritasunak bazuela lanjerik, eta bertzalde oraino franko gazte zen.

Bainan nola bere penitentzia garratzek kendu baitziozkaten bere indar guziak, betbetan ohartu zen hainitz gaizki zela, eta hatsa bazohakola.

Lotsatua beraz eta trixtatua, ez mundutik joaiteaz, bainan zeren agertu behar zuen Jainkoaren aintzinean Biatiko Saindua gabe, zion bere baitan: «Egia da baduela hogoi urthe Jainkoaren nahiaren arabera bizi



beharrez nabilala; bainan hala ere, nola ager naiteke Juje justoarene aintzinean, ez balin badut nerekin nere Jesus maitea. Bizkitartean bizia badohakit eta, oi Jaun zerukoa, eztut nork ekhar Biatiko Saindua!».

Ordean Jainko Jauna bera heldu zitzaion bere zerbitzari maiteari ezinbertze handi hartan. Erran tugun hitz hauk athera zireneko haren ahotik, agertu zitzaion begitarterik eztieta zuen apez bat, ziboara eta Ostia Saindua eskuetan, eta egin zuen komunioa.

Etzuen bertze gutiziarik; bere baithan zuen Jesus maitea, eta harrekin batean joan zen zerurat, bere merezimendu handiez irabazia zuen zorionaz gozatzeraz.

Irakaspena

Gure arimen etsaiak, jende gazte batzuen galarazteko, egiten duena da hekiei gogoaren ongi bethetzea gauza huntaz, Jainkoa ona dela, ona dela erran diteken baino gehiago, eta bethi barkhatzerat ekharria.

Gero aldiz, bekhatu eginarazi balin badiote, eta hainitz eginarazi balin badiote, orduan egiten du egin-ahala, hekiein lotsarazteko eta etsimendutan erorarazteko.

Erranen diote beraz, berantegi dela bide onerat itzultzeko, eta Jainkoaren maitatzen hasteko.

Bainan zuk, irakurtzailea, eroria bazare, ikasazu saindu hunen eskolan altxa zaitezkeela, eta lezearen zolaraino jautsia bazine ere, athera zaitezkeela.

Jesus Jaunak hedatzen darotzu eskua. Lot zakizko bihotz onez, eta denborarik galdu gabe, eta zu ere joanen zare zerurat.

Urtharrilaren 9an SAN JULIEN ETA SANTA BAZILIZA

Martir hilak 313an

San Julien sortu zen Antiokheko hirian, buraso aberats eta Jainkoaren beldurrean bizi ziren batzuen ganik. Buraso hek bethe zituzten beraz haurraren alderat zituzten eginbideak, haur hura altxatu zuten Jainkoaren amodioan.

Jainkoak ere egin zion amodiozko begiratze bat haurrari buraso saindu hekiein gatik. Eta horrela, haurrak ereman zituen, diteken saindukiena, haurtasuneko eta gaztetasuneko urtheak.

Hemezortzi urthetarat heldu zenean, aita erran zion behar zuela hartu laguntzat aipatzen zion andre gaztea, Baziliza zeritzana.

Julien harritu zen solhas horren entzuteaz. Egotu zen ere luzez ixilixila, etzakielakotz zer behar zuen ihardetsi. Ezen alde batetik Jainko Jaunari emana gorphutz eta arima, birjinitatearen botuaren bidez, gogoak etzion onesten botu harren haustea burasoei atsegin egitea gatik; eta halarik ere etzuen aski bihotz errateko bere aitari etzezakela egin harrek errantzen ziona.

Ixilik egotu zenean beraz eta othoitzean oldar edo bulta on bat, ihardetsi zion aitari: «Zuk eta nere amak, biek, eztuzuenaz geroz bilhatzen nere zoriona baizik, indazue zortzi egunen ephea; eta, orduan jakinen duzue nere gogoaren berri».

Burasoek onetsi zioten galde hori, eta Julien eman zen othoitzean, eskatzen ziolarik Jesus jaunari, adiaraz zezola zer behar zuen egin.

Zazpigarren egunean Jesus Jaunak erran zion egiten ahal zuela burasoen nahiaren arabera; Bazilizarekin ezkondurik ere, atxikiko zituela bere xede sainduak batera makhurrik gabe.

Egin zen beraz ezkontza. Eta lehen gabean berean, doi-doia gelarat helduak, Julien eta Baziliza, biak othoitza hasterat zohazin, Bazilizak usnatu edo senditu zuenean usain ezti eta gozo bat, arrosek, julufreek eta bertze lore batzuk eman dezaketen bezalakoa.

Harritua, galdetu zion bere jaunari, nondik zen, neguaren erdian, usainbat hain ona.

«Usain hori, erran zion Juliene, garbitasun sainduaren usaina da. Jainkoak nahi daroku ezagutarazi, mirakuilu baten bidez, nolakoa diteken zeruan berthute eder hau maite izatu duketenen zoriona».



Bazilizak aditu zuen errexki zer zion Jesus Jaunak galdetzen. Eta egin zuen ordu berean birjinitatearen botua.

Hainbertzenarekin agertu zitzaizkoten bi saindu aralde, argidura eder baten erdian. Batzuk Jesus Jauna bera zuten aintzindarizat, eta bertzek Andre-dena Maria. Batzu eta bertze kantuz hari ziren; bainan batzu bertzen ondotik.

Jesus Jaunarekin ziren sainduak zioten: «Julien, baduzu bitoria, baduzu bitoria!». Eta Andre-dena Mariarekin zirenek erraten zuten: «Benedizione guziak zuri, oi Baziliza, zeren jarraiki zaren zure Jaunaren kontseluei, eta zeren, utziz bazterrerat lurreko atsegin ez-deusak, merezitu duzun eternitateko bizia!».

Kantu xoragarri hek ixildu zirenean, bi izpiritu zerutiar agertu zitzaizkoten, korona eder batzu eskuan, eta erran zioten: «Altxa zaitezte, baduzue garhaia. Zatozte, huna zuen korona ederrak». Bertze izpiritu dohatsu batek ere ekharri zion Julieni dena urrezko hitzez iskribatua zen liburu bat. Eta irakurrarazi zion nolako sariak dituzten zeruan birjinitate saindua beiratzten dutenek.

Azkenean suntsitu ziren izpiritu zerutiar guziak. Eta bi saindu gazteak, Jainkoaren amodio berri batez sustatuak, hasi ziren berthutearen praktikatzen diteken hobekiena, eta nihori deusik iduriarazi gabe.

Bazuelarik jadaneko denbora pixka bat elkharrekin bizi zirela, bi haurride saindu bezala, beren burasoak hil zitzaizkoten bie. Eta orduan buraso hekien onthasunen eta beren buruen jabe bilhakatu ziren.

Eta huna, zer egin zuten: beren onthasun handi hek guziak eman erromesei, atxikiz bakharrrik pixka bat Bazilizaren biziarazteko; eta gero, behar zutela penitentzian ereman beren bizia, urrundu elkharretarik behin bethikotz.

Elkharretarik urruntzean etzuten bertzerik gogoan baizik ere Jainkoaren zerbitzatzea, bakhartasunean eta lagunik batere gabe. Bainan denbora laburrik barnean, birjina keta handia bildu zen Bazilizaren ingurura; eta hainitz gizonek ere othoiztu zuten Julien saindua, erakuts zezotela zerurako bidea. Eta horrela, hari ziren biak, ezin ederkiago, Jainkoaren ezagutarazten eta maitarazten, Marzien enperadoreak berritu zuenean giristinoen galarazteko lehenago ekharria izatu zen legea.

Banatu zenean berria, nola gorriaraztera zaramazkaten hibaiak giristinoen odolez, san Julienek eta santa Bazilizak othoiztu zuten Jainko Jauna, edo eman zezola bakea Elizari, edo bederen hazkar zetzala, bere grazia sainduaz, gomendatu ziozkaten arimak.

Jainkoak adiarazi zioten etzela ethorria oraino Elizarentzat bakean izateko denbora; etzela hergatik hekien meneko ziren fraide edo seroretarik nihor-ere galduko. Jakin zuten ere Julien eta haren lagunak martir hil beharrak zirela, eta aldiz Baziliza eta haren serora lagunak bakean hilen zirela beren komentuan berean. Eta hala gerthatu zen.

Santa Bazilizaren lagunak beraz eritu ziren batzu bertzen ondotik, eta denak hil zenbeit egunik barnean. Baziliza saindua ere hil zen bertze guzien ondotik, Jesus Jaunaren amodioaz dena sutan; eta haren arima ederra hegaldatu zen bere Espos maitearen besoetarat.

Bertzelako gudukak eta heriotzea zagozin Julienentzat eta haren lagunentzat.

Antiokheko hirirat igorria izatu zen gobernadoreak, Marzien zuen izena. Gizon hark, jakinik Julien saindua hainitz giristinoren nagusia zela, ekharrarazi zuen bere aintzinerara, eta erran zion harrek eta harrekilakoek behar zituztela adoratu enperadore jaunen jainkoak.

Julienek ihardetsi zion: «Eztugu holakorik eginen, ez nik, ez nere azpiko denetarik nihork».

Solhas horrek jauzarazi zuen gobernadorea bere gontzetarik. Igorri zuen beraz Julien presondegirat. Eta manatu zioten soldadu batzuei, zohazila haren komentuari su ematera; eta erre zetzatela bizirik fraide guziak, non-eta etzuten hitzematen hekien jainkoen adoraztea.

Bai, sutan ezarri zuten komentua, ordean fraide hetarik nihork etzuen arbiuatu bere fedea. Denak itho eta erre ziren beren komentuaren barnean.

Eta badire liburuak erraten darokutenak, gero ondoan, inguru hetarik iragaiten zirenek entzuten zituztela toki hartan zerutikako kantika xoragarri batzu.

Gobernadoreak etzuen luzez ahantzi Julien saindua bere presondegian. Ekharrazirik bigarren aldian tribunalera, eta ikusirik ohiko hitzetan zela, fundiarazten hari zuen azote eta makhila ukhaldika, noiz-eta-ere burrego batek lehertu zion begia, uste gabetarik, gobernadorearen adiskide bati.

Burrego eta ikustiar, denak begira zagozilarik harrituak beren lanari, sainduak erran zioten ezti-eztia, eta berari minik batere egin ezpaliote bezala: «Zer egin dezakezue orai, zareten guziek, zuen jainko faltsuekin, gizon horren sendatzeko? Ezen zuen jainkoek badituzte begiak eta eztute ikusten, beharriak ere bai, eta eztute entzuten.

»Errazue, nahi duzue nik senda dezautzuedan?».



Solhas horien gatik ere, pagano apezek egin zituzten beren egin-ahal guziak eri harren sendarazteko. Baina alferretan.

Etsitzen zutela erran zutenean, Julienek egin zuen gurutzearen seinalea, eta eria sendo zen. Eta gehiago dena, Jainkoaren graziak argitua betbetan, oihu egin zuen, etzela Juliene Jainkoaz kanpo bertze jainkorik.

Ordean gobernadoreak etzezaken utz horrelako solhasa ongi gaztiguatu gabe. Galdetu zion beraz, ian zin-zinez mintzo zen. Eta baietz erran zionean, han berean hilarazi zuen; eta, bere odolean bathaiatua, joan zen sekulako zorion ezin erran bezalakoaz gozatsera.

Marzienek ere ederki eginen zuen Jainkoaren grazia hartaz baliatu eta konbertitu balitz. Baina etzen hartan. Abiarazi zuen Julien saindua karriz-karriz, xehakaraziz, azote eta makhila ukhaldika, karrizak gurutzatzen ziren toki guzietan.

Giristino baten hola funditzea josteta bat zitzaizoten paganoei eta bereziki haurrei. Bazen beraz hainitz jende harren ondotik zabilanik.

Bertzeak-bertze, gobernadorearen seme baxharrak, Zelze ttikia ere han zen bere hineko lagunaren artean; hura ere han gaindi zabilana, bere ustez irri egitea gatik, baina egiazki bere aingeru begiraleak eskutik zaramana, Jainkoak bazituelakotz bere xedeak haur harren alderat.

Ezen, bertzerik nihori ez-bezala, Jainko Jaunak erakutsi zion haur ttiki hari nola zadukan, Julien sainduaren inguruan, aingeru multzu bat, gizon gazte eder batzuen itxuran.

Hortakotz sartu ziren haurraren irriak; ezagutu zuen Juliene Jainkoa zela egiazko Jainkoa; eta, joaiten zitzaizolarik Sainduari alde-aldera, othoiztu zuen har zezala laguntzat, hura ere nahi zela giristinoi izan.

Eztugu zeren erran, gobernadorearentzat atsegabe handia izatu zela jakitea bere semea ere giristino zuela. Ekharrazirik bere aintzina, egin ziozkan alferretan agintzarik ederrenak eta dixidurik ikharagarrienak. Eta ikusi zuenean etzela deusik hari, manatu zuen Julien eta haurra biak ezar zetzatela presondegi ilhun batean.

Egina izatu zen manu horren arabera. Baina presondegian sartu zireneko argidura eder batek hartu zuen barne guzia. Eta argi hura ikusirik, hekien zain zauden hogoi soldaduk ere galdetu zuten bathaio saindua.

Bathaioaren grazia hori Antonio apezak eman behar zioten. Antonio zen apez saindu bat, preso altxatua izatu zena, hura ere, giristino zelakotz, eta gero arthikia izatu zena Julien zagon presondegirat bertze zazpi lagunekin.

Gobernadoreak jakin zuenean soldadu hekien giristinotzea, eman zuen manua denak hilaraz zetzatela tormentarik handienetan. Beth

zituzten beraz olio eta bikhe irakituz hogoi-ta hamar zuan. Bazaramazkaten ere hogoi-ta hamar martirak, bizirik egosi nahi zituzten tokirat, hekien aldean iragan zenean pagano multzu bat hil batekin.

Orduan Marzienek erran zion sainduari, trufaz: «Zuk, okherren begia sendatu duzuna, zergatik eztuzu hil hori ere piztuko?».

Julien sainduari gogoak egin zion, halako mirakuilu batek behar zuela, nahi-ta ez, salbarazi hainitz jende. Egin zuen beraz gurutzearen seinalea, eta hila piztua zen; eta zion harrek ere goraki, etzela Juliene Jainkoaz kanpo, bertze jainkorik, hura zela baxharrak adoratu behar.

Hilaren pizteak eta haren solhasek konbertiarazi zuten hainitz jende; eta etzezan egin oraino gehiago, gobernadoreak manatu zuen hura ere hilaraz zezatela.

Bizkitartean gogoak etzion ematen Marziene martir hekie jarraitzea bururaino. Etzezaken alabainan ahantz han zuela bere semea. Eta gero, nola jasan, bihotza erdiratzen senditu gabe, haur harren izkirituak eta nigarrak, olio irakiturat arthikiko zutenean? Erran zioten beraz bere gizonei nola egin, eta joan zen etxerat.

Bai, egina izatu zen harrek erran bezala. Arthiki zituzten sainduak olio eta bikhe irakiturat. Ordean, oihurik ez izkiriturik edo garrasiarik gabe, hasi ziren berehala Jainkoaren laudorioen kantatzen. Ezen ez oliok, ez bikheak etzuen indarrak aski hekie minik egiteko.

Burtegoak eta bertze ikustiarrak egotu ziren luzez, ezin sinetsiz beren begiz ikusten zutena. Hargatik ezagutu zuten noizpeit etzutela hoberik hekie begira egonez, eta berriz ere ereman zituzten presondegirat.

Gobernadoreak, jakin zuenean oraino ere presondegian zuela bere semea, bidali zion ama: «Ian bada, ez othe zen nihola ere gogoz ganbarratzen ahal haur hura».

Ordean, amaren othoitz eta nigar guzien gatik ere, Zelze ttikiaren fedek etzuen amor eman. Aitzitik huna zer gerthatu zen: haur hura hain ongi mintzatu zitzaion bere amari gure Erlisione sainduaz, eta Jainko Jaunak bere zerbitzari maitei emanen diozkaten sari xoragarriez, non andre-harrek igorri baitzozkan bere jaunari mandatariak, erratera hura ere giristino zela, eta hura ere bere semearen aldean aurkhituko zuela.

Berri horrek nahasi bezala zion burua gobernadoreari; etzakien gehiago non zen. errearazi zituen beraz bizirik hogoi soldaduak, eta Antonio apezarekin ethorri ziren zazpi giristinoak; eta bertze guziak ereman zituen berekin tenplorat.

Tenploan bazter guziak betheak zirelarik paganoz eta hekien apezek, Marzienek erran zion Juliene: «Hire bothereak hain handiak direnez geroz,



zergatik eztuk eginen oraino kheinu bat gure jainkoen iduri edo potret haukien guzien fundiarazteko gai ditekena?».

Eta Marzienek ikusi zuen uste etzuen mirakuilu lazgarria: Julienek gurutzearen seinalea egitearekin batean, lurra ikharatzen eta erdiratzen, iresten zituelarik jainko faltsuen iduriak, apezak, hainitz pagano eta azkenekotz tenploa bera.

Eta halarik ere gizon itsu harrek ezagutu eta aitortu orde gure Jainkoa dela baxharrik egiazko Jainkoa, arthikarazi ziozkaten basa ihiziei bazkatat bere semea, bere andrea, Anasztazio hil piztu hura, Antonio apeza eta Julien.

Bainan basa ihiziek ere etzioten minik egin saildu hekiei, aitzitik bai milikatu, ezti-eztia eta errespetuekin, zangoak eta eskuak.

Marzienek etzakielakotz gehiago zer asma, kondenuatu zituen ezpatz hiltzerat.

Eta horrela joan zen Julien saildua, Jesus Jaunak laguntzat eman ziozkan hainbertze arimekin batean, harrentzat zagon zorionaz gozatzera.

Irakaspena

Giristino batek aski fede hazkarra duenean ikusteko zer irabaziak egiten dituen bizitze saildu baten bidez, eztu munduaren beldurrik ez axolarik.

Orduan mundutarrak izan dezala irri zuria ezpainetan, solhas gaixtoa mihian, edo, Marzienek bezala, ezpata eskuan; giristino fededuna badoha aintzina bere bideari.

Saildu handi haukien arartekotasunak ardiets dezaukula horrelako fedea.

Urtharrilaren 15ean SAN MAORE, FRANTZIAKO BENEDIKTANOEN AITA Sortua 512an-Hila 584an

Maore sailduak, ezpaltz mundutik atheratu, izanen zituen munduan gutizia ditezken atsegin eta ohore guziak, haren familia Erromako familia aberats eta aiphatuenen artean lehenetarik bat zelakotz. Eta, mundutik athera delakotz, baditu lurraren ganean, eta izanen, munduaren akhabantzaraino, ohorerik handienak; eta zeruan ere bai bertzela izanen zituen ohore eta atseginak baino miletan handiagoak.

Hura zen denbora jendea hainitz mintzo baitzen san Benoatek zaraman bizitzeaz. Eta nola Maoreren burasoak giristino on batzu baitziren, hartzatu zuten elkharrekin behar zutela ezarri beren haurra Benoat sailduaren eskuetan; harrek erakutsiko ziola zerurako bidea bertze nihork baino hobeki.

San Benoat gure Aita loriosak atseginekin hartu zuen Jainkoak berak igortzen zion haur gaztea. Ezen ikusten zuen zer graziazko onthasunek jautsi behar zuten lurraren gainerat hari esker.

Maore gazteak iragan zuen bere baithan, komentuan sartu zeneko, behar zela baitezpada saildutu. Eta halako khar sailduarekin eman zen bere saildutasuneko lanari, non denbora laburrik barnean haren berthuteak hainitz distiradura ederra baitzuen, eta san Benoatek ere erraten ahal baitzioten bertze fraidei, nortaz mintzo zen osoki ezagutarazi gabe: Bada nonbeit saildu bat, adinez oraino haurra, hazia izatu dena munduko jende handiak bezala, eta hargatik emana saildutzeari halako su sailduarekin, non adinean aintzinatua direnen heinera heltzera baitoha.

Orduan gerthatu zen mirakuilu batek erakutsi zuen hobeki nolako saildua zen haur gazte hura.

Maore zagon komentuan, edo batera dohana Sublakeko komentuan, bazen bertze zortzi urtheko haur xume bat, Plazide zeritzana, edo deitzen zutena. Haur hura ere Erromako bertze aitoren-seme batek ekharri zion Benoat sailduari, hari ere irakats zezola zer behar zuen egin zerurat heltzeko.

Egun batez, haur hura, joana zelarik ur handira ur-keta, erori zen ur hartarat, eta urak zaraman. San Benoatek, ikusirik haren behar-ordua bere



izpirituko begiez, erran zion Maoreri: «Nere anaia maitea, zohazi, egizu othoi laster, urak darama gure haurra».

Maorek galdetu zion bere benedizioea eta eman zen lasterrari. Eta nahiz haurra eremana zen jadanik, harri ukhaldiaren bidea baino urrunago, Maorek etzuen konturik eman non zabilan, bainan laster egin zuen harren gana heldu arte. Ordukotz ithotzen hasia, burua zuen doidoia ageri. Hartu beraz iletarik eta ereman zuen uretik kanpo, ohartu ere gabe uraren gainean zabilala.

Hargatik leihorrera zenean, eta ikusi zuenean zer egin zuen, lastu zen eta harritu. Eta kontatzean bere Aita onari nola atheratu zuen, erraten zion etzuela harrek ikustekorik deus ere mirakuilu hartan, etzenaz geroz ohartu ere zer hari zen.

Bainan san Benoatek ihardetsi zion Jainkoak ibilarazi zuela uraren gainean, nahi zuelakotz aditzerat eman mundu guziari zein maite zuen jende obeditzaila.

Handik goiti bertze fraidek ere bazuten ikustate eta amodio gehiago Maore gaztearentzat. Eta ikusi zuten san Benoatek, balin bazuen ere haur harrentzat bertze fraidentzat ez-bezalako estekamendua, bazakiela zer hari zen.

Obedientzia horri zohazkon bezalakoak ziren Maoreren bertze bertehuteak, nork-berak ikus dezaken bezala bizitze huntarik.

Bazakharren bathi soinean zurdazko larru arraseko latza. Lo pixka bat egin behar baitezpada, eta lo hura egiten zuen hare edo kisu meta baten gainean. Hargatik garizuman, ohe hura bera ere onegia zitzaiolakotz, xutik zagon gau eta egun, non eta etzen loak osoki garhaitua. Eta orduan ematen zen jarririk.

Garizuman, etzuen jaten astean bietan baizik. Eta orduan ere ogi-pixka bat; doidoia aski, errateko jan zuela. Hortarik asma diteke nolakoa zen haren jana gainerako egunetan.

Gau guziz ematen zituen Dabiten zaspitan hogoi-eta-hamar salmopak; eta aldiz egunaz, Eskritura sainduko liburuak eskuan zagon, ez-balin bazen Erregela sainduak manatzen darozkigun esku-lanetan.

Horien guzien gatik, eta Jainkoaren hobeki maitaraztea gatik, san Benoatek hartu zuen laguntzat. Eta uzten zituen harren gain fraiden alde-rako lanetarik hainitz. Komentu guzia ere haren gomendioan zen, san Benoa norapeit zohanean.

Eta huna zer gerthatu zen behin, san Benoa kanpoan zelarik:

Egun batez buraso dohakabe batzuk ekharri zuten komentura sor-tzez maingu eta mutu zuten haurra. Jakinki bertze hainitzek izaten zituz-

tela nahi zituzten graziak, san Benoati esker, gogoak erraten zioten hekiei ere etzabiltzala alferretan. Etzuten ere etsitu aditu zutenean san Benoa etzela etxean. Ezen Maore gazteaz ere jendea hainitz mintzo zen.

Ikusirik beraz lanetik komentuan sartzera zohala, bere fraide lagunen aintzinean, eman ziren haren bidean, eta, erakusten ziotelarik beren haur gaixoa, galdetu zioten othoi urrikal zakiola.

Ordean Maore sainduari gaitzitu zitzaion osoki hekien othoitza. Eta aintzina abiatzera zohan, erranik ez bide zakitela nori mintzo ziren; etzela emana hura bezalako bekhatorsei mirakuilu egiten haritzea. Bainan ordu berean, bertze haurrideak bildu ziren harren ingurura. Eta hek guziek hainbertzekoak egin ziozkaten jende dohakabe hekien onetan, non azkenekotz bihotza hautsi baitzitzaion.

Eman zen beraz belhauniko eta ahuspez lurrari, eta erran zion Jesus Jaunari:

«Jesus nere Jaun guziz botheretsua, badakit zuri dela, eta zuri bakharrik, eri direnen sendatzea. Othoizten zaitut beraz eztakizun gaitzi jende gaizo haukien alde mintzo banautzu. Ez, Jauna, eztezazula konturik egin ni zer naizen; ordean bai, ikusazu jende haukien fedea».

Gero, xutik ematen zelarik, eta ezartzen zuelarik haurraren gainean bere diakre-estola, egin zuen gurutzearen seinalea eriarri buruz, eta erran zion ahalke saindu batekin: «Manatzen darotzut Trinitate Sainduaren izenean, eta san Benoa nere Aita maitearen izenean, altxa eta mintza zaitzen».

Eta haurra altxatu zen, nihoren laguntzarik gabe, eta mintzatzen ere hasi zen.

Ageri zen beraz, ezin hobeki, san Benoaten izpiritua eta botherea fraide gazte hura baithan zirela. Eta guzien ustekeria zen hura izanen zela hekien aintzindaria, Jainko Jaunak bere ganat hartu zioketenean beren Aita maitea.

Bainan bertzelakoak ziren Jainkoaren xedeak.

Aipatu dugun mirakuilu hortarik laster, ethorri zitzaizkon san Benoati, Frantzia Manzeko apezpikuak bialtzen ziozkan bi gizon, Flodegera, katedraleko diakre-nagusia, eta Harderarde, jaun apezpikuaren etxe-gizona. Manzeko apezpikuak othoizten zuen gure Aita loriosa, igor zetzola zenbeit fraide; behar zuela egin komentu berri bat haren meneko ziren herrietan.

San Benoati etzitzaion oraino gogoratu fraide igortzerik hain urrun. Bainan, ezagutuz Jainkoak galdetzen ziola egin zezaken sakrifiziorik han-



diena, deitu zuen Maore bere ikasle maitea, eta erran zion behar zela Frantziarat igortzera zaramazkan fraiden aintzinean jarri.

Maore sailduak etzuen ordu arte bertzerik egin, baizik ere obeditzea Erregela sailduari eta bere aintzindarien manuari, eta hortakotz etzuen erran ezetz. Nahiago zuen hargatik, eta ez gutiz, egon komentuko azken-azken herronkan.

Hala ere egin zuten elkharren artean, abiatuko zela urtharrilaren hamekan. Egun hura ethorri zen nihork nahi baino lehenago. Eta orduan Kasingo fraide guziek, gurutzea aintzinean, lagundu zituzten komentuko athetaraino Frantziarat heldu ziren bortz haurrideak.

Athe-alhasearen gainean, san Benoatek eman ziozkan Maoreri Erregela sailduaren liburua, eta haurridek egun guziz behar zuten ogiaren eta arnoaren neurriak; bortzei oraino eman zioten bere azken benedizioa; eta gero, san Benoate eta bertze fraideak han gelditzen zirelarik, bihotza ilhunik, san Maore abiatu zen Frantziarat buruz, bere lagunekin, eta Frantziatik athorriarikako bi mandatariekin.

Bi benedikano zagozin komentu ttiki batean iragan beharra zuten lehen gaba. San Benoatek igorri ziozkaten komentu hartara bertze bi haurride. Ezen nahi zuen jakin baitezpada haur maite hek nola ibili zitzaizkon lehen egun hartan. Eta bertzalde nahi zion eman oraino Maoreri orhoitzapen balios bat.

Bidaltzen zion Gurutze sailduaren zathi xume bat, erraten ziolarik, izanen zuela harren beharra. Erraten zion ere letra batean, «bazuela oraino berrogoi urthe lurraren gainean egoteko; berrogoi urthe hetan bazukela lan borthitzik eta atsegabe handirik, gure arimen etsaiak etziolakotz onesten ahal egin behar zuen ongia; bainan garhaituko zuela Satan beltza, Jainkoaren miserikordiari esker; zohala beraz beldurrik gabe, eta egin zezala bere gain zuen lan handia, Jainkoaren amorea gatik».

Orhoitzapen saildu harrekin eta bere Aita maitearen letra on harrekin, san Maore berriz ere eman zen bideari; eta, hamalau egunen buruan, heldu zen izena Verzeile zuen herri handi baterat. Han zirelarik, Jainkoak nahi izatu zioten adiarazi heiekin zela.

Manzeko jaun apezpikuaren etxe-gizona harat-eta-hunat zabilalarik selaru batean, erori zen selaru hartarik, eta hain itsuski funditu zuen besoa, non mirikuek erran baitzuten etzezaketela antola; behar zutela pikatu.

Bainan Frantziako bertze mandatariaik othoiztu zuen Maore saildua, urrikal zakiola haren laguna; gauza trixtea zela beso baten galtzea. Eta Maorek, harturik Gurutze sailduaren erlakia, egin zuen gurutzearen sei-

nalea eriari buruz, eta ezarri zion galdu behar zuen beso hura egundaino minik izatu ezpalu bezala. Eta gero, nola mirakuilu horrek egin baitzuen azantz handia, joan zen aintzina bere lagunekin lehen-bai-lehen.

Huna oraino bertze mirakuilu batzu:

Italietaiko mendiei behera hari zirelarik, erori zitzaioten zalditik gizon gaizo bat, gidari bezala hartua zutena, mendiko bide gaixtoetarik iragan arteraino, eta hautsi zuen zangoa hiru tokitarik. Bortu ikharagarri hartan, etzezaken nihork artha gizon hura behar bezala, eta hortakotz san Maorek sendatu zuen ordu berean, gurutzearen seinale bakhar batez.

Jadanik Frantziarat heldua zelarik, ikusi zuen eliza-athe batean sortzez itsu zen gizon bat; itsu hari argitu ziozkan begiak. Urruntxago, mintzatu zitzaizkon azken hatsetan zen gizon gazte batez; gizon gazte hura ere sendatu zuen. Eta mundu huntako bizia luzatuz, irabazarazi zion eternitatekoa.

Horrelako asko mirakuilu egiten zuelarik bere bidean, eta ordukotz aste sailduaren erdia zelarik, heldu ziren san Erromano zagon komentura, erran nahi baita Auzerreko hiriaren aldera.

San Erromano, hura zen gure Aita loriosa bere harpean hiru urthez hazi zuen fraidea bera. Hortarik asmatzeko da, ian atseginekin ikusi othe zituen bere komentuan san Benoaten ikasle batzu.

Ordean ondikotz! haren zoriona laster histu beharra zen.

Ortizirale sailduz, Jainkoak adiarazi zion Maore sailduari, biharamunean berean galdu behar zutela san Benoate beren Aita maitea.

Berri horrek ahantzarazi ziozkaten guziei gainerako atsegin eta atsegabe guziak.

Eman ziren beraz othoitzean beren Aita onarentzat. Eta hala-hala haritu ziren, gau guzia eta biharamuneko eguna goizeko bederatziz oreinak arte.

Orduan Jainkoaren Izpirituak erakutsi zion Maore sailduari Kasingo menditik eta zeruraino zohan karrika edo bide eder bat, estalia bururen-buru oihalik baliosenez; eta haren bi bazterretan bazirela bi argi lerro, guziz distirantak.

San Maore begira zagolarik halako ikusgarri xoragarriari, hainitz arropa ederrekin zen gizon adinetako batek erran zion bere atsegina oraino ere gehiago handitu behar zion solhas hau: «Ikusten duzun bide horri gora igan da Benoate Jainkoaren zerbitzari maitea».

Gero, histu eta galdu zirenean karrika eder hura eta gizon adinetakoa ere bai, Maore sailduak kondatu zioten san Erromanori eta bere frai-



de lagunei zer gerthatu zitzaion eta zer ikusi zuen. Eta denek elkharrekin eman ziozkaten eskerrak Jainko Jaunari.

San Maore eta haren lagunak egotu zirenean zenbeit egun san Erromanoren komentuan, berriz ere lotu ziren bideari eta heldu Orleango hirira.

Hiri hartan jakin zuten hila zutela Frantziarat ekharrarazten zituen apezpikua. Eta orduan, nahi-ta-ez, ilhundu eta belztu zitzaioten gogoa denei. Ezen, apezpiku hura hila zenaz geroz, etzuten gehiago zeren joan Manzerat. Eta hortakotz, etzakiten zer bilhakatu behar zuten.

Bainan ezagutu zuten laster Jainko Jauna alde zutela oraino ere.

Jaun apezpiku zenaren etxe-gizonak, Harderardek bazuen Erregeren gortean, izena Flores zuen adiskide bat guziz aberatsa. Harderardek beraz ikusi zuenean zer egunaldi beltzak atxeman zituen Frantziarat ekharrarazten zituen Benediktano saindu hek, egin zuen Floresen etxerainoko bat, eta erran zion Jaun hari zer gerthatu zitzaion.

Floresek etzuen denborarik galdu, berri horiek jakinez geroz; ordean joan zitzaioten bera san Benoaten haurrei, egin zuen solhas astiroki fraide saindu heiekin, eta eman ziozkaten berentzat behin-bethikotz, Orleango hiritik hurbil, hango ibai edo ur handiaren bazterretan zituen lur gizenetarik, nahi zituzten guziak; han egin zetzatela beren komentua eta eliza, berei zohakoten bezala; eman zioten ere behar zuten dirua; eta berantxago, ikusi zuenean hobeki norekin zuen bere egitekoa, ezarri zuen, san Maoreren eskuetan, Bertulfe bere seme bakharra.

Jainkoak zor zion Floresi sari berezi bat, emaitza horien guzien gatik. Eta hortakotz Floresek berak ere izatu zuen azkenean fraidetzeko zoriona. Hura ere bilhakatu zen san Maoreren ikasle. Eta hil zen sainduki, komentuan bizi izatu ondoan hamabi urthez.

San Maorek izatu zuen Teodeber erregearen eta haren semen ganik ere emaitza ederrik. Eta horrela landatu eta gogortu zen Frantziako lurrean Benediktanoen ordrea.

Lehen abadia edo komentu hura fraidez bethe zenean, san Maorek egin zuen bertze bat. Eta, aintzina ere bethi eta bethi bazirelakotz fraide gai berriak, egin behar izatu zituen komentuak non-nahi.

Hil gabe, bazituen seietan hogoi, denak fraidez betheak. Halakoak ziren, alabainan, haren bizitzea eta egiten zituen mirakuiluak.

Ifernuko izpiritu gaixtoak ezin jasanez hainbertze arima sar zadin zeruko bidean, erranarazi ziozkaten hiru gaixtaginei, Maore sainduaren gain, hala etziren hainitz gauza pisuak.

Bainan mintzatu baziren, mintzatu ziren. Debruek hartu zituzten hiruak. Bertzalde debruek itho zuten gizon dohakabe hetarik bat, hari bere gaixtakeriaz urrikitan sartzeko astirik eman gabe. Eta bertzei ere baliatu zitzaioten ederki Maore saindua hazkar baitzen eta botheretsu Jainkoaren aintzinean.

Maore sainduak beraz othoiz egin zuen, konturik egin gabe hil harrek eta haren lagunek zergatik zuten gaztigu bat hain ikharagarria. Eta haren othoitza, hila piztu zen, eta bertze haren bi lagunak ere athera ziren debruaren aztaparretarik.

Hargatik Sainduak manatu zion pitzarazi zuen gizon harri, zohala toki hetarik urrun bere bizi guzikotzat. Etzuelakotz nahi nihork jakin zezan hil bat pitzarazi zuela.

Ordean alferretan bilhatzen zuen bere mirakuiluen gordetzea. Bazakiten bazter guzietan, bazituela Jainkoaren aintzinean bothererik handienak. Eta alde guzietarik jendeak ethortzen zitzaizkon, batzu gorp-hutzeke osasunaren bilha, bertzeak arimako eritasunen gatik, eta othoiz-tera, erakuts zezotela zerurako biderik laburrena eta hoberena.

Bazuen jadaneko hogoi-ta hemezortzi urthe Frantziarat ethorria zela, bilharazi zituenean bere aintzina bere komentuko fraide guziak. Eta erran zioten etzituela urrun Aita san Benoatek aipatu berrogoi urtheak, behar zela beraz prestatu bere Kontu-Hartzaille Handiaren aintzinean agertzera; eta hek ere behar zutela hautatu aintzindaritzat bertze norbeit.

Eta gero, fraidek hautatu zutenean Bertulfe, Flores zenaren semea, Maore saindua eman zen othoiz eta penitentzia egiteari, ordu arteraino deusik egin ezpalu bezalako su sainduarekin.

Bainan ifernuko izpiritu gaixtoak etzezaken utz bake oso batean eta ikusi gabe, ian ez othe zezaken bada izitaraz. Hortakotz agertu zitzaion bertze hainitz debruren erdian, eta erran zion: «Bazuela azkenekotz aspaldi hartan bilhatzen zuena; jakiten ahal zuela beraz, ordua arterainoko lanak alferretan zituela; eta, denbora laburrik barnean, haren komentu guziak fraiderik gabe zitezkeela eta osoki hustuak».

Sainduak erran zion etzela egarik atheratzen ahal haren ahotik. Eta haiatzu zuen Satan bere lagun guziekin, egiten zuelarik gurutzearen seinalea.

Hargatik halako beldur bat gelditu zitzaion izpirituan; eta egiten zuen bere baithan: «Bainan izpiritu gaixto hek erranen othe zaroteden holakorik, ezpalitzait gerthatu behar zer-edo-zer?».

Bere grina hortaz mintzo zitzaiolarik Jesus Jaunari, Nagusi maite hark adiarazi zion etzuela zeren beldurrik izan ifernuko izpiritu gaixtoek



bazuketela indarrrik aski, haren lanen eta izerdien ez-deus bilhakarazteko; egiaren erratera, Jainkoak nahi ziozkala hartu bere ganat hainitz fraide, bainan hartzen ziozkala onduak zirelakotz zerukotzat.

Solhas on horiek ezarri zuten bakea Maore sailduaren bihotzean. Eman ziozkan beraz eskerrak Jainkoari; eta gero egin zuen bere egin-ahala, ongi prestatzeko bere Jaun Handiaren aintzinean agertzeraz.

Ezagutu zuenean hurbildua zuela jadanik bere azken orenera, eremanarazi zuen bere burua elizarat, hartu zituen elizakoak, eta, handik beretik, haren arima saildua joan zen hiru hogoi-eta-hamabi urthez maitatu eta zerbitzatu zuen Jainko Jaunaren ganat.

Irakaspena

Liburu egilek eta predikariek, mintzatu behar dutenean obedienciaz, erraten dute atseginekin, nola Jainkoak ibilarazi zuen saildu hau uraren gainean.

Guk ere ikus dezagun gure aintzindari eta nagusietan Jainkoaren itzala; egin dezagun manatua zaikun guzia, Jainko Jaunak berak manatzen larokukena egin ginezaken bezala, den guzia Jainkoari atsegin egitea gatik, eta ez titeke ttikia guk zeruan izanen dugun zoriona.

Urtharilaren 15ean SAN PAULO LEHEN BORTUTIARRA

Sortua 227an-Hila 343an

San Paulo lehen Bortutiarra sortu zen Esiptoan hirugarren mendea jadanik hasia zelarik.

Haren burasoak girstino behar-bezalako batzu ziren, eta bertzalde, jende batzu ezagutuak eta aipatuak beren hiritik kanpo ere egiten zituzten amoina handien gatik. Eztugu beraz zeren erran ongi altxatu zutela Paulo beren semea.

Etzen hargatik Jainkoaren nahia buraso on hek ikus zezaten beren begiz zein ziren ederrak beren haur harren bihotzean erain zituzten haziek ekharri behar zituzten fruituak. Ezen biak joanak ziren zerurat, haurrak etzuelarik oraino hamabortz urthe baizik.

Pauloren burasoak hil ziren urthe hartan berean, enperadorek oihera eginarazi zuten Esiptoan eta beren meneko zituzten herri guzietan, etzekaketela gehiago onets girstinorik izan zadin hekien erresuman; girstino zirenek behar zutela beraz arbuiatu beren erlisionea, edo bertzela, hiltzerat kondenatuak izanen zirela.

Paulo gazteak, jakin zuenean berri hori, egin zuen bere baithan, hobe zuela gordetzea, ezen-ez burregotz batzuen eskuetarar erori, eta gero menturaz girstinotasunaren arbuiatzea. Eta hortakotz, joan zen hiritik urrun ezkondua zuen arreba baten etxerat.

Bainan, handik zenbeit denboraren buruan, jakin eta ikusi zuen bere koinatak berak salhatzera zaramala; nahi zituelakotz beretu haren onthasun guziak. Eta orduan athera zen bere arrebaren etxetik ere, eta sartu bortuan behin-bethikotz.

Bortuan zenaz geroz, etzuen gehiago lanjerik nihork atxeman zezan. Ordean Jainkoaren graziak hazkartua, joan zen emeki-emeki gero eta barnago.

Azkenean aurkhitu zuen, mendi mazela batean, harroka bizian eginikako zilho bat, hetsia zaukana harri zabal batek. Eta baztertu zuenean harria, ikusi zuen barrigo ttiki bat, izena palmiera duen zuhain edo arbol eder bat erdi-erdian; eta oraino xokho batean ithurri ttiki bat kristaila bezein garbia.



San Paulok eman ziozkan eskerrak Jainko Jaunari, zeren hain xuxen ibilarazi zuen egoitza maite hartarat ethortzeko, eta sartu zen, ziolarik bere baithan, harrek etzukela mundu huntan bertze jauregirik ez egoitzarik.

Eta huna zer egin behar zuen. Behar zuen ereman jendeak izan dezaken bizitzerik luzena harri zilho hartan, bethiereko othoitzean eta penitentzietan, bakhar-bakharra zagolarik, eta nihoiz nihor ikusi ere gabe.

Bainan nola egin zen bizitze bat hain gogorrari?

Gizon gazte hura eman zen haste-hastetik berthutearen praktikatzen ziteken khartsukiena; hortakotz bazituen grazziarik nasaienak, eta grazia hekiei esker garhaitu zituen bizitze berri harren gatik zituen tentazione guziak.

Emeki-emeki galdu zuen munduan, ez salhatua izatera, izanen zituen atsegin eta aisien orhoitzapena. Eta azkenean ezagutu zuen munduko atseginetik eta aisiek ezutela ikustekorik deus-ere Jainkoak bere haurrei ematen diozkaten barneko atsegin gozoekin.

Berrogoi-ta lau edo bortz urthetaraino, bizi izatu zen palmieraren fruituetarik janez, eta handik goiti, bele batek hazi zuen, ekharriz egun guziz ogi ttiki baten erdia.

Bere larruaren estaltzeko behar zuen jaunztura ere berak egin zuen palmieraren hostoz.

Bainan nolakoak ziren haren othoitzak, barurak eta bertze penitentziak? Ezta ondikotz nihor galde horri ihardesten ahal dionik behar bezala.

Bazituen ehun eta hamahiru urthe san Antonio Bortutiarra joan zitzaionean ikustera. Eta huna nola:

San Antoniok, hura ere heldua zelarik ordukotz lauetan hogoi eta hamar urthetarar, izatu zuen urguiluzko tentazione hau: bazuela merezimendu Jainkoaren aintzinean, zeren bertze nihor ez-bezala, eta bertzek baino lehen, utzi zuen mundua bortuan bizitzeko.

Bainan ondoko gauean, Jainko Jauna mintzatu zitzaion, eta erran zion, «Nahi ziola ezagutarazi nor eta zer zen bortuan lehenik saildutu zena; hargatik, etzuela denbora galtzekorik, abia zadiela laster».

Argia hasi gabe, san Antonio, makhila bat eskuan, bideari lotua zen, eta bazohan bortu barnerat buruz; jakin gabe norat, bainan segur, Jainkoak eremanen zuela bere zerbitzariaren gana.

Eguerdi gainean, etzakielarik gehiago zein eskualdetarat har, Sataneke erakutsi zion bidea. Ezen izpiritu gaixto hura agertu zitzaion; alegia basajauna, burua eta lephoa gizonarenak bezalakoak zituen, eta hargatik gibelaldetik eta bere lau zangoetarik iduri zuen zaldia. Debrua zen agertzen

zitzaiona planta basa hartan, ez, zerbitzu egitea gatik, bainan hura izitarazi beharrez.

San Antoniok ikusi zuen laster norekin zuen bere egitekoa, eta halarik-ere galdetu zion zein aldetan zagon Jainkoaren zerbitzari handia. Eta ordu berean basa-jauna zelakoak altxatu zuen besoa mendi-arte batzuei buruz, eta gero eman zen berehala lasterrari.

Sainduak ere kurritu zuen aintzina. Eta ibili zen bi egunez, beroak-beroari eta oihanez-oihan.

Bigarren gaua othoitzean iragan zuen oso-oso. Eta handik ondoko goizean, argia hastera zohalarik, begira zagon norat joan behar zuen, ikusi zuenean otso bat mendi mazela bati harat zohana, unhatua, mihia kanpoan eta arrapoa edo haguna zariola. Hargatik egin zuen sar-eta-athera ageri zen leze batean, eta gero joan zen aintzina.

Hainbertzenarekin, san Antoniori ere gogoak egin zion, etzela bertzerik, Jainkoak nahi ziola adiarazi non zagon gordea harrek bilhatzen zuena. Eta bozkariorik handiengan abiatu zen mendiari gora.

Bere laster heltzeko lehiarekin, egin bide zuen harrabots. Ezen san Paulo ere ohartu zen han bazela norbeit, eta berehala altxatu zuen harri zabal bat lezearen hesteko.

San Antonio hasi zitzaion galdetzen eta galdetzen idek zezola athea; «berdin bazakiela nor zen, eta zergatik joaiten zitzaion; egin ondoan hainbertze bide harren ikhustea gatik, eman zezola atsegin hura».

Bainan othoitz horien guzien gatik ere, Paulo ixil-ixila zagon. Azkenekotz, bazuen jadanik sei oren, san Antoniok othoitz berak eta galde berak egiten ziozkala; noiz eta ere, ordukotz etsitzen hasia, erran baitzion Ermitau sainduari:

«Etzarozkidanaz geroz agertu nahi, badakikezu hemen berean egonen naizela hatsak diraudano. Eta ez nauzunaz geroz bizirik ikusi nahi, bederen ikusiko nauzu hil ondoan eta nere ehorztek».

San Paulo ezin egotu zen gehiago ixilik. Mintzatu zen beraz ziolarik: «Nork egundaino egin du holakorik, othoitz eta dixidu denbora berean?». Eta gero, irri ezti bat egiten ziolarik bere ikustiarrari, zabaldu zion athea, eta bi sainduak lotu ziren elkhari besatraka, batek bertzea deitzen zuelarik bere izenez.

Horrela egotu zirenean aphur on bat, eta Jainkoari ere eskerrak eman ziozkatenean, hasiak ziren beren berrien kontatzen, ethorri zitzaionenean bele bat ogi bat osoa mokoan.

Eta san Paulok erran zion Antonio sainduari: «Begira, begira, nere haurride maitea! Zein den ona gure Jainko Jauna! Bazuen hiru hogoi



urthe igortzen zarotala, egun guziz, ogi baten erdia; eta orai, bia garela-kotz, bidaltzen daroku osoa. Nonbeit egia baita, Jainkoak badakiela zenbat soldadu duen bere zerbitzuan».

Bainan zeini zagokon ogiaren haustea? Batek ez nahi, etzela hari, bertzeak ere ez nahi, horren gainetik izatu zuten umilitatezko guduka saildu bat. Eta azkenean ere, hautsi zuten ogia, bainan elkhar garhaitu gabe, eta bakhotzak bere aldetik zadukalarik.

Othuruntzaren ondotik, berriz ere hasi ziren othoitzean, eta solhasen zeruko loriaz. Biak alabainan zein khartsuago ziren, eta biak bat bertzea bezein berandetsiak zagozin, noiz izanen zuten beren Jainko maitearen ikusteko zoriona.

Biharamunak ere argitu zioten batere uste gabe. Eta orduan san Paulok erran zion bere ikustiar maiteari:

«Aspaldi du Jainkoak jakinarazi zarotala desertu huntan zinaudela; eta hitzeman zarotan ikusiko zintudala. Orai beraz, heldua nere sailaren burura, hautsiko ditut gorphutz hilkor huni estekatua naukaten lokharriak, eta nere arima joanen da Jesus Jaunak zor darotan sariaren hartzera.

»Horra zergatik Jainkoak igorri zaituen bortu zokho huntara, ezar zinezan lur pixka bat gorphutz ihartu hunen gainean, edo, hobeki mintza nadin, ezar zinezan lurpean lur pixka hau».

Solhas horiek erdiratu zioten bihotza san Antoniori; eta, nigarrez zagolarik, othoiztu zuen san Paulo, galde zezola Jainko Jaunari, edo utz zezala bizirik, oraino denbora pixka bat, edo ardiets zezola hari ere, zerurat joaiteko zoriona.

Bainan Paulo sailduak erran zion: «Eztezazula bilha gehienik lohau-tzukuena, bainan hobekienik dena Jainkoaren loriakotzat. Nahiago zinuek notharik gabe den Bildotx Sainduaren ondotik ibiltzeko zoriona, ezen-egotea bethi lurrerat zaramazkan gorphutz horren azpian; bainan zure haurridek badute oraino zure irakaspenen beharra.

»Othoi, beraz, zohazkit Atanasio Apezpiku eta Elizako Nagusi handiak eman darotzun kaparen bilha. Eta gero, ezarrirek nere gorphutza kapa harren barnean, hala-hala ehortziko duzu».

Bainan san Paulok zergatik nahi zuen kapa batez inguratua izan hil ondoan, etzuenaz geroz hostozko jaunztura bat baizik, bizi zelarik?

San Paulok etzuen bertzerik gogoan baizik ere, guri adiaraztea sinhesten zituela Eliza Katolikoak irakasten darozkigun fedezko artikulu guziak.

San Antonio egotu ondoan oldar edo ixtant bat ixilik, harritua ikusteaz nola, nihork deusik erran gabe, bazakien haren eskuetan zela san

Atanasioren kapa, belhaunikatu zen saildu maite harren oinetan, hari bere benedizionearen galdetzeko, eta athera zen harpe hartarik nigarra zariola. Joan zen ere lehiarik handiengan, eta eginez bere baithan menturaz ethorriko zela oraino saildua hil gabe.

Bere komentura zenean, fraidek galdegin zioten, non egotu zen hainbertze denbora. Eta, heien galdeari ihardetsi orde, san Antoniak erran zuen: «Zorigaitz, ni bekhatosari, zeren hain gaizki garreatzen dudan fraidearen izena! Ikusi dut Elias, ikusi dut Joanes-Batixta bortuan! Ez! Ikusi dut Paulo parabisuan!».

Eta, uzten zituelarik bere fraide guziak harrituak, berriz lotu zen bideari san Atanasioren kapa bizkarrean.

Bazohan ere joan-ahala-joan, noiz-eta ikusi baitzuen ezagutu orduko galdu behar zuenaren arima, zeruan sartzen, elhurra bezein xuri, eta bertze hainitz sailduen erdian.

Ordu berean san Antoniori ere, hil zitzaizkon zain guziak. Eta begitartea lurrera zagolarik, eta burua ere herrautsez bethetzen zuelarik, hasi zen oihuka:

«Paulo! Paulo! zergatik ez nauzu hartu zure lagun, zurekin egon ahal nindadin menderen-mende? Zergatik joan zaizkit, adiorik ere erran gabe? Hain laster galtzekotz, zergatik behar zintudan ezagutu?».

Horrela egotu ondoan aphur bat, san Antonio abiatu zen berriz ere eta azkenean heldu zen lezerat.

Lezearen barnera zenean, izatu zuen uste gabeko bozkarioa: ikusi zuen san Paulo belhauniko zagola, eskuak xut-xuta. Bizi zela beraz, bertzerik iduritu bazitzaion ere bidean zelarik, eman zen hura ere belhauniko, behar zuela harrek ere othoitz egin.

Hargatik ezagutu zuen laster san Paulo hila zela, etzuela bere aldean haren gorphutza baizik.

Orduan nigar turrusta batez busti zuen lehenik sailduaren begitartea; gero eman zituen hilen othoitzak, eta athera zuen lezetik san Antoniorene kapaz inguratua.

«Bainan, nola ehortzi behar du, etzuenaz geroz deusere hobiaren egiteko?». hori zen bere buruarekin zaasana Antoniak, ikusi zituenean bi lehoin handi ethortzen zitzaizkola alde-aldera.

Ezagan zuten Sainduaren galtzeak min egiten ziotela hekiei ere. Ezen ferekatzen ziotelarik gorphutza buztanez, iharrostean zituzten beren marrumez inguru hetako erreka guziak.



Gero egin zuten zilho bat zarrapoka edo aztaparka, san Antonioren ere milikatu ziozkaten eskuak, eta haren benedizionearekin batean joan ziren beren oihanetarat.

San Antoniok ehortzi zuen beraz gorputz saildu eta maite hura, eta eman zen komenturako bidean, berekin zaramalarik san Pauloren hosto-ko arropa.

Erranik da ere arropa hura jaunzten zuela urtheko bestaburu handietan.

Irakaspena

Saindu huni begiratu-eta, bortxatuak gare aithortzera gizonak egin dezakela zenbeit aldiz iduritzen zaion baino gehiago.

San Paulo hura ere gorputz hilkor batekin zena, bizi izatu da hiruhogoi urthez, ogi pixka bat zuelarik janharitzat eta ur hutsa edaritzat, nihor ikusi gabe eta leze baten barnean.

Eta ereman du horrelako bizia Jainkoaren hobeki zerbitzatzea gatik eta zeruko loriar ateltzea gatik.

Ah! guk ere balin baginu fede gehiago, balin baginu fede bizia, gauza segura da egin ginezakela egiten eztugunik; edo bederen egin ginetzazke-
la gure egun guzietako lanak egiten ezitugun bezala.

Eztugu aski fede. Edo, bederen, eztugu aski fede bizia! Galde dezagun Jainko Jaunari saildu hunen arartekotasunaz.

Urtharrilaren 17an SAN ANTONIO HANDIA

Hila 356an

Saindu hau ere Esiptoarra zen sortzez. Eta hunek ere galduak zituen bere buraso aberats eta Jainkotiarrek, hemezortzi urthetar at heldu zene-ko. Bainan ordukotz bazakien, aitak eta amak irakatsia, ezkarela lurraren gainean, guk nahi dugunaren egiteko, bainan bai, Jainkoaren zerbitzatze-ko. Eta hortakotz, iduritu zitzaionean Jainkoak deitzen zuela bere ganat, athera zen mundutik batere luzatu gabe.

Egun batez, elizan sartzera zohalarik, kantatzen zituzten, eliza hartan, Ebanjelioko hitz hauk: «Nahi bazare izan osoki perfet, sal zatzu eta eman errumesei dituztun guziak; eta gero, zato, jarraik zakizkit».

Eta ordu berean, Antonio gazteak, eginik bere baithan Jesus Jaunak hari erraten ziozkala hitz hek, saldu zituen onthasun guziak, onthasunek eman zioten dirutik iduki zuen, beretzat eta arrebak gazte batentzat, bizi-
tzeko doidoia behar zutena, eta gainerako guzia eman zioten errumesei.

Bertze aldi batez ere, entzun zituelakotz Ebanjelioko bertze hitz hauk: «Etzaitezela grina biharamunean nola biziko zaren», partitu zioten beharretan zirenei oraino eskuetan zuen dirua, gomendatu bere arrebak elkharrekin bizi ziren neskatxa batzuei, eta joan zen bortu barnean zagon fraide baten ganat.

Nagusi bilha zabilan Antonio. Eman zuen beraz kontu haste-haste-
tik zein ziren fraide harren berthuteak, ibili zen ere, zenbeit denboraz, bertze fraide batzuen etxoletan, ikusten hek ere nola bizi ziren, eta horre-
la ikasi zuen, urthe laburrik barnean, saildutasunik gorenerako bidea.

Ifernuko izpiritu gaixtoak berak ere gogoeta eman ziren, ian halako khar sailduarekin abiatua zen gizon gaztea ez othe zen hekien etsai handi zenbeiten gaia. Eta hortakotz etzen hek egiten etzutenik harren lotsarazteko.

Satanek ematen ziozkan izpiritura gogoeta hauk: «Zergatik behar zuen utzi hain goizik munduan izan zezaken bizitze ezti eta gozoa? zergatik behar zuen ezarri atze batzuen eskuetan oraino hain gaztea zen arrebak hura? hainbertzekorik gabe ere salba zitekela».

Han zituen oraino, bere begien aintzinetik nihola ere ken etzezaken mirail batean bezala, munduan egon balitz, eginen zituen jan-edan gozo-
ak, izanen zituen josteta, besta eta atsegin xoragarriak.



Eta gero, horrela iragan ondoan eguna, bere burua ezin zainduz lotu nahi zitzaizkon uli-beltz hetarik, bederen gabaz izatu balu bakea! Bainan ez! gabaz ere han zituen ifernuko izpiritu madarikatuak, oihuka, izkirituka edo garrasiaka, eta zer nahi harrabots egiten zutelarik, loharkatzerat ere ez uzteko.

Halako orduetan Antonio gaztea othoitzean zagon bere Jainko Jaunari, eta ahalaz konturik egin gabe begien aintzinean zituen ikuspen ikharagarriei, eta harren inguruan ziren harrabots handiei.

Bertzalde, zenbatenaz ere borthitzago baitziren haren tentazioneak, eta hainbertzenaz ere luzeago ziren haren barurak, garratzago penitentiak.

Eta hala, etsaiaren suak eta errabiak hazkarrarazi zuten hura baithan bortuan bizitzeko eta hiltzeko hartua zuen xede saindua.

Satanek ikusi zuenean etzuela oraino khordokarazi ere egin zuen azken indarka bat.

Eman zen emakume baten itxuran, eta agertu zitzaion ederki jaunzia eta jendea izatu balitz bezala. Bainan itzal trixte hura joan zitzaioneko begien aintzina, saindu gaztea eman zen begira ifernuko su ikharagarriei, egin zuen gurutzearen seinalea, deitu Jesusen izen saindua, eta Satan suntsitu zen khe zikhin bat zariolarik. Eta ondoko egun batez gure arimen etsaiak aitortu zion, hura baino hazkarragoak ere garhaitu zituela, bainan hura nagusi zuela.

Etsaia ihesi igorria zuen arren, Antonio saindua etzen lazatu. Bainan, menturaz berriz ere ethorriko zitzaiola, behar zituela beraz ongi hezi bere jaidura gaixtoak, sartu zen lehenagoko hobi ilhun batean. Barne beltz hartan etzion ematen bere gorphutzari doidoia bizirik egoteko behar zuena baizik.

Etzuen alabainan egunean othuruntza bat baizik egiten, hura iruzkia sartu ondoan, eta orduan ere ogi pixka bat zuen hartzen, gatz bihi zenbeitekin, eta ur xorta bat. Bertzalde bazagon bi-hiru egunetaraino deusik hartu gabe.

Jende biziak behar du loa jana bezein ongi. Bada san Antoniok egiten zuen baitezpada behar zuen lo pixka, hura edo lur hutsaren gainean, edo behar idor batzu bildu, eta heien gainean.

Ordean ifernuko printze dohakebeari min handia egiten zioten san Antonioren berthutek.

Izpiritu gaixtoek etzuten beraz luzez utzi nahi zuenaren egitera hobi harren barnean. Ageri zen ere bazutela leheneko aldietan baino esku edo bothere gehiago.

Ezen leheneko aldietan ezartzen bazioten ere zer-nahi ikuspen gaixto begien aintzinean, eta egiten bazuten ere, haren xolaren inguruan, zer-nahi oihu eta harrabots, bederen etziren menturatzen harren ukhitzera. Bainan bigarren aldian, ethorri gabaz, eta joiten zuten, umatzen eta xehakatzen.

Behin, bere ogia ekhartzen zion fraideak aurkhitu zuen lurraren gainean hedatua zagola luze-luzea, batere ezagutzarik gabe, gorphutz guzia uspedua edo urdindua, eta iduri osoki hila. Hartu zuen beraz bizkarrean eta ereman bere komenturat.

Komentura heldu zenean, aintzina ere galdua zagon; hargatik emeki-emeki ezagutzaratu zen. Eta ordu berean othoiztu zuen harat ekharri zuen fraidea, ereman zezala bere hobirat.

Eta gero, etzanik zagolarik, errainak hautsiak zituelakotz, erraten zion debruari: «Suge madarikatua, eztezakala uste izan gordetzerat joanen naizela edo ihesi hire beldurrez, hemen nauk eta hemen berean egonen hire beldurra gatik».

Debruari gaitzitu bide zitzaizkon solhas horiek. Ezen ordu berean, xixtu batez adiarazi balioite bezala bere lagunei, izpiritu gaixto hetarik nork-daki zenbat eman ziren Sainduaren inguruan, etxolaren barneak eta kanpoak denak hartzen ziozkatarik.

Batzuk iduri zuten harruliak, muskerrak edo sugeak; bertzek, otsoak, hartzak, tigreak edo bertze holako basa-ihizietarik. Eta denak hari zitzaizkon urhurika, orroaz eta marrumaz. Baziren ere hainitzak etxeari lotuak zagozinak, iduri behar ziotela arthikarazi; eta bertze batzu aldiz berari asikika eta zarrapoka edo aztaparka, errabiarik handiengan.

Bainan Antoniok egin zion bihotz-altxatze bat Jesus Jaunari; eta gero, gogoa laxo eta batere beldurrik gabe, eman zen begira hekien lanari; eta adiarazteko, oraino hobeki, zein axola guti zuen hekien errabiaz eta indarka guziez, erran zioten: «Nola etzaretan ahalke, hoinbertze izateaz, ni bakharrik naizenaren garhaitzeko! Zein ederki erakusten duzuen nola-koa den zuen ahulezia!».

Azkenean egin zuen gurutzearen seinalea, eta ordu berean izpiritu gaixto hek guziak suntsitu ziren ximixta bezala.

Hargatik Sainduak berak funditua zuen gorputza, eta haren etxea edo hobia arthikia zen eta barraiatua. Bainan debruak joan zireneko, argidura eder batek hartu zituen toki hek, eta ordu berean saindua sendo-sendo zen, eta hobia ere xutik, batere barraiatua izatu ezpalitz bezala.

Zer zen bada argi hura, edo hobeki, argidura hartan nor jautsi zen san Antonioren gana? San Antoniok Jesus Jauna bera zuen han bere alde-



aldean. Dena boztua, Bortutiar sainduak erran zion Jesusi: «Nere Jaun ona, non zinen, ni etsai horien erdian nintzelarik? Zergatik etzaizkit ethorri haste-hastetik?».

Eta Jesus Jaunak ihardetsi zion:

«Haurra, hor nintzen, zure aldean, begira atseginekin zure gudukatzeari. Ikusi zaitut, haritu zare ederki, beldurtu ere gabe bakharrik uzten ahal zintudala. Eta hortakotz, zure izenaren omenak joko ditu bazter guziak, eta zurekin izanen nauzu zure azken hatserraino».

San Antonio haritu zen horrelako penitentzia eta guduka handietan hogoi-ta hamabortz-bat urthez; eta gero, utzi zuen presondegi hura. Ordukotz egina zen gure arimen etsaiarekin gudukatzeari, bertzalde, Jesus Jaunaren solhasek aree gehiago su ezarri zioten bihotzean; eta harturik ogi bat, joan zen bortu barnerat fraide lagun batekin.

Noizpeit aurkhitu zuen, mendi kasko batean, gaztelu zahar bat leihorik gabekoa. Halako zerbeiten bilha zabilan oihanez-oihan. sartu zen beraz gaztelu hartan bere ogiarekin, eta untzi ttiki bat urez betherik; eta egin ziozkan bi othoitz bere fraide lagunari, lehena, hets zezola harriz gaztelu hartako athea; eta gero oraino, ekhar zezola, sei hilabetharik, bertze ogi bat eta untzitara bat ur.

Eta fraideak egin zuen galdetu zion bezala: hetsi zion athea, eta gero, teilatuan zilho bat eginez, ematen ziozkan bere ogia eta ura urthean bietan; bainan hitz-erdi bat ere erran gabe, ixil-ixila, eta ikusi ere gabe zer heinetan zen.

Gu harritzen gare, guk eztezakegu ere sinhets jendea bizi ditekela holako bakhartasunean, eta holako penitentzietan; eta bizkitartean horra nola egon beharra zen san Antonio hogoi urthez.

Hargatik diogunean bakharrik zagola, eztugu osoki egia erraten. Jesus Jaunak nola utz zezaken bera eta kontsolazionerik handienak eman gabe, harren gatik hainbertze sakrifizio egiten zuena? Han zuen beraz Jesus Jauna. Eta han ere bazuen harren beharra.

Ezen gaztelu harren ondorat hurbiltzen zirenek entzuten zituzten azantzik eta harrabotsik ikharagarrienak, eta batzuetan oihuka hari zitzaizkola debruak: «Zergatik ethorria haiz gaztelu huntarat, gaztelua eta desertua gureak dituk; huts zatzik beraz toki hauk».

San Antoniok erreki zaramazkan gabak eta egunak guduka eta kontsolazione hekien erdian, bainan hainitzak ziren jakin nahi zutenak harren ganik zer behar zuten egin saildutzeko. Eta egun batez, elkhar sustaturik, jende batzuk arthiki zuten presondegia hesten zuen harrasia.

Sainduak ere ezagutu zuen Jainkoaren nahia zela, has zadien bertze zeruko bidearen erakusten. Eman zen beraz komentu egiten eta jendei irakasten nola saildutzen ahal ziren. Eta etzen lanik gabe, bazituelakotz ikasleak, ehunka eta milaka.

Huna ikasle hekiei ematen ziozkatzen irakaspenetarik zerbeit:

Erraten zioten: «Zeruko bidean kurritu nahi zuenak behar zuela ahanzterat utzi egiten zuen ongia, egin bezein laster; eta egun guziz, behar zitzaiola lotu lanari, ordu arte deusik egin ezpalu bezala».

Erraten zioten oraino: «Jainko Jauna maite zuenak aurkhi zezakela parabisua, edo bihotzeko bakea, non-nahi».

Bertze behin oraino: «Arima Jainkotiarren othoitzek, barurok eta penitentziek, eta bereziki hekien pobreziak eta umilitateak izitzen eta lotsarazten zituztela ifernuko izpiritu gaixtoak».

Irakasten zioten ere: «Munduan onthasun handiak utzi eta, komenturat ethorria zenak etzuela egin behar bere baithan haren lana nihoiz ezin aski pagatua izaten ahal zen lan bat zitekela, zeren-eta ezin erran ez-asma baititeke lurreko urre eta zilhar guziak zein diren gauza ez-deusak zeruko ontasunik ttikienean aldean; eta bertzalde, beharko baitire utzi guziak goizxago edo berantxago».

Bertze egun batez erran zioten: «Erregek manatzen dionean norbeiti lan bat edo bertze, haina-harrek eztu utziko lan hura egiteko, eman ez bere gogoari, baduela ordu arteraino ere eginik lan hainitz erregerentzat; bainan eginen du erregek manatzen diona ahalik xuxenena eta lasterrena.

»Hori bera da zeru-lurren Erregearekin ere egin behar duguna. Eztugu beraz uste izan behar aski zaikula lanean hastea, edo oraino lanean haritzea zenbeit egunez, hari behar gare lanak diraeino».

Behin bere ikaslek galdetu zioten zer behar zuten egin ez lazatzeko. Eta sainduak ihardetsi zioten: «Nahi balin baduzue irau orai duzuen khartsutasunean, emazue ongi zuen buruari, goiz guziz, menturaz etzaretela arratsera helduko, eta arratsean ere, menturaz eztela biharamunik izanen zuentzat».

Bertze mintzaldi batean ere erran zioten bere fraide maite hekiei: «Ifernuko izpiritu gaixtoek badute aiherkunde edo malezia handia giristino guzientzat, bainan eztetzazkete jasan nihola ere komentuan bizi direnak. Hortakotz ezta egiten eztutenik hekien galarazteko. Bainan beren amarru guziarekin ere eztire deusik hari, fraidek eta serorek, ezagutzen balin badute ongi beren ez-deustasuna, eta Jainkoaren ganik bakharrik igurikitzen badituzte beren salbamenduaren egiteko graziak».



Horrelako irakaspenez eta zaraman bizitze sailduaz argitu zituen luzez ikasleak, eta aintzina ere hari zen lan berari, jakin zuenean berria, Erromako enperadoreak hari zirela Esiptoan atxeman zetzazketen giristino guzien preso altxarazten eta hilarazten.

Eta ordu berean, joan zen hura ere Alekzandriako hirirat, egiten zuelarik bere baithan, agian-agian emana izanen zitzaiola, hari ere, bere odolaren ixurtzea Jesus Jaunarentzat.

Bainan ez! etzuten preso altxatu, nahiz bertzek ez-bezalako jaunztura zuhail batez bezitua zen, eta bazabilan buruegoen artean gaindi, eta giristinoak hilarazten zituzten tokietan ere bai, hekiei errateko jasanarazten ziozkaten pairamenak eta oinhazeak apur edo ixtant batez zirela, eta aldiz pairamen hekiei bidez irabaztera zohazin sariek eta zorionak etzuketela nihoiz akhabantzarik.

Etzuen beraz izatu martir hiltzeko zoriona. Eta, Konstantin enperadorea atheratu eta altxatu zenean giristinoen alde, san Antonio joan zen bere fraidetarat. Hargatik handik goiti, bakharrik zagon ahalaz, non etzen agertzen, beren beharrez, harren gana ethorri zitezkenen gatik. Eta, jende dohakabe hekiei sokhorriteko, egiten zituen noiz-nahi mirakuilurik handienak.

Bainan gero, nola laudorio eta ohore handiak ematen baitziozkaten, joan zen ihesi eta gordetzera handik urrun ziren mendi arte batzuetarat.

Uste zuen han bederen izanen zuela bakea, eta etziola nihork laudoriorik emanen. Ordean etzen oraino ere aski urrun, ez-eta aski toki gaitzean. Jendeak atxeman zuen mendi hartarako bidea ere. Eta hortakotz saildu handi hura igan zen mendi gain baterat, eta han bizi izatu zen, zenbeit denboraz bere ohiko penitentzietan.

Ehun eta bortz urthe bazituen jakin zuenean bere azken eguna hurbildua zuela. Orduan egin zuen bere ikasletarainoko bat, hekiei egiteko gomendio batzu. Gero, nola baitzituen bi fraide berekin zauzkanak, egun hetan, hekiei manatu zioten ehorts zezatela haren gorphutza nihork etzakitien tokian; eta haren arimak hautsi zituen lurrari estekatua zadukaten lokharriak, joaiteko bizitze bat hain aberatsaren bidez irabazi zuen zorionaz gozatzera.

Irakaspena

Behin san Antoniok ikusi zuen, amets miragarri batean, ifernuko izpiritu gaixtoek estalia zaukatela lurra, eta etzela nihon ageri arima hartzeko sarerik eta sarerik baizen.

Atzarri zenean, oraino ere dena ikharetan, hasi zen oihuka: «Hoinbertze etsaiei, nor espakatuko ahal zaiote? Nor da salbatuko ahal dena?».

San Antoniok ikusi zuena etzen osoki ametsa.

Ezen ihiztariek ihizi hartzeko hedatzen dituzten saren edo arten pare dire, salbatu behar diren arimentzat, munduko urguilua, mundutarren erranak, irriak eta trufak, mundutarren bekhatuak eta eskandalak.

San Antoniok ikusi zuen nekhe izanen zitzaiola, munduan egonez, sare hetarik batzutara edo bertzetara ez erortzea; eta hortakotz athera zen mundutik, nahiago zuela egin bere arimaren salbamendua, gostarik ere gosta ziteken guzia, ezen-ez, lurreko aisien eta atseginen erdian egotu ondoan, ehortzia izan ifernuko leze ikharagarrietan.

Guk ere aski ginuke menturaz begiratze bakhar baten egitea ikusteko bizi garela, munduaren erdian, lanjerrik batere ezpaginu bezala, eta menturaz jarri garela askotan lanjerean gure nahitara. Eta gero, zer gertatu zaiku? Bekhatuan erortzea.

Hemendik aintzina, urrun gaiten bekhatuzko okasione guzietarik, utz dezagun mundua bazterrerat, jarraik gaiten othoitzari eta sakramenduei, eta segur da Jainko Jaunak emanen darozkigula salbatzeko behar ditugun grazia guziak.



Urtharrilaren 20ean
SAN SEBASTIEN SOLDADUA
Martir hila 286an

Sebastien sortu zen Frantzian, Narbonako hirian. Saindu hunen burasoak hiriko lehenetarik ziren. Horren gatik, adinetarat heldu zenean, igorria izatu zen Milaneko eskoletarat; eta berantxago sartu zen soldadu Dioklezien enperadorearen armadetan; ez, berak hala nahiagoz, bainan legeak manatzen ziolakotz.

Sebastienek bazuen odol bere zainetan, bertzalde ongi egina zen; eta hortakotz, denbora laburrik barnean, enperadoreak ezarri zuen bere goardiako soldaduen aintzindari.

Handik laster, Dioklezien joan zen bera iruzkirako eskualdetarat, ezagutarazirik Erromako enperadoretzat Makzimien; eta gero bi enperadoreak hasi ziren atxeman zetzaketan giristino guzien hilarazten, giristinoak izatu balire bezala hekien etsai egjazkoak.

Sebastien ere giristino zen ordukotz. Eta, batere gorde gabe soldadu aintzindari bat zela, bazabilan laguntza beharretan zitezkelako jakiten zuen giristinoen ikusten.

Behin beraz altxatu zituzten preso bi etxeko seme handi, bi anaia, jadanik ezkonduak zirenak; eta etzen egiten etzutenik bi hekiei beren erlisionearen arbuiazteko.

Lehen-lehenik joan zitzaizkoten beren adixkideak erratera, balin bazuten zentzurik edo bihotzik, utziko zutelako, bederen zenbeit denborarentzat, beren erlisionea, eta etzutela ezarriko beren etxea gaineko-azpi eta bethiereko nigarretan.

Bi anaia hekiei joan zitzaizkoten oraino beren burasoak, andreak eta haurrak, eta denek erraten zioten: itzul zitezela gibelerat, utz zezatela beren erlisionea; amak kontatzen zioten zenbat atsegabe eta oinhaze hartu zuen hekientzat, aitzak galdetzen zioten: «Jan bada, etzitzaioten urrikalduko, bederen bere adin handiaren gatik, ala nahiago zuten hilarazi eta hobian ezarri»; emaztek: «Zergatik behar zuten hain goizik alhargundu»; haurrak ere nigarrez zauden, eta heien mintzoak erdiratzen zioten bihotza bi aita hekiei.

Mark eta Marzelien han zagozin beraz jende hekien solhasen eta nigarren gatik jadanik kordokatuak, Sebastien kapitaina ethorri zitzaiontenean.

Sainduak ikusi zuen laster ahide heien nigarrek eta othoitzek hautsi ziotela bihotza; eta erran zioten:

«Zuek, Jesu-Kristoren soldadu loriosak, beautzue oraikoan etsaiak etzaitzaten garhait. Ahide batzuen nigarrek eta hasperenek, haur batzuen auhenek eta heia Gorek hautsirik ere emakume batzuei bihotza, ezta hortaz nihork deusik erranen.

»Bainan gizonaren indarrak emaztearenak ez-bezalakoak dire; eta halaber eginbideak.

»Zuek orai egin behar duzuen, hau da: adiaraztea, ahide eta atze, hemen diren guziei fedea argitua eta karitateak sustatua den giristinoak baduela aski indar traba guzien gainetik joaiteko, eta bere lege sainduaren atxikitze nigar eta othoitz guzien gatik; bai eta, oinhaze eta tormenta guzien gatik ere.

»Baduzue hauta. Behar zarete berexi zuen ahidetarik edo Jesu-Kristoren ganik. Eta nahiago bazarete berexi Jesu-Kristoren ganik, galduak dituzketzue orai arte egin dituzten irabazi guziak.

»Bainan ez! etzaitzue holakorik gerthatuko! Eta zuen ahiden amodioak eztaozue burregoen tormentek baino kalte gehiago eginen».

Gero, ematen zelarik han ziren guziei buruz, erran zioten:

«Zuek, hemen zareten jende onak, emazue kontu zer hari zareten. Ezta ongi zeruko loria galaraz dezazuen Jesusen soldadu batzuei, heiekin zenbeit egunez bizitzeko atseginaren gatik. Eztakizuela ere gaitzi, zeren badohazin mundu huntarik zuek hemen utzirik. Zuei bidearen egitera dohazi; eta horiei esker, zuek ere izanen duzue zeruko loriarantz heltzeko grazia.

»Eztezazuela beraz nigarrak egin, bainan, lehenagorik ere, izan zaitzte bozkario saindu batean».

Ordu berean Jainko Jaunak eman zioten aditzerat han ziren guziei onesten zituela Sebastien sainduaren solhasak; ezen argidura ader batek hartu zuen hek zauden barnea, eta Jesus maitea agertu zitzaion Sebastieni zazpi aingeruren erdian.

Hainbertzenarekin sei urthe hetan mintzoa galdua zuen emakume batek, Zoe presondegi-zainaren andreak galdetu zuen bathaioa.

Sebastienek, jakin zuenean andre hura mutu zela aspaldi hartan, ihardetsi zion: «Baldin-eta, ni, Jesus Jaunaren zerbitzari bat banaiz, eta egjazkoa bada nik predikatzen dudana erlisionea, Jesus Jaun harrek berak laxa dezautzula mihia, eta eman dezautzula mintzoa».



Hitz horiek erratearekin batean, egin zion gurutzearen seinalea, ezpainen gainera, eta ordu berean hasi zen mintzatzen ematen ziozkalarik eskerrak eta laudorioak Jesu-Kristo gure Jaunari.

Haren senharrak, ikusi zuenean bere andrea sendatua, barkhamendu galdetu zioten Marki eta Marzeliani, zeren preso atxiki zituen; erraten ziotelarik itsu egotua zela ordu arteraino; zohazila beraz etxerat edo nahi zuten tokirat, etzitzaiola sobera pairatzea ahal zen guzia, Jesus Jaunaren gatik.

Orduan oraino, Mark eta Marzelianen burasoak ere ikusi eta ezagutu zuten hekien semek adoratzten zuten Jainkoaz kanpo eztela bertze jai-korik, eta hortakotz galdetu zuten bathaioa. Eta hek bezala egin zuten bi martir saildu hekien andre, haurrek eta sehi guziek.

Bertzalde baitziren presondegian hamazazpi gaixtagin, Sebastien saildua mintzatu zitzaizoten hekiei ere gure erlisioneke egiez, eta hek ere eman ziren zerurako bidean; eta, berantxago, denek eman zuten bizia Jesus Jaunarentzat.

Egun hetan ifernuko izpiritu gaixtoek harrarazten zioten su berri bat, eta egiazko errabia ere bai, gobernadore eta juie guziei. Izpiritu gaixto hek egin bide zuten elkharren artean, behar zutela ikusi, ian bada, etzuten galarazten ahal gure Erlisione saildua. Bazen beraz hainitz giristino hiritik kanpo zohanik, burregoen eskuetarar ez erortzea gatik.

Sebastien aldiz ibili zen ordu arteraino bezala, presondegiz-presondegi, eta giristinoak lagun zetzazkela uste zuen tokietan; bazakielarik arras ongi edo-zein salhatarik ezartzen ahal zuela juiearen eta burregoen eskuetan.

Erran nahi baita, berantetsia zela noiz ethorriko zitzaion bere bizia Jesus Jaunarentzat emanen zuen oren maitea. Azkenean salhatua izatu zen Diokleziani berari, Erromara ethorri zen aldi batez.

Enperadoreak jakin zueneko berri hori, deitu zuen bere aintzineran, eta erran zion koleraz sutan zelarik:

«Horra beraz, Sebastien, nola behar hituen pagatu nere ongi-eginak! Nere ongi-eginez ez hintzen baliatu behar, baizik ere giristino gisa bizi-tzeko nere etxean berean; eta gero, gure jainkoen koleraren jautsarazteko gure armaden gainerat».

Sebastien sailduak ihardetsi zion ezti-etzia. «Enperadore Jauna, eztakizula gaitzi bi hitzen entzutea. Ez nagoke, zuri erran gabe, nere egin-ahal guzian, bilhatu dudala bethi zure eta zure meneko diren guzien ona. Eta hori nion galdetzen, egun guziz, gauza guzien Egile eta Nagusi den gure Jainko Jaunari.

»Ezen banakien gaizki handia dela harri batzuen adoratztea, eta laguntza zerbeiten galdetzea bizi ere ez-tiren gauza batzuei».

Sebastien hitz horiek ezarri zuten enperadorea kolera handiagotan, eta manatu zioten soldaduei hilaraz zezatela.

Soldaduek estekatu zuten zuhain bati; eta gero, saeta ukhaldika, zil-hatu eta funditu zioten gorputz guzia. Azkenekotz odola zarion alde guzietarik. Bazuela beraz aski, hila zela, soldaduak joan ziren etxerat. Eta hiri guzian banatu zen berria, Sebastien kapitaina hila zela.

Ilhun ondoan emakume saildu bat, Irena deitzen zutena, joan zen bertze lagun batzuekin san Sebastien utzia izatu zen toki hartara, behar zuela ereman handik, eta ehortzi bertze martiren aldean.

Bainan nolakoa etzen izatu haren atsegina ikusi zuenean Sebastien bizi zela oraino.

Hilerrirat ereman orde beraz, ereman zuen bere etxerat, eta hain ongi arthatu, non, zenbeit egunen buruko, osoki sendatua baitzen.

Orduan giristinoek erran zioten behar zela atheratu hiritik, bederen zenbeit egunentzat; bertzela, berriz ere preso hartua izanen zela, agertu bezein laster. Bainan saildu handi harrek etzuen bertzerik nahi baizik ere bere odolaren ixurtzea Jesus Jaunarentzat lehen-bai-lehen.

Eta hortakotz, hiritik atheratu-orde, joan zen enperadorea iragan behar zela bazakien toki batera. Han iguriki zuen apur bat; eta gero, iduritu zitzaionean aski hurbil zuela, erran zion:

«Enperadore Jauna, jakin zazu gaizki egiten duzula zure tenploko apezen solhasei behatzea, gutaz mintzo zaitzunean. Gezurrez bethetzen zaituzte, erraten darotzutenean giristinoak direla zure etsaiik handienak.

»Giristinoak ez-tire zure etsaiak, aitzitik bai zure zerbitzaririk hobere-nak; hekien othoitzei esker zarenaz geroz garhaitiar, zure gerla guzietan».

Dioklezien harritu zen horrelako solhas batzuen entzuteaz, hila zela uste zuenaren ahotik. Egotu ondoan beraz mintzorik ere gabe, eta ezin jakinez, ian ametsetan zen, ala Sebastien zuen bere aintzinean, erran zion: «Hi haiz Sebastien, ni-neronek ikusi dudana dena odoletan, eroria eta hila? Eta hila bahintzen, zergatik nahi darotak iduriaz bizi haizela?».

Sailduak ihardetsi zion: «Jauna, bizi naiz Jesus Jaunak iduki edo atxiki darotalakotz bizia, hemen erran ahal nezan, mundu guziaren aintzinean, gure Erlisione sailduak eztuela irakasten egiarik baizen; eta bertzalde, denek ezagut ahal dezaten zure gaixtakeriak zein diren handiak.

»Zu, hobenik xumerena ere ez-tuten jenden hilarazten hari zarena, nonbeit geldi zaitte! utzazu lan hori, bederen nahi balin bazare luzez bizi, nahi balin baduzu zure nagusitasunak luzez iraun dezan».



Ihiztariak kolpatu baizik eztuen hartzak edo tigreak eztu su gehiagorekin jauzi egiten kolpatu duenaren gainerat, nola Dioklezienek egin baitzuen solhas horiek entzutean.

Manatu zuen beraz jo eta fundi zezatela azote eta makhila ukhaldika; etzitezela geld, bainan jo zezatela hatsak ziraueno.

«Eta horra, nola Jesusen soldadu leial harrek utzi zuen azkenean lur hau, joaiteko bere guduka sainduz irabazi zituen sariez gozatzerate eternitate guzian».

Dioklezienek eztuen nahi gehiago ager zakion. Hortakotz atxiki zituen soldaduak gorputz harren zain; eta gero, ilhundu zuenean, arthikarazi zuen hiriko zikhinkeriak arthikitzen ohi zituzten zilhorat.

Bainan, Jainkoaren nahia hala zelakotz, gorputz maite hura, zolaraino jautsi orde, gelditu zen dilindan krako batetik. Eta, gau hartan berean, giristinoek ereman zuten eta ehortzi beren hilerrian.

Seigarren mendean, bazen Erromako hirian izurrite handi bat hainitz jende hilarazten zuena. Hiri guzian egin ziren othoitzak saindu hunen arartekotasunaz, eta ordu berean izurritea gelditu zen.

Egundaino geroz saindu hau deitua izatu da behar-ordu handietan eta bereziki izurrite denboretan.

Irakaspena

Saindu hunen bizitzeak irakasten daroku lehen-lehenik, eztugula utzi behar bazterrerat gure salbamenduaren lana edo-zein bizipidetan izanen bagare ere.

Sebastien soldadu zen, eta ekharria bere aintzindarien manuen arabera egitera, non-eta etzioten manatzen gaizkia. Bainan gaizkia balin bazen, edo, batera dohana, bekhatua manatzen ziotena, orduan eztuen ahanzten zer agindu zion Jainko Jaunari bere bathaioko egunean, eta egin zuen bere kontzientziako mintzoaren arabera.

Saindu hunen bizitzeak ematen daroku oraino bertze irakaspén bat.

San Sebastienek bazuen egiazko fedea edo erlisionea. Bazakien giristinoari etzaiola galdetua bakharrrik bere Jainkoaren maitatzea bere baithan eta nihork ezagutu gabe, bainan gure egintzetarik ere behar gaituztela ezagutu Jainkoaren zerbitzariak garela.

Horra zergatik zabilan etxez-etxe eta presondegiz-presondegi, giristino lagunén sokhorritzen, eta giristino berriei eta paganoei gure Erlisioneko egia sainduen ezagutarazten.

Eta guk, zer egin dugu orai arte, bekhatorosen konbertiarazteko, jende gazten bekhaturako bidetan sartzerat ez uzteko, eta Jesus Jaunaren ezagutarazteko eta maitarazteko? Gu-geronek zer egin dugu gure jaidura gaixtoen galarazteko, eta Jesusen nahiaren arabera bizitzen hasteko?

Ondikotz! laster ikusia dugu, gurea ez-bezalakoa zela Sebastien sainduak Jainkoarentzat zuen amodioa.

Galde dezogun bederen lagun gaitzala Jesus Jaunaren gero eta hobeki ezagutzen eta maitatzen, ezagutarazten eta maitarazten.



Urtharilaren 21an
SANTA AINES EDO ANETA,
BIRJINA ETA MARTIRA
Hila laugarren mendearen hastean

Santa Ainesen etxea ezagutua eta aipatua zen Erromako hiri guzian. Halakoak zirelaketz Andre gazte hunen burasoak eta buraso hekien onthasunak.

Bertzalde Ainesek ere bazuen bere baithan munduak maite eta bil-hatzen duen guzia. Aines guziz begikoa zen.

Bainan, nola oraino giristino baitzen, eta, gehiago dena, Jesus Jaunari emana edo kontsekratua adimendutarat heldu zeneko, bera etzen kontu hari, edo bertze hitzez, berak etzuen axolarik ez izenez, ez onthasunez, ez munduak haren baithan ederresten zuen gorputzeko eta begitarteko egin-duraz.

Hamalau urthetarat zohalarik Erromako asko Aitoren-semek egiten zuten jadanik beren baithan, agian emana izanen zitzaiotela haur harren izatea beren laguntzat.

Bertzeak-bertze izena Prokope zuen gizon gazte batek ere, orduko gobernadorearen semeak, ikusi zuen behin eskolatik etxerat zohala, eta ordu berean gogoak eman zion hura zela harrek behar zuen lagun-gaia. Handik goiti, etzuen bertze ametsik baizik-ere Aines behar zuela andretzat.

Bildu nahiz beraz haur gazte hura, hari onetsarazi beharrez bere nahia, haritu zen lehenbizian adiskide batzuen ariaz; gero aldiz, ikusi zue-nean bitartekoek etzietela berri onik ematen, abiatu zen bera. Eta, emana izatu zitzaionean harrekin buruz-buru egitea, mintzatu zitzaion, ezta zarioten solhas samur batzu erraten ziozkalarik.

Ordean Aines etzen trikatu edo baratu ere; Ainesek etzuen begirik altxatu ere; bainan, aintzina zohalarik bere bidean lehia saildu batekin, ihardetsi zion:

«Urrunt hadi nere ganik, ifernuko iletu dohakabea. Nere bihotzak badik hitaz bertzelako nagusirik; nere bihotza emana zioiat, ez printze bati, bainan bai, Errege bati, eta etzioiat hitza janen».

Egunaren erditan, eta hedoiik gabeko zerutik, aldera eror lakikegun ozpinak edo ihurtzuriak ezkinetzazke hala nahas eta izitaraz, nola solhas horiek egin baitzuten gizon gazte hura.

Zoratua beraz, eta jakin gabe non zabilan, ez zer hari zen, joan zen etxerat. Etxean hala-hala egotu zen, janik ez edanik gabe, lo pixkarik ere egin gabe, eta gero eritu.

Mirikuek adiarazi zioten Prokopen burasoei, heien semeak bihotzean zuela bere gaitzaren erroa, eta, ardiesten ahal bazioten hark nahi zuenarekin ezkontzea, sendoa zela.

Gobernadoreak ekharrarazi zuen beraz bere aintzinerara Aines gaztea, eta erran zion:

«Nor zare, zu? nere semearen bazterrerat uzteko? Zu, zer zare? horrela iduriarazteko Erromako gobernadorearen semea bera ezte la aski zuretzat?».

Ainesek ihardetsi zion: «Gobernadore Jauna, alfer duzu mintzatzea. Nere begiek eztiote eginen begiraterik ez zure semeari, ez bertze nihori; ezen nere bihotzak eztiote eskerrik, ez lur huntako onthasun iragankorrei, ez handikeria ustelei. Behin ezagutu eta maitatu dudan Jaunarentzat izanen da bethi nere bihotza».

Gobernadorea ere harritu zen, eta etzakeien zer erran haur hari, nor-beitek adiarazi zionean Aines giristino zela.

Berri hori eman zionak atsegin egin zion, eta handizki halere. Ezen denbora hetan aski zen gobernadore edo juie izatea, nahi zen guziaren egiteko giristinoez. Dena boztua beraz, eta begietarik sua pindarra zariola, erran zion berriz ere Aines sailduari:

«Aines, huna nere azken hitzak: ezkonduko haiz nere semearekin, edo behar dun arbiatu giristinotasuna. Eta erraten badarotan, ez tunala eginen, hik, bat ez bertzea, jakin zan gerthatuko zaonala eder eztena. Igortzen haut etxe tzar baterat biluz gorria. Orai, hor ikus».

Santa Ainesek ihardetsi zion:

«Ageri da zure semeari eta zuri, bie gaitzitu zaitzuela nere solhas hau, jadanik emana niola nere bihotza zuek ez-bezalako jaun bati. Bai, Jesus Jaunarena naiz, eta bakharrik harena.

»Zuk baitiozu beharko dudala ikusi eder eztena; bai, egia da nere bizia zure eskuetan dela, bainan ezartzen baninduzu ere, tigreak berak baino areagoko gizonen aztaparretan, baduket zuk uste ez tuzun zaintzailerik, eta orhoit zaite nere erranaz, nihork ez nau ukituko; ez nihork-ere».

Gobernadoreak, kasurik egin gabe birjina saildu harren hitzei, manatu zioten burregoei, ken zetzotela arropa guziak, eta ereman zezatela karriz-karrizka tzarkerietako etxe baterat. Etzuen amesten nolako bihotzminak behar zituen bere lan harren gatik.



Burregoek kendu ziozkaten beraz arropak, bainan ordu berean buruko ilea hala handitu eta emendatu zitzaion, non estaltzen eta gordezen baitzion ederki gorputz guzia.

Gero, heldu zenean ezarri nahi zuten etxe hartarat, Aines sainduak ikusi zuen eman zioten gela edo ganbara hartua zela zerutikako argi batek, eta bertzalde, aingeru eder bat bazagola han, ganbara harren erdian, suzko ezpata bat eskuetan, eta oraino, soin bat elhurra bezein xuria.

Ainesek jauntzi zuen atseginekin soin hura, eta eskerren ematera zohan Jesus Jaunari, gizon gazte galdu batzu agertu zirenean ganbarako athearen gainean. Bainan etzen nihor menturatu barnago sartzera, gela hartako argiak izitzen zituelakotz.

Bertzen ondotik agertu zen Prokope bera. Itsutua osoki lohikeriaren lanhoek, hark etzuen konturik eman, ez gela guzia hartzen zuen argiari, ez Ainesek zuen soin xuriari; eta haur gazte hari buruz zohan, kopeta beltzik, aingeruak jo zuenean, eta han berean arthiki hil-gogorra.

Kanpoan egotu zirenak, etzirelakotz beldurrik gabe, hurbildu ziren berriz ere ganbarako athera. Eta etzen ttikia izatu hekien izialdura, ikusi zutenean gobernadorearen semea eroria zabal-zabala, eta jadanik osoki hila?

Bainan nihola ere adiaraz eztezakeguna hau da, nolakoa izatu zen gobernadorearen bihotz-mina, jakin zuenean bere semea hila zuela.

Zoratua bere seme harren galtzeaz, joan zitzaion ordu berean Aines sainduari. Eta bere lehen su mindu hartan erran zion ahora ethorri guzia.

Ainesek aldiz ihardetsi zion ezti-eztia: «Prokope hila bazen ere, etzuela harrek hobenik; Jainkoaren aingeruak jo zuela, menturatu zelakotz, bertzeak ez-bezala, ganbara hartan sartzerat; bazakiela berak zertako».

Ematua edo fazegatua solhas horiez, Gobernadoreak erran zion: «Hori hola balin bada, Aines, zuri nago, othoi urrikal zakizkit. Egiozuo othoitz zure Jainko Jaunari, pitz dakidan nere seme maitea».

Santa Ainesek ihardetsi zion: «Ez lohautzuke holako graziaren iza-tea, egin behar zarotedenaz geroz, zure baiarekin eta zure manuz, gaizki bat hain handia. Halarik ere othoitz eginen dut eta ikusiko dugu».

Hitz horiek erran ziozkanean, eman zen belhauniko, egin zuen othoitz labor bat, eta han baitzen jende keta handia Prokoperi begira zagona harritua, gizon gazte hura piztu zen jende hekien guzien aintzinean. Eta erraten zuen goraki etzela Ainesen Jainkoaz kanpo bertze Jainkorik; girstinoek adoraten zuten Jainkoa zela egiazko Jainkoa.

Bainan gobernadoreak, ikusi duenean bere semea piztua, eta entzun dituen solhas horiek bere semearen ahotik, ez othe du harrek ere eza-

gutuko eta aitortuko sinesten duela gure Jainkoak dituela merezi gizonaren ohoreak eta adorazioneak?

Ez! Prokopen aita itsumendu handiegian zen. Igorri orde beraz etxerat Aines saindua, ezarri zuen bere ordain Aspazio zeritzan edo deitzen zuten gizon bat, eta bera zen joan etxerat bere semearekin.

Aspaziok, ikusi zuelakotz alfer zela mintzatzea ere gehiago, pitzarazi zuen su handi bat, eta hartarat arthikarazi birjina gazte hura.

Bainan haren bihotza garbiegi zen lur huntako atseginen amodiotik, suak hari minik egiteko.

Egur guziak erretzen hari zirelarik beraz, eta jendea hari begira zago-larik xoratua, Aines hasi zen Jainkoaren laudorioen kantatzen eta hari eskerren ematen, ziolarik:

«Jainko guziz botheretsua, onets zazu eman dezaitzudan nere adorazioneak eta ohoreak, zeren, zure Seme Jaunari esker, garhaitu ditudan etsaiaren tentazioneak, ezartzen nuelarik zangoen azpian lurreko atseginen amodioa.

»Zuri eta zure Seme Jaunari esker oraino, izar-ihintz gozo bat jautsi da nere gainera. Hortakotz suak ezto izatu indarrik ni erre nahi nindute-mentzat baizik. Eta orai hiltzera doha niri minik ttikiena ere egin gabe.

«Oi, Jainko bazter guziek ezagutu behar zintuzketena, izan zaite ere laudatua eta benedikatua zeren eman darotazun aski bihotz, zuri buruz ethortzeko, suak batere lotsatu gabe.

»Orai ikusten dut nere begiz fedeak erakusten zarotan egoitza dohatsua, eta berehala han izanen naiz. Ethortzen nazaitzu beraz; nere bihotzak ezto onik, non ezten zurekin zure zeruko lorian.

»Jaun ona, ordu da, urrikal zakizkit, har nazazu zure ganat».

Solhas horiek entzutean jendea hasi zitzaion oihuka Aspaziori, zer gaizki egin zuen haur gazte harrek hilarazteko eta bizirik erre nahi izateko.

Orduan gobernadorearen kapitaina beldurtu zen eskuetarik kenduko ere bazietela, eta hortakotz kondenatu zuen ezpataz hiltzera.

Ainesek ikusi zuen beraz azkenean haren mundu huntako egunak akhabatzera zohatzila, eta bozkarioak bihotzetik gaindi egin zion. Bazakien alabainan notharik gabe den Bildotxaren eternitateko ezteietarat zohala; eta aldiz harren inguruan zirenetarik hainitzek eta hainitzek bihotza hautsia eta erdiratua zuten; nigarrez ere zagozin, ikusiz andre gazte harrek zein axola guti zuen lurreko gauza guziez, eta nolako su saindua bere Jesus Jaunarentzat.

Heldu zirenean hil behar zuen tokira, Aines sainduak egin ziozkan Jainkoari bere azken othoitzak; eta gero, jarri zen burregoaren eskuko.



Belhaunikatua eta burua apaldua, ezpata kolpearen beha zagon, ohartu zenean burregoa bera ikhara daldaretan zuela, eta ezin mentura zitekela besoaren altxatzera; erran zion beraz:

«Zeren beha zaude? zergatik ez nauzu joiten? Zuk, egizu zure lana; ken diezadazu bizia, utz dezadan gizonak ikus eta maita dezaketen gorputz hau, eta nere arima joan dadin bere espos guziz maitearen ganat».

Orduan berriz ere apaldu zuen burua, eta, ezpata kolpea izatearekin batean, haren arima saildua joan zen zerurat bere birjinitatearen eta martiriaren gatik hartzen zuen bethiereko zorionaz gozatzeraz.

Irakaspena

Andre gazte batek, hamahiru urte baizik eztuelarik, ezartzen du zangoen azpian munduan maite eta bilhatzen den guzia.

Andre gazte bat badoha, bihotza alegerarik eta irria ezpainetan, tiranoen eta burregoen biderra; eta egiten du, josteta hari delarik, munduan izan zetzazken abantail guzien sakrifizioa, bai-eta biziaren beraren sakrifizioa ere.

Zergatik?

Bere birjinitate sailduaren begiratzea gatik.

Horra fede egiazkoak zer indarrak ematen dituen. Horra zer egiten den egiazko erlisionearekin, eta nahi denean baliatu Jainkoaren graziez.

Guk ere, badakigu behar garena zeruko loria hartarat heldu, badakigu Jesus Jaunak ixuri duela bere odol guzia guri zeruko loria harren merezitzeko. Eta dugun fede horrekin, eta Jainkoak ematen darozkigun graziaz guziekin, zer egiten dugu gure jaidura gaixtoei jazartzeko, eta gure aztura edo kostuma txarren hausteko?

Gauza gutti! Deusik ez!!!

Guk, nahiago dugu abantail eta atsegin ezdeus batzuz gozatu orai berean, ezen-ez, bethiereko mendetan, Jesus Jaunak merezitu darozkigun ezin erranezko atseginez eta zorionaz.

Zer zoramendua!

Ez, eztugu aski fede! Jaun ona, emenda diezaguzu fedea!

Urtharilaren 21ean JONDONI MURTHUTS ETA HAREN BI LAGUNAK

Martir hilak 259an

Galien eta Baleriano Erromako enperadorek, hilarazten hari zituztelarik giristinoak eskualde guzietan, Espainia Tarragoneko hirirat ethorri zen, hango gebernadore bezala, Emilien zeritzan gizon bat.

Denbora hetan Murthuts saildua zen hiri hartako apezpiku; eta hura zen Jesusen soldadu khartsu bat ongi handia egiten zuena bere predikuez eta bere bizitze sailduaz.

Gobernadoreak, jakinki etzela deusik hari giristino zenbeit hilarazirik ere, hekien aintzindariak bizirik uzten balin bazituen, manatu zioten sei soldaduri zohatzila gabaz aintzindari hekien preso hartzera.

Jondoni Murthuts ohean zen soldaduak hasi zirenean athei joka. Bainan, oinetako-herresta batzuekin, joan zitzaieten bera gizon hekiei, zer nahi zuten.

Soldaduek ihardetsi zioten: «Guk nahi duguna da ethor zakizkiguten gobernadorearen gana, zu eta zure bi lagunak».

Ongi da, erran zioten Sailduak, zuen eskuko nauzue, eta nere bi lagunak ere erreki atxemanen tutzue. Hargatik nahi baninduzue iguriki apur-apur bat, ezar netzazke abarkak eta zalhuago kurri nezake.

Soldaduek ihardetsi zioten berriz ere: «Bai-bai, ezarraitzu abarkak zure gustura, joanen gare prest zaretenean».

Jondoni Murthutsek erran zioten Agurio eta Ulosio bere bi diakrei hekien eguna ethorria zela, soldaduak han zituztela bilha. Lotu zituzten beraz hiruek beren oinetakoak; eta, soldaduen artean, joan ziren gobernadorearen etxera, edo hobeki presondegirat.

Biharamunak argitu zuenean, hedatu zen laster berria apezpiku saildua eta haren bi diakreak preso altxatuak zirela. Giristinoak bildu ziren beraz gazteluko athetara; eta nola aintzina ere preso baitaduzkaten giristinoak ere han berean egotu ziren, beren nigarrez eta hasperenez adiarazten zituztelarik zein zuten maite beren apezpiku saildua.

Bertzalde, atseginekin iraganarazten zioten Jesus Jaunaren soldaduei, haizeari eta denbora gaixtoei idekia zen presondegi hartan, bizitzeko behar zutena.



Murthuts saildua batean othoitzean zagon eta galdua bezala Jainkozko gauzetan, eta aldiz bertze batzuetan, mintzo zitzaioten giristino hekiei eta presondegian ziren guziei. Eta haren solhasek aree hobeki sustatu zituzten giristinoak Jainkoaren amodioan, eta asko pagano ere konbertiarazi zuten.

Horrela joan ziren lehen bortz egunak. Seigarren egunean gobernadoreak agerrarazi zituen bere aintzineria hirur martirak, eta galdetu zion Jondoni Murthutsi: «Badakik, bai-ala-ez, enperadorek manuen berri?»

»—Nik dakidana, eta dakidan baxharra da giristino naizela.

»—Enperadore jaunek manatzen zioie jende guziei adora detzaten baitezpada gure jainkoak.

»—Nik adoratzen dut zeru-lurak, itsasoa eta munduan diren gauza guziak ez-deusetarik egin dituen Jainkoa.

»—Bainan badakik badela bertze jainkorik ere?»

»—Nik ez.

»—Jakinaraziko daiat».

Ikusi zuenean etzuela gehiago mintzatzerik, Sainduak altxatu zituen begiak zerurat Jainkoari eskerren bihurtzeko eman zion kuraiatz, eta ordu berean othoiztu zuen etzadiela urrunt hekiek ganik.

Gobernadora ere, dena sutan, erranak izatu zitzaizkon solhasen gatik, hari zen oihuka, ziolarik: «Jendea nori behatuko zaio, noren beldur izanen da, jendeak nor adoratu du, ezpaditu ohoratzen gure jainko handiak, eta adoratzen enperadorek iduriak?».

Orduan, Agurio diakreari buruz ematen zelarik, erran zion: «Bederen hik eztezakala konturik egin Murthutsen solhasei. —Nik ere eztut adoratzen bertzerik, baizen Jainko guziz botheretsua», ihardetsi zion saildu harrek.

«Eta hik Ulosio, erran zion gobernadoreak bertze diakreari, zer eginen duk? adoratzen hik ere Murthuts? —Ez! eztut adoratzen Murthuts; bainan bai Murthuts nere apezpiku jaunak adoratzen duen Jainkoa».

Hunen gainean gobernadoreak galdetu zion Murthuts sailduari: «Apezpiku haiz hi?». «Bai, apezpiku naiz», ihardetsi zion Sainduak. «Erraten bahu apezpiku hintzela hobeki lukek»; egin zion tiranoak.

Eta, errabiarik handienean, manatu zuen errearaz zetzatela hirua.

Hiru sailduak errearaztera zaramanzkatelako berri horrek trixtarazi zituen hiriko jende guziak. Ezen, pagano eta giristino, denek maite zuten apezpiku saildua, ageri zirelakotz hura baithan Jondoni Paulok apezpikua baithan aurkhitu nahi dituen berthuteak.

Bizkitartean giristinoek bazakiten merezimendu handiak irabazten dituela bere odola Jesus Jaunarentzat ixurtzeko zoriona duenak; bazakiten beraz hekiek Apezpiku saildua guziz botheretsu izanen zela Jainkoaren aintzinean, eta gogoeta horrek eman zioten kuraie eta kontsolazione.

Bidean haintzek eskaini zioten martirei edatera, on zuketela tormenten aintzinean ez izitzeko. Bainan Jondoni Murthutsek igurikitzen zuen oraino indar gehiago Jainkoaren ganik ezen-ez jenden edari guziatarik. Eta nola barur eguna baitzuten, eta ezpaitziren oraino hamar orenak baizik, joan zen aintzina, erranez etzirela oraino baruraren hausteko orenera helduak.

Iduri sobra zitzaioleta gelditzea edateko denbora bera ere, bazohazin lehia saildu batekin zerurako bidean, zeruan emana izanen zitzaioleta, ez baxharrik baruraren haustea, bainan igeri egotea Jainko Jaunak profetei eta martirei preparatuak dauzkan atsegin eta zorion ezin erranezkoen erdian.

Egur metaren aldera heldu zirenean, burrego bat hurbildu zitzaion san Murthutsi, eta erran zion, nigarra begian, othoi barkha zezola, bainan behar ziozkala kendu oinetakoak egur metaren gainerat igan baino lehen.

Eta Sainduak ihardetsi zion: «Haurra, utz nazazu, neronek errexxi eta atseginekin eginen dudan lana da hori; halakoak direlakotz Jainkoak egin darozkigun agintzak, eta zeruan guretzat dauzkan sariak, harrentzat gure biziaren emateko zoriona balin badugu». Hainbertzenarekin soldadu giristino bat ethorri zitzaion alde-aldera, eta, hartzen ziolarik esku eskuinta bere bi eskuen artean, othoiztu zuen orhoit zadiela hartaz zerurat heldu zitekenean.

Hitz horiek entzutean, gogora ethorri zitzaizkon giristinoek bazter guzietan zituzten guduka ikharagarriak. Ihardetsi zuen beraz han ziren guziek entzuteko gisan: «Lurraren gainean hedatua den Eliza guziaz behar naiz orhoitu, eta guzientzat behar dut othoitz egin».

Bertze norbeitek ere eman zion oraino aditzera behar ziotela agur edo adio bat egin han ziren giristinoei; eta itzulirik gibelat buruz erran zioten:

«Nere haurride eta haur maiteak, ikusten duzuen bezala, ni banoha, hala ere etzarete artzainik gabe izanen, maitegi zaituzte Jainkoak horrela zuen uzteko. Eta bertzalde gurekin izanen dela orai eta geroan ere bai, berak erran daroku. Bai, izanen duzuen nere ordaina, zaudetze beraz hazkar zuen Erlisione sailduan.

»Hemen piztera daramaten su hunek lazten eta harritzen zaituzte menturaz, bainan guziaren buruan zer da? ongi ezkaren batean, oren bat irauten duen oinhazearen pare».



Horrela hazi eta hazkarrarazi ondoan Jainkoaren amodioa girstino guzien bihotzetan, Jondoni Murthuts igan zen sakrifiziok aldarearen gainerat bere bi lagunekin.

Jainko Jaunak etzetzazken utz saristatu gabe hura baithan halako sinestea zutenak. Eta hortakotz emana izatu zitzaizoten lehenago Babiloniako suaren erdian ibili ziren hiru hurrek izatu zuten fagorea. Erran nahi baita, luzez ibili zirela suaren erdian batere erre gabe, eta Jainkoari eskerrak ematen ziozkatararik.

Hargatik azkenerat suak erre ziozkaten eskuetan zituzten lokharriak, eta orduan jarri ziren hiruak belhauniko begiak eta eskuak zerurat altxaturik, eta erran zioten Jesus Jaunari aski ongi ezagutaraziak zituela bere ontasuna eta botherea, uzten ahal zituela beraz hiltzera su harren erdian.

Jesus Jaunak entzun zituen hekien othoitzak. Ezen handik berehala hiru arima eder hek athera ziren beren gorputzetarik, joaiteko zeruko loriaz gozatzera.

Jainkoak egin zuen orduan asko mirakuilu bere zerbitzari hekien saildutasunaren hobeki ezagutarazteko. Azken hatsa eman zutenean, gobernadorearen etxeko bi esklabu girstinok eta gobernadorearen alabak, hiruek ikusi zituzten Jondoni Murthutsen eta haren bi diakren arimak joaiten zerurat distiradurarik handienean. Gobernadoreari ere hasi zitzaizkon oihuka, athera zadiela arima eder hekien ikustera, nahi zutelakotz ezagut zezan nolazpeit gaizki zela hobenik batere etzuten jende batzuen hilaraztea.

Bainan gobernadorearen begia etzen aski garbi saildu hekien loria- ren ikusteko. Harrek etzuen deusik ikusi.

Tarragoneko girstinoek bazakiten arras ongi martir sailduak zeruan zirela, eta hargatik trixte ziren; ez baitezpada galdu zituztelakotz, bainan zeren etzizaitzen emana hekiei ere Jesus Jaunarentzat beren odolaren ixurtzea.

Bada ilhundu zenean, oraino ere gorputz saildu hek han zirelakotz suaren erdian erretzen hari, girstinoak joan ziren, untzi batzuetan arnoa harturik; eta bakhotxak bildu zuen arno hartara atseginekin hezur edo haragi puska zerbeit.

Ordean ondoko gabean Jondoni Murthuts agertu zitzaizoten erlaki saildu hetarik beren etxean bazuten guziei. Saildua distiradura eder baten erdian zen eta begitarte on-on batekin.

Harren ikusteak eman zioten guziei kontsolazione handia. Bainan gero, zorion saildu batean ezarri ziozkatenean bihotzak, adiarazi zioten

etzela ongi parti zetzaten beren artean heien erlakiak. Aitzitik behar zituztela ezarri guziak elkharrekin toki berean.

Elizetan eta komentuetan begiratuak eta ohoratuak izatu dire beraz dohakoten ikustatearekin; eta girstinoek othoitz egin dutenean heien aintzinean ezagutu dute haintzetan Jondoni Murthutsek eta haren lagunek bothere handia dutela Jainkoaren aldean.

Irakaspena

Jondoni Murthutsek eta haren lagunek erraten darokute goraki beren etsenpluaz zer behar dugun egin munduak nahiko gaituenean zehiharrarazi zeruko bidetik.

Saildu hauk ekharriak ziren jasaiterat atseginekin su ikharagarri baten erdian izan zezaketen pairamen guzia. Eta hori, guk dugun Erlisione beraren begiratzea gatik.

Bere fedearen irakaspenen arabera hari denak ikus dezake beraz, gosta behar bazaio ere bethi eta bide guzietan girstino gisa bizitzeko, haintzak direla oraino hark baino gehiago egin dutenak.

Bainan ondikotz zenbat girstinok eztituzte ahanzten Jainko Jaunari behin baino gehiagotan egin diozkaten agintza sailduak. Eta gero, bazterrerat utziak othoitzak, komunioneak, eta batzuetan meza bera ere, bizi dire lazakerian, eta zeruaren merezitzeko deusik egin gabe.

Bertze batzuk, gerthatzen badire Erlisioneaz, sakramenduez eta Eliza-gizonez irri egiten eta trufatzen diren jenden aintzinean, egiten dute hek bezala irri eta trufa; aditzen balin badute hala ez-tiren gauzak erraten Erlisionearen gainean, orduan ere egonen dire menturaz burua apalduak ahalkez, ixil-ixila eta ahorik ideki ere gabe.

Horra nola asko girstino hobendun bilhakutzen diren.

Ian, guk ere ez-tuegun hunelako zenbeit bekhatu gure kontzientzian? Ian, etxean bezein girstino othe garen kanpoan? Eta har dezagun xedea egia- ren eta Jainkoaren alde gabela erakusterat emateko gure bide guzietan, orhoituz Jesus Jaunaren hitz hautaz: *Bere nausitzat ezagutzen naue- na jenden aintzinean, nik ere, ezagutuko dut nere haurridetat nere Aitarean aintzinean.*



Urtharrilaren 22an
SAN BIZENTE EDO BIXINTXO MARTIRA
Hila 304an

Saindu hau sortu zen Espainian, Zaragozako inguruetan. Hautasunetik hasirik hartze ona bide zuen, eta behar bezalakoa zen. Bertzela izan balitz, Zaragozako Apezpikuak etzuen bere etxean hartuko. Orduko apezpikuak Balerio zuen izena.

Apezpiku harrek hartu eta eskolatu zuen bere etxean berean; eta gero berantxago, ordenatu diakre. Eta nola berak galdua bezala baitzuen mintzoa, eman zion diakre gazteari, Ebanjelio sainduaren predikatzeko eta ezagutarazteko manua.

Bizente gaztea gai zen lan hari buruz jartzeko; ez bakharririk bazakielakotz zer predika, bainan oraino saindu bat zelakotz. Eta eman zen khar saindu batekin, arimen konbertiarazten, eta, gero eta hobeki, Jainkoaren amodioaren pitzarazten denen bihotzetan.

Horrela hari zelarik, ethorri zen Balentziako hirira Espainiako giristinoek izatu duten etsaiik gaixtoenatarik bat, Dazien.

Gizon harren xedea eta nahia etzen bertzerik baizen ere Espainia guzian galaraztea giristino-legea. Bainan nola giristinoz betheak baitziren bazter guziak, ezpaitzitezken beraz hilaraz guziak, Dazienek egin zuen bere baithan, aski zela gure Erlisione sainduaren galarazteko, eliza-gizonei erranaraztea arbuiatzen zutela ordu arte irakatsi zutena.

Balentziarat heldu zeneko beraz, mintzatu zitzaizkon Balerio sainduaz eta haren diakreaz. Eta ordu berean eman zuen manua altxa zetazela preso, eta ereman zetzotela Balentziara. Eta Balerio sainduak ere egin behar izatu zuen oinez Zaragozatik eta Balentziarainoko bidea, nahiz jadanik adin handia zuen.

Dazienek ikusi zuen laster etzitzaiola errex izanen bi eliza-gizon hekiei beren erlisionearen arbuiaraztea. Eta agian errexkiago garhaituko zituela, gosez ahularazten ahal bazituen, ezarri zituen gatzelu zilho batean, eta han utzi jatekorik batere gabe.

Handik zenbeit egunen buruan, eta ordukotz uste izateko zuelarik, ezpaziren ere hilak bederen aski ahulduak zituzkela, ekharrarazi zituen berriz ere bere aintzina. Bainan orduan ere ikusi zuen nahi etzuzenik: Balerio eta Bizente, biak, gatzeluan sartzean baino itxura hobean eta bihotz beroagoarekin zituela.

Halarik ere erran zioten: «Eta orai, zer egin gogo duzue? Nahi dituzue adoratu gure jainkoak, ala nahiago zarete hil oinhazerik ikharagarrienen erdian? Balerio, zuri nago, mintza zakizkit».

Ikusi dugu gorago Baleriok galdua zuela mintzoa. Eta hortakotz etzuten entzun harrek zer ihardetsi zuen. Bainan huna, Bizentek zer erran zuen beretzat eta bere Jaun Apezpikuaren izenean:

«Zuk nahi balin badituztu adoratu zurezko eta harrizko jainko batzu, egizkitzu. Guk eztugu bertzerik ezagutzen, ez ezagutuko Jainkotzat, bai-zik ere zeru-lurra eta gu guziak ez-deusetarik egin gaituena.

»Guk adorazten dugu mundu guzia bere eskuetan daukan Jainkoa, eta Jesu-Kristo haren Seme bakhar guretzat gizon egin dena.

»Gero, baitiozu hilaraziko gaituzula oinhazerik ikharagarrienen erdian, non-eta eztugun egiten zuk galdetzen darokuzuna; horren gainean erranen dautzugu, Jesu-Kristo gure Jaunak ere ixuri duela bere odola gurutze baten gainean, gure salbatzea gatik; eta etzaiku sobera zerbeiten pairatzea guretzat hainbertze egin duenaren ohoretan. Egizu beraz gutaz nahi duzuna».

Solhas horien ondotik gobernadoreak igorri zuen Balerio saindua erresumatik kanpo, eta manatu zuen pairaraz zezotela Bizenteri jende biziak paira dezaken guzia.

Hortakotz kendu ziozkaten bere soineko guziak. Eta, lotzen ziozkatelarik lau soka lau zango-besoetarik, haritu zatzaizkon tira-ahala-tira, jauzarazi arteraino zango-besoak beren krosketarik.

Halako oinhaze ikharagarrietan zelarik Jesusen soldadua, Dazien han zagon begira, noiz emanen zuen amor, noiz erranen zuen bazuela aski. Bainan Bizente etzen hartan. Eta burregoak gelditu zirenean harren laurdengatzetik, erran zion gizon gaixtagin hari:

«Nik, nahi nuke jakin orai, zergatik gelditzen zaren. Gobernadorea, emazu aintzina, non-eta eztiren huntan akhabo zure indar guziak. Ezen nere oinhazen araberakoak izanen dire nere eternitateko atseginak».

Hitz horiek ezarri zuten gobernadorea dena sutan. Eta haren manuz burregoak hasi zitzaizkon burdinazko aztapar batzuekin, zakhurrak azienda hilari lotzen diren bezala. Gorputz guzia xehakatu eta funditu zioten beraz, hezurak ere-bai, agerian ezarri.

Eta halarik ere saindu gaztea etzen garhaitua. Aitzitik zerbeit gehiagoren jasaiteko irriarekin zagon; eta agian edertuko ziotela oraino bere zeruko korona.

Bai-bai! edertu behar zioten oraino gehiago korona hura.



Tiranoak ikusi zuenean hainbertze oinhazeren gatik ere egundaino bezein hazkar zagola bere giristinotasunean, eginarazi zuen ikhatzezko su haundi bat. Saindua bera ere estekarazi zuen burdinazko ohe baten gainean, eta gero, ezarrarazi su harren erdian.

Bertzalde, ongi baino hobeki errearaztea gatik, ezarrarazten ziozkan, surat etzagozin alderdien gainean, suan gorrituak eta sua zarioten kobrezko hosto mehe batzu; eta oraino arthikarazten zion gatza zauririk eta zauririk baizen etzen gorputz hartara. Gatz urthu harren erredura samina sarzakion hezurretan barna.

Bainan oinhaze hekien guzien erdian, giristino gazte harrek hain zuen arin eta alegera begia, non errexki ezagun baitzen alferretan zirela tiranoaren lan eta indarka guziak; eta etzuela zeren iguriki Bizenteren garhaitzea.

Noizpeit beraz, eta ordukotz Sainduak egiten zukelarik bere baithan hurbiltzen hari zela bere azken orenerat, kendu zuten bere ohe lazarriaren gainetik. Eta orduan ezarri zuten zena zen bezala, erran nahi baitut erre-belztua eta batere soinekorik gabe, baxeraki kaskoz eta berinakiz dena bethe zuten presondegi batean.

Presondegiaren zain ezarriak izatu ziren soldaduak loharkatu ziren denak, eginik elkharren artean, etzuela balio gauik galtzea jadanik erdi hila zen gizon baten gatik.

Bainan gau minean zerutikako argi eder batek hartu zuen presondegia. Aingeru batzu ere agertu zitzaizkon martir loriosari; eta, adiarazteko nolakoak zitezken zeruan behar zituen atseginak, eman ziren kantikarik xoragarrienen kantatzen.

Argi distirant harrek atzarrarazi zituen soldaduak, eta mintzo ziren elkharren artean galduak zirela, giristinoek ereman zuketela beren nausia. Bainan san Bizentek erran zioten:

«Zaudezte ixilik, hemen naiz, eta hemen nago zerutiar izpiritu dohatsu batzuen erdian. Hortik ikusazue zein den ona eta botheretsua nik adoratzan dudan Jainkoa. Ordean, zuek ere, emazue ongi zuen gogoari, nik adoratzan dudan Jainkoa dela egiazko Jainkoa, eta hartaz kanpo ezteza bertze jainkorik. Eta orai, zohazte, errozue zuen nausiari, asma dezala oinhaze berri zerbeit, sendatua naizela osoki, eta egundaino baino ekharriagoa berriz ere pairatzera».

Soldaduek eman zioten berri hori Dazienei. Eta gizon gogor, itsu eta gaixto hura gogoeta zagolarik zer behar zuen egin, aingeruen kantuek pizten zuten Martir sainduaren bihotzean Jainkoaren ganako amodio handiago bat.

Huna, zer kantatzen zioten:

«Jesusen Martir loriosa, heldua zare zure bidearen burura, zure aintzinean dohazilarik ihesi, zure beldurrez, zauriak, oinhazeak eta herioa bera ere bai. Baduzu aski guduka jasanik eta aski bitoria irabazirik. Zato! Jesusen nahia da ethor zaitezen zeruko loriaz goatzera!».

Biharamunak argitu zuenean, Dazienek ikusi zuen bere begiz ordu arterainoko haren lanek etzutela deusik balio, Bizente osoki sendatua zela. Eta horrek eman zion atsegabe handia.

Halarik ere etzuen oraino etsitu. Eginik beraz bere baithan, menturaz lausenguen eta atseginen bidez ardietsiko zuela, oinhazeren ariaz ezin ardietsi zuena, erran ziozkan lehenik solhasik eztenak, eta gero ezarrarazi zuen ohe guri eta gozo baten gainean.

Eta Bizente, ordu arteraino ixilik egotu zena oinhazetik ikharagarrienen erdian, eman zen Jesus Jaunari buruz, eta erran zion:

«Badakizu, nere Jaun maitea, ekharria naizela nahi tutzun atsegabe eta oinhaze guzien jasaitera; badakizu ere eztudala nahi atseginik mundu huntan; ezpadut beraz gehiago pairatu behar, nere Jaun ona, nere Jaun maitea, har zazu nere arima zure ganat».

Eta ordu berean san Bizenteren arima ederra igan zen zeruetarat harren beha han berean zagozin aingeruekin batean.

Sainduaren hain laster hiltzeak aree errabia handiagoan ezarri zuen gobernadore; gaitzi zitzaion ezin gehiago garhaitua izatea. Bere ezinbertzean, eta bere asperraren iraganarazteko bezala, ezarrarazi zuen san Bizenteren gorputza oihan edo larre baten erdian, basa-ihizien bazka bilhaka zadiela, eta giristinoek ezetzatela izan bederen harren ohoratze atseginik.

Bainan gizona gauza gutia da, joan nahi denean Jainkoari eztohakon bidetik.

Oihan harren erdian bele bat jarri zen gorputz saindu harren zain. Eta begiratu zuen ihizi guzietarik. Erranik da ere otso bat ethorri zela, eta beleak haizatu zuela hura ere; bi beharrien artean jarri-eta, nahi ziozkalkotz atheratu begiak moko ukhaldika.

Azkenean gobernadoreak arthikarazi zuen itsasorat harri handi bati estekatua. Ordean handik ere Jainkoak ekharri zuen leihorreat, eta itsas bazterrean urak berak estali zuen hare meta batez. Denborarekin giristinoek izatu zuten egunaldi hoberik, eta orduan ehortzia izatu zen zohakon ohorearekin.



Irakaspena

Horra nolakoak izatu diren san Bizenteren gudukak eta garhaiak edo bitoriak. Jasan ditu oinhazerik eta tormentarik ikharagarrienak irriz zagolarik. Eta erran diteke zenbatenaz ere gehiago pairatzen baitzuen, eta hainbertzenaz ere gehiago handitzen zitzaiola pairamenen gosea eta egarria.

Jainkoaren graziak egin dezake gure baithan gauza bera.

Zenbeit aldiz iduritzen zaiku badugula jasan ahal baino gehiago; gure gurutzeak, edo bertze hitzez erratera, gure atsegabeak eta oinhazeak handiegiak direla. Bainan zergatik ez galdegin Jesus Jaunari gurutze hekien jasaiteko graziak? Gauza segura da, eman letzauzkegula.

Galdetu ondoan beraz behar tugun indarrak, lot gakizkon gurutzeari bihotz onez. Eta ikusiko dugu eztela iduri zuen bezein pisua. Eta gehi-go dena, jarri balin bagare laxoki Jainkoaren eskuetan, eta nahi balin badi-tugu jasan atsegabe eta oinhaze hek Jesus Jaunaren ohoretan, ezagutuko eta ikusiko dugu badutela berekin atsegabe baino atsegin gehiago.

Urtharrilaren 26an SAN POLIKARPE, APEZPIKUA ETA MARTIRA

Hila 166an

Huna saindu bat Jondoni Joani apostoluaren etxean ibili dena esko-latzen; saindu bat apostolu harrek berak bathaiatu zukena, eta bederen harrek ordenatua, lehenik apez, eta gero Esmirnako apezpiku.

Ondikotz, liburuek eztaokute erraten kasik deusere saindu hunek praktikatu dituen berthutez, ez egin duen ongiatz, ez eta ere erabili dituen lanez. Eta egiazki deithoragarri da.

Ezen Jondoni Joaniren eskolan ibilia zenaz geroz, erraten bide ziozkaten, bere meneko giristinoei, gauza baliosak, dela bere Nausi maiteaz, dela Jesus Jaunaz.

Dakigun gauza bakharretarik bat, hau da, san Polikarpek bazuela heretikoentzat Jondoni Joanik bezein higuintza handia. Hortakotz maite zuen ixtorio hunen kontatzea:

«Behin nere nagusi maitea joan zen mainhuak hartzen ziren etxe baterat. Ordukotz zahartzen hasia zen, eta bazuen berekin asko ikasle. Mainhuaren hartzera zohalarik beraz, erran zioten, orduko heretiko bat, Zerinto deitzen zutena, etxe hartan zela, mainhuaren hartzen hari. Eta ordu berean Saindua hasi zitzaioten oihuka bere lagunei:

»Nere haurrak, gohazen hemendik, athera gaiten laster, beldur naiz etxea leher dadin heretiko gaixto horren gatik».

Bazakielakotz ere giristino batek zein errexki gal dezaken bere fedea, gerthatzen bazaio heretikoekin maiz ibiltzea eta mintzatzea, san Polikarpek etzuen nahi giristinoek izan zezatela egitekorik ttikiena ere heretikoekin. Eta kontatzen ziozkatenean heretiko hekien blasfemioetarik zenbeit, erraten zuen hasperen batekin: «Nere Jainko maitea, nolako den-borek atxeman behar ninduten!».

San Polikarpen lanez bezenbatean oraino, liburuek erraten darokute, jadaneko adin handia zuelarik, joan zela behin Erromara, Aita-Sainduarekin mintzatzera Elizako egiteko batzuez.

San Anizet orduko Aita-Santuak, eta Erromako giristinoek ere bai, egin zioten hainitz ongi-ethorri ona. Zeren-eta baitzakiten denek zer khar sainduarekin predikatzen zuen Ebanjelio saindua, eta bertzalde, predika-tzen zuela Ebanjelio saindua Jondoni Joani apostoluak irakatsi bezala.



Eta nola Erroman ere heretikoek egiten baitzituzten beren egin-ahalak gure Erlisioe sainduaren nahasarazteko, saindu hunek egin zioten ongi handia hiri hartako giristinoei, han egotu zen denbora laburrean.

Hiri hartan zelarik, ethorri zitzaion behin aintzina heretiko nagusi bat, Marzion deitzen zutena. Hura zen gizon bat kalte handia egiten zuena gure Erlisioe sainduari.

Marzionatek beraz galdetu zion sainduari, ian ezagutzen zuen. Eta Sainduak ihardetsi zion: «Bai! sobera ongi, ezagutzen haut. —Nor naiz bada?», erran zion Marzionatek.

Eta san Polikarpek ihardetsi zion, kolera saindu batekin eta burua ere itzultzen ziolarik, harren ez ikusteko: «Hi haiz debruaren seme gehiena».

Heretikoak ez bide zion egin bertze galderik.

Erromako aldia eginik, joan zenean bere Esmirnako hirirat, aintzina ere hari zen bere ohiko lanari, soldaduek ekharri zutenean hiri hartara san Inazio Antiokheko Apezpikua.

Saindu hura Erromarat zaramaten, kondenatua izatu zelakotz hango basa ihizien bazka bilhakatzera. Eta hura zen san Polikarpen ezagun eta adiskide bat, biak elkarrekin ibiliak zirelako Jondoni Joaniren etxean.

Errex da beraz asmatzea bi apezpikuek atseginekin besarkatu zutela elkhar; eta san Polikarpek eta Esmirnako giristinoek egin zituztela beren egin-ahalak san Inaziori ahantzazteko soldaduen bideko egitate txar guziak.

Bainan joan ziren laster san Inaziok hiri hartan ereman behar zituen egunak ere, eta bi adiskidek behar izatu zuten berriz ere urrundu elkharretarik. Eta orduan, jauzi zitzaizkon nigarrak san Polikarperi. Ez, zeren galdu behar zuen bere adiskide maitea; ordean, zeren etzitziaio eman hari ere, bere odolaren ixurtzea gure Erlisioe sainduaren lekhuko bezala.

Hargatik san Inazio Erromarat joanez geroz, Esmirnako Apezpiku sainduak ere denbora guti zuen lur hunen gainean egoteko. Ezen hura ere martir hil beharra zen.

Eta huna haren martirioaren ixtorioa:

Egun batez banatu zen berria soldaduek bazituztela giristino aintzindari guzien preso altxatzeko manuak. Eta ordu berean Saindua joan zen lagun batzuekin hiritik kanpo, giristinorik baizen etzen etxe baterat. Eta hori, othoiztu zutelakotz gorde zadiela zenbeit egunez. Bizkitartean gobernadoreak jakin zuen nolazpeit Polikarpe saindua non zagon, eta igorri zituen soldaduak, preso altxa zezatela.

Bainan aldi hartan alferretan ibili ziren Sainduaren ondotik, eta joan ziren etxerat, erematan zituztelarik berekin bi giristino gazte. Soldaduek

gogoratu zitzaioten, hekiei erranaraziko ziotela nahi-ta-ez Polikarpe saindua non zen.

Eta Esmirnako hirian halako oinhazeak jasanarazi ziozkaten, non azkenekotz bietarik batek amor eman baitzuen, eta hitzeman erranen ziotela non utzi zuen Apezpiku saindua.

Soldaduak joan ziren beraz, Judas berri hura gidari. Polikarpek ere jakin zuen giristino gazte batek salhatu zuela. Eta, oraino ere gorde zitelarik, ongi nahi izatera, egotu zen han berean, egiten zuelarik bere bait-han, bazuela aski atsegin emanik giristino populuari; eta Jesus Jaunak ere nahi bide zuela han berean egon zadin, bazenaz geroz giristino arnegatu bat, Judas berri bat, preso altxatu behar zuten soldaduen aintzindari.

Hortakotz soldaduak etxe hartako athera heldu zireneko, Saindua bera joan zitzaioten galdetzera noren bilha zabilzan. Soldaduek ihardetsi zioten Polikarpe apezpikuaren bilha ethorriak zirela.

«Hola denaz geroz, erran zioten Sainduak, sar zaitzte; ongi unhatuak izanen zarete! Behar duzuen hatsa hartu eta jan pixka bana; nik ere eginen ditut bi othoizt jaten hari zaretelarik, eta gero eremanen nauzue zuen nagusiaren gana».

Hitz horien araberekoa zen san Polikarpen eztitasuna eta mintzoa ere bai. Hain zuen ezagun ona zela eta ezta, non soldaduak ahalkatuak baitzagozin, zeren hain nonbre handian ethorri ziren, eta zeren behar zuten preso ereman, gaixtagin bat bezala, gizon bat hain saindua, eta ongirik baizen egin etzezakena. Hortakotz utzi zuten gogo onez othoizt egitera nahi zuen bezenbat denbora.

Saindua haritu zen othoitzean bi orenez, galdetzen ziozkalarik Jainko Jaunari Elizak behar zituen grazia guziak.

Azkenekotz inguru hetako giristinoak ere bilduak ziren etxe hartara; eta denak nigarrez zauden, zeren galdu behar zuten beren Aita ona. Soldaduek ere, erran dugun bezala, ezagun zuten etzirela alegera. Hargatik nola iduritzen baitzitzaioten etzezaketela egin bertzerik, othoiztu zuten Saindua eman zadiela asto baten gainean, eta abiatu ziren Esmirnako hirirat buruz.

Jadanik hirirat hurbiltzen hari zirelarik, jandarme aintzindari bat ethorri zitzaion bidera Sainduari, karrosa eder batean. Jandarme harrek hartu zuen aspaldiko ezagun xahar bat bezala, eta jautsarazirik bere astoaren gainetik, iganarazi zuen karrosara.

Gero, bidean bazohazilarik aintzina, erran zion:

«Zu ihesi joana baitzinen beraz eta gordea baitzinauden. Zergatik hori? Zer gaizki uste duzu eginen duzula zin eginik ere gure enperadoreen



jainkoen izenean, eta errearazirik ere isentsu pixka bat jainko hekien aldaren gainean? Eta bizkitartean horren egitea aski zinue! Zergatik eztuzu eginen?».

Polikarpe saindua egotu zen luzez deusik ihardetsi gabe. Eta, nola bertzea hari baitzitzaion erran-eta-erran, bethi gauza beren erraten, Sainduak ihardetsi zion:

«Jauna, alfer duzu mintzatzea. Jainko maiteak beiratuko nau holako lanaren egitetik gaur eta bihar, eta etzi ere bai».

Apezpiku sainduak erran zituen hitz horiek hain lañoki, eta halako segurantzarekin, non jandarme aintzindariak ikusi baitzuen berehala etzela nihar izanen hari bere bidea hautsaraziko zionik. Arthiki zuen beraz karrosaren gainetik pusaako batez. Eta Jesusen ministroak egin behar izatu zuen oinez gainerako bidea, nahiz behartu zuen zangoa bere eroriko hartan.

Bainan hala ere, haren arima etzen goibeldu. Ez-eta ere etzen lotsatu ereman zutenean Esmirnako plaza nagusira, eta ikusi zuenean hiriko pagano guziak harat bilduak zirela, eta, errabian eta sutan harrentzat eta giristino guzientzat, hari zirela oihuka eta izkirituka. Ez, etzen lotsatu! Ordean sartu zen adiskide batzuen arterat joan balitz bezein ezti eta botz.

Gobernadorearen aintzineraren eremana, harrek galdetu zion, ian hura zen Polikarpe deitzen zuten apezpikua.

«Bai Jauna, ihardetsi zuen Sainduak, izen hori garreiatzen dut».

Gobernadoreak erran zion berriz ere: «Emazu beraz kontu zer hari zaren; baduzu hauta; izan detzazketzu onthasunik eta ohorerik handienak, edo beharko tutzu pairatu, zu ez-bezalako gizonen lotsarazteko gai diren tormentak. Sinets nazazu; zin egiten duzularik gure enperadoreen jainkoen izenean, errazu: Maradikatuak eta hiltzara kondenatuak izan bitez jainkorik eztela dioten jendeak».

Saindua eman zen orduan plaza guzia estalia zaukan populu hari beira; eta erran zuen denek entzuteko gisan: «Bai-bai, madarikatua izan bedi, eta hiltzerat kondenatua, Jainkorik eztela dion jendea!».

Bainan gobernadoreak nahi zuen bertzerik ere entzun. Erran zion beraz: «Egizu nik galdetu darotzudan zina edo juramentua; emazu madarizione Kristori, eta uzten zaitut etxerat joaitera orai berean».

San Polikarpek ihardetsi zion:

«Badu lauetan hogoi eta sei urthe ezagutzen dudala Kristo Jauna nere Jainkotzat; ezta rot egin egundaino ongirik eta ongirik baizen. Eta orai, nola nahi duzu athera dadin nere ahotik Jesus Jaunarentzateko madarizione bat?».

«—Bederen zin egizu enperadoreen jainkoen izenean».

Sainduak ihardetsi zion berriz ere:

«Hari zaizkit baitezpada zin edo juramentu hori eginarazi beharrez, ezpazinaki bezala ni zer naizen. Jakinazu beraz behin bethikotz giristino naizela. Eta gero, hori ez aski, nahi balin badituztu jakin nolakoak diren giristinoaren eginbideak, ezagutaraziko darozkitzut nahi duzunean».

Gobernadoreak erran zion orduan: «Mintza zaite orai berean, eta konbertiaratz zatu jende hauk guziak».

Apezpiku sainduak ihardetsi zion:

«Eztut nik egitekorik jende horiekin. Horiek ere ez lukete hargatik ikustekorik nere biziaren gainean. Eta ez natzaiote mintzatuko, zeren eta Jainkoak ezpaitu nahi horiei erakuts diozodaten zeruko bidea. Bainan zuri, ematen darozkitzut nahi tutzun irakaspenak.

»Utz zatzik solhas horiek, erran zion gobernadoreak, dena hasarretua, gogo emak, aski diat kheinu baten egitea, eta basa ihiziek funditzen haute beren aztarretan.

»Egizu nahi duzun bezenbat kheinu, ihardetsi zuen Polikarpe sainduak, zenbatenez ere tormenta handiagoak jasanaraziko baitarozkidatuz, eta hainbertzenaz ere loria gehiago izanen dut».

Gobernadoreak erran zion: «Ezpahaiz basa ihizien beldur, errearaziko haut bizirik».

Eta oraino ere aldi bat Sainduak ihardetsi zion:

«Zer dire zuk pitzaraz detzazketzun su guziak Jainkoaren justiziak gaixtaginentzat piztua duen bethiereko su harren aldean? Berriz ere erraten darotzut, bai, egizu dohatzun bezala. Ematzu nahi tutzun manuak. Eta lehen-bai-lehen halere».

San Polikarpek erran zituen solhas horiek guziak eztitasun saindu batekin. Gobernadorea aldiz sutan zen eta errabiarik handienean.

Behar zuela beraz gaztigatu halako kuraiarekin mintzo zitzaion gizona, eginarazi zuen oihu populuari, hiru aldiz, Polikarpek aitortu zuela giristino zela. Eta populua ihardetsi zuen hiruetan izkiritu ikharagarri bat egiten zuelarik: «Kali eta hilaraz bedi giristinoen nagusia; jainkorik eztela dion gizona, gure jainkoen etsaia!».

Oihu egiten zioten ere basa-ihizien kargua zuenari, atheraraz zezala lehoin bat. Bainan gizon harrek erran zioten etzitzaiola zilhegi, memento hartan, basa-ihizien atheratzerat uztea.

Eta orduan populu guzia hasi zen oihuka berriz ere: «Errearez bedi Polikarpe! Errearez bedi Polikarpe bizirik».



Eta ikusi nahiz, lehen-bai-lehen, sua piztua, eta girstino hura suaren erdian, on ziren guziak atheratu ziren egur keta. Aphur bat edo memento baten buruko, eta Sainduak kentzen zituelarik baitezpada behar zituen arropak, burregoeak eta soldaduek ezarri zituzten, burdinazko pilar baten inguruan, populuak ekhartzen ziozkaten egurrak. Eta berehala egin zuten egur meta bat gaitza.

Gero, nola burregoeak nahi baitziozkaten estekatu eskuak burdinazko krako batzuei, Sainduak erran zioten: «Uzten ahal zutela estekatu gabe; Jainko Jaunak emanen ziola aski indar egoteko suaren erdian, ez estekatu izana gatik ere».

Burregoeak sinetsi zuten. Eta ezarri orde haren eskuak burdin krako batzuetan, bertze erretzen zituztenei egiten zioten bezala, estekatu ziozkaten doi-doia bizkarrean, eta iganarazi zuten egur metaren gainerat.

Orduan san Polikarpe eman zen Jainkoari buruz eta erran zion:

«O Jainko boheretsua, Jesus nere Salbatzailearen Aita, eskerrak darozkitzut, zeren nahi nauzun ezarri martiren herronkan. Bai, eskerrak darozkitzut zeren deitu nauzun egun handi huntan behar dudan ohorera, eta zeren nahi darotazun eman edatera Jesusen kalitzetik. Orai badakit, ni ere piztuko naizela Jesus Jauna bezala, eta eztela hiltzerik izanen gehiago neretzat. Laudorio eta benedizione Jainko guziz onari eta Jesus haren Seme bakharrari».

Azkenekotz piztu zuten sua, eta garrek laster hartu zuten egur meta edo phulo guzia. Jendek uste zuten beraz Saindua ere erretzera zohala, baina ohartu ziren laster garrak, goiti joan-orde xuxen-xuxena, bazterretarik zohazila, Sainduaren ukhitzera beldur izatu balire bezala; eta gero, urrundik inguratzen zutela, haizeak hantzen eta bethetzen duen untzieta-ko bela baten pare.

Luzez egotu ziren begira, ian bada gar hek etzuten eginen beren lana. Baina aldi hartan suaren lana zen, adiaraztea gaixtakeriak itsutzen etzituen guziei, Polikarpe sainduak adoratzan zuen Jainkoaz kanpo eztela bertze jainkorik.

Hortakotz oraino, senditu orde jende erretzen hari denaren usain borthitza, senditzen zuten guziek bertze usain bat ona eta nihoiz usnatu etzuten bezalakoa.

Paganoek etsitu zuten noizpeit Martir sainduaren erretzen ikustea. Orduan burrego batek, iganik egur metaren gainera, sarthu zion ezpata bihotzean. Eta hainbertzenarekin haren arima saindua hegaldakatu zen Jesus Jaunaren besoetarat.

Irakaspena

Huna saindu bat goizik hasi zena Jainkoaren maitatzen eta zerbitzatzan; eta gero, hasian-hasi, joan dena zeruko bidean, batere gelditu gabe.

Jadanik adinean aintzinatua zelarik, nahi izatu zioten arbuia bere erlisione saindua, eta eginarazi blasfemio bat. Baina holakorik egin baino lehen, gogotik emanen zuen bizia miletan.

Eta nik, zenbat denbora dut jarraitzen natzaiotela Jainkoaren manamendu guziei hautsakeriarik batere gabe.

Ondikotz! egin orde Jainkoaren zerbitzatzea, bilhatu orde Jainkoari bakharririk atsegin izatea, bizi izatu naiz menturaz lazakerian eta hil-hila; eta menturaz zangoen azpian ezartzen nuelarik, egun guziz, nere Jainkoa Jaunaren legea! Ez! burregoen edo heriotzaren beldurrez, baina atsegin ez-deus batzuen gatik, onthasun iragankor batzuen gatik!

Eta orai, nola konda egin tudan bekhatuak? zenbat eta zenbat bekhatu eztut egin?

Jainko maitez, ahalke ere banaiz zure aintzinean agertzeko. Eta hala ere, Jaun ona, galdetzen darozkitzut behar ditudan graziak, jarraik ahal nadin zure lege sainduari, nere azken hatseraino.



Urtharrilaren 29an
SAN FRANTSSES SALESEKOA APEZPIKUA

Sortua 1567an-Hila 1622an

Saindu hau sortu zen Sabaudia Saleseko jauregian, Italiako mugan, buraso behar-bezalako batzuen ganik.

Hargatik nola aitak bere gain baitzituen Probeintziako egiteko guziak, hango Dukea edo lehen-nagusia zelakotz, es bide zuen behar zen bezein artha handia izanen haurraren ongi altxatzeaz; bainan saindu hunen ama Jainkoa guziz maite zuen emakume bat zen, eta harrek egin zuen bere egin-ahala haurrari erakusteko haste-hastetik zer behar zuen egin Jainkoaren gogorako izateko.

Frantsesek ikasi zituen beraz, kasik xutik joan orduko, hiru gauza, Jainkoak maite duela bekhatu gabe den arima, errumesak direla haren haurrik maitenak, eta Andre dena Maria saindua gure Ama ona dela.

Eta hortakotz, bera izatera, utziko zituen josteta guziak, eta iraganen zuen othoitzean liburutan hari etzen denbora guzia. Hargatik maite zuen lagunei ere atsegin egitea, bere lagun hek maite zituelakotz; eta, lagunetar joanez geroz, egiten zuen hek bezala.

Azkenerat lagunek ere ezagutua zuten zergatik zen hain ona. Eta ikusten zutenean ethortzen zitzaioleta, erraten zuten batzuk bertzei: «Izan gaiten prestu, huna gure Saindua».

Erran dut bazakiela, amak irakatsia, Jainko Jaunak maite dituela bereziki jende errumesak. Eginez beraz bere baithan errumesei emanek, Jesus Jaunari atsegin egiten ziola, ematen zioten beretzat izaten zuen diru guzia.

Horrela iragan zuen bere eskola ttikien egiteko denbora. Eta gero, jadanik hasia zelarik aderki berthutearen praktikatzen, igorria izatu zen Pariseko eskoletarat.

Mundu guziak badaki Parise bezelako hiri batean, badela mila bide txar gizon gaztearentzat. Bainan Frantses gazteak egin zuen, hiri hartan ere, ordu arte bezala. Erran nahi baita egiten zituela eskolako lanak ahalik hobekiena; eta jarraitzen zela othoitzari, sakramenduei eta liburu onen irakurtzeari.

Fraide batek adiarazi ere zion zein den on penitentzia egitea, jaidura gaixtoen flakarazteko eta hilarazteko. Eta hortakotz, hasi zen penitentzia egiten, ekhartzen zuelarik larru-arraseko zurdazkoa, astean hiruetan.

Bainan erranik da Eskritura sainduan arima batek ematen duenean bere gogoari, behar dela lotu bizitze saindu bati, orduan Sataneke egiten dituela bere egin-ahalak arima harren lotsarazteko, zenbeit bekhatutan erorraraziz.

Frantses gazteak ere izatu zituen beraz tentazioneak, eta jazarri zioten gehienei aski errexki. Ordean izatu zuen bat, bertze guziek baino lan gehiago eman ziona; eta hori, zeren etzen menturatu harren ezagutaraztera, ez-eta bere kobesorari berari ere:

Gure arimen etsaiak sinetsarazi zion, Jainkoak utzia zela bazterrerat, etzela beraz salbamendurik harrentzat, galdua zela. Debruak erakusten bezala ere zion, ifernuan nonago zen harren tokia.

Eta ezin erran ditekena da, nolako atsegabeak eta trixteziak izatu zituen egun-aldi beltz hetan. Gehien-gehienik gaitzi zitzaiona, etzen ifernuko su lamen erdian erretzea, bainan hau, Jainko maiteari blasfemioka hari beharko zuela eternitate guzian.

Gogoeta horrek galarazi ziozkan loa eta jana, xukhatu eta ihartu zen zenbeit egunen buruko. Eta nihork etzezaken asma zer zuen.

Hortan zelarik, bethi bere izpiritua bethea bere eternitateko zorigaitz ikharagarriaz, sartu zen behin eliza batean; eta joanik Andre-dena Mariaren aldarera, han egin zuen garbitasun osoaren botua, erraten ziolarik ama on hari: «Nere Ama maitea, eztudanaz geroz behar, zeruan, Jesus Jaunaren eta zure maitatzeko zoriona, bederen ardiets diezadazu grazia hori, mundu huntan egonen naizen denbora guziarentzat».

Gero erran zion san Bernaten othoitza, *Orhoit zaitte, o Birjina...* Eta ordu berean tentazionea suntsitu zen. Frantsesek bazuen arimako bakea; ikasia zuen behin-bethikotz tentazionetan denak zer lanak dituen; eta oraino, aintzinetik baino ere maiteago zituen Jesus eta Maria.

Sei urtheren buruan athera zen Pariseko hiritik; bainan, nola oraino gazte baitzen, eta ezpaitzitzen ikasiak, irakasten ahal ziozkatzen guziak, joan zen Paduko eskola handietarat.

Hiri hartan ere, Frantsesek bilhatu zuen bere arimarentzat gidari on bat. Egin zuen ere aintzina othoitze; eta baliatu zitzaion ederki.

Ezen etsai gaixtoak nahi izatu zuen erorrarazi bekhatuan, lehenik adiskide faltso batzuen bidez. Bainan Frantsesek eman zioten ahalke gizon gazte hekiei, eta urrundu zen hekien ganik.

Gero oraino, Sataneke igorri zion, bere gelara, tzarkerian bizi zen andre gaixto bat. Saindu gazteak thu egin zion begitartera emakume tzar hari, eta arthiki iletari edo itxindu bat burutik behera; eta horrela kasatu zuen bere ganik ifernuko etsai madarikatua.



Azkenekotz bera ere iragan zen nagusi eskoletan; eta orduan erran zioten burasoei aspaldion gogoan zuen gauza, apeztu nahi zela. Aitak etzuen halako solhasik entzun nahi; bainan, orhoituz haren semea ere Jainkoarena zela bertze munduko gauza guziak bezala, onetsi zion bere galdea; eta Frantses apeztu zen.

Ordukotz Jaun gazte harren inguruan zirenek bazakiten saindu handi baten gaia zela; atsegin egin zion beraz harren aldarerat igaten ikusteak.

Jaun Apezpikuak ere erraten zuen, balin bazen saindurik harren meneko apezten artean, Frantses hetarik bat zela. Eta hortakotz eman zion bere gain egiteko bat guziz handia eta gaitza denbora berean.

Bazuen bere diosesan eskualde bat dena heretiko bilhakatua. Eta aspaldi hartan, heretiko hekien arterat norbeit igorri nahia zagon, ez jakinez nor igor. Bainan ikusi zuenean Frantses gazteak nolako amodioa zuen Jesusentzat, eman zion bere gain hekiei predikatzeraz joaitea, berak hautatuko zituen lagunekin.

Berri hori entzutean, Frantsesen aitari eta amari, bie ilhundu zitzaionten gogoan, ez bakharririk heien semeak hartu behar zituen unhadura eta lanen gatik, bainan iduritzen zitzaioletakotz etzela bizirik atheratuko paganoak berak baino ere areagokoak ziren heretiko hekien artetik.

Hargatik amak ikusi zuen laster Jainkoak galdetzen ziola sakrifio hura, eta aitari ere adiarazi zioten nolazpeit etzela ongi Jainkoaren borondateari jazartzea.

Ordu berean Saindu gaztea joan zen Txableko mendietarat, apez lagun baxhar batekin.

Mendirik eta mendirik baizen ezta toki hetan. Horrek erran nahi baitu Sabaudiako Jaunaren semea ibili beharra zela tokirik gaitzenak barna, askotan bazter guziak betheak zirelarik elhurrez.

Lehenbiziko denboretan emazteak eta haurrak gordetzeraz zohazin lasterka hekien beldurrez, hesten zituzten ere denek beren athe-leihoak lehia handitan; eta gero, ilhundu zuenean, etzen nihor izaten hekiei atherbe pixka bat eman nahi zionik. Halako gisaz non aitoren-seme hura borxtatua baitzen borda edo labetegi batzuetarat joaitera.

Horien guzien gatik ere eman zen lanari batere lotsatu gabe. Hasi zen beraz katiximaren egiten jende zenbeit biltzen ahal zuela iduritzen zitzaion tokietan. Eta, ikusiz zein zen ezta eta ona, heretikoak ere abiatu ziren emeki-emeki katixima hetarat ethortzen.

Bainan huna mirakuilu bat mundu guzia harritu zuena, eta fedean ziren heretiko guziei adiarazi ziotena misionest gazte hura saindu handi bat zela, behatzen ahal zirela beraz haren erranei:

«Oraino ongi konbertitua etzen emakume bati, hil zitzaion bere haurra, sortu-eta zenbeit egunen buruan. Eta nigar-eta-nigar bere harren ondotik zohan hilerrietarat buruz-buru egin zuenean san Frantsesekin. Ordu berean Jainkoaren graziak argitua, hartu zuen haurra eskuetan eta ereman zion Sainduari erraten ziolarik:

»Nere Aita ona, urrikal bekizu haur gaixo hau. Ez nion oraino emarazia bathaio saindua. Bainan, Jainko Jaunak entzunen du zure othoitzza, galde zozu pitz dakidan, bederen uraren emateko denbora».

Sainduak ikusi zuen laster mirakuilu batek eginen ziotela on handia fedea galdua zuten jende hekiei. Eman zen beraz belhauniko bide bazterrean, egin zuen ere othoitz labor bat, eta ordu berean haurra piztu zen. Eta nahi zuten guziek ikusi zuten bizirik bi edo hiru hilabetez.

Mirakuilu horrek egin zuen harrabots handia, konbertiarazi ere bai hainitz arima, bainan koleraan eta sutan ezarri zituen heretiko hekien aintzindariak.

Jaun batek bereziki hartu zuen begietan. Eta, behar zuela hil, tiratu nahi izatu zion tiroa hiru aldiz. Eta hiru aldiz, harma eskuetarik erori zitzaion tiratzera zohalarik.

Jaun harrek etzuen hetsia hartu oraino: igorri zituen gizon gaixto batzu, Saindua iragan behar zen bide batzuetarat, han hil zezotela. Eta aldi hartan ere Jainkoak begiratu zuen nolazpeit. Ezen, nahiz bide hartarik iragan zen, etsaiek etzuten ezagutu.

Gau batez oraino protestant batzu athera zitzaizkon bidera, behar zutela hil, zeren konbertiarazi zituen hekien lagun batzu.

Aldi hartan san Frantsesek bazituen hiru lagun eta hek ere harmekin ziren, etzirelakotz beldurrik gabe, edo menturaz entzuna zutelakotz heretikoek egin gogo zutela gaixtakeria zerbeit Sainduaren galarazteko.

Ikusi zituztenean beraz gaixtagin hek atheratzen beren oihan zokhotik, hek ere hartu zituzten harmak. Bainan Sainduak erran zioten: «Utz zatzue harma horiek. Nerekin dituzte gizon horiek beren egitekoak, neronek ikusiko dut zer galdetzen darotedaten».

Hainbertzenarekin joan zitzaioten beren artera, eta bere mintzo eztiarekin galdetu zioten zer gaizki egin zioten bada harren hil nahi izateko: eta hori bera aski izatu zen. Gizon hek, ahalkatuak egin gogo zuten gaizki handiaz, jarri zitzaizkon belhauniko, eta galdetu zioten barkhamendu.

San Frantses haritu zen horrela hiru urthez, katixima egin-eta-egin, herri batetik jo bertzeraz, konturik egin gabe ian bideak eta aroa onak ziren ala-ez, eta oraino penitentziarik handienak egiten zituelarik. Azkenekotz



beraraziak edo guriaraziak zituen bihotzik gogorrenak, bere eztitasunaz eta saindutasunaz. Eta hiru urthe hekien buruan, Jaun Apezpikuak deitu zuenean bere ganat, bazituen hiruetan hogoi-eta hamabi mila heretiko konbertiaraziak; erran nahi baita kasik denak ezarriak zituela bide xuxenean.

Ordukotz Jenebako apezpikua adin batean zen eta bertzalde ezindua. Ettetzakela beraz joanaraz ongi bere egiteko guziak, kontsekrarazi zuen Frantses apezpiku bezala eta hartu laguntzat. Bizi izatu ziren ere elkarrekin eta batasun saindu batean hiru urthez; eta orduan, apezpiku egiazkoa hil zelakotz, Aita-Sainduak manatu zion san Frantsesi, bera jar zadiela Jenebako apezpiku.

Saindua nahiago ziteken egon halako kargurik eta kargarik gabe, hartatik erori zen Aita-Sainduaren erranera. Eta Jainko Jaunak daki zer ongia egin duen hogoi urthez, edo batera dohana, apezpiku izendatua izatu zenetik eta heriotzeraino.

Bai, egin izatu du ongi handia bere predikuez, katiximez, liburuez, eta santa Xantalekin batean altxatu duen emazten ordena sainduaz.

Eta gero, etzuelarik oraino berrogoi eta hamasei urthe baizik, eritu zen Liongo hirian, eta han berean hil bizitzearen araberrako heriotze sainduaz, abendoaren 2an, 1622an.

Erranak erran, eta ezpanu bertze xehetasunik ematen, geldi nindeke saindu hau, ez-eta ere erdizka, ezagutarazi gabe. Ezen nahiz erran dudan san Frantses ona zela eta eztia. Hargatik eztut deusik kondatu bi egia horien aldera.

Huna beraz ixtorio labur batzu, adiaraziko darokutenak hobeki nolakoak ziren saindu hunen ontasuna eta eztitasuna.

Behin, ordukotz apezpiku zelarik, jeiki zen bertzenaz egiten zen baino lehen, eta sua pizturik hari zen liburutan, su harrek ematen zion argian, ethorri zitzaionean muthila argiarekin, bere tenore edo ordu egun guzietakoan.

Bainan gizon hari osoki gaitzitu zitzaion zeren Jaun Apezpikuak berak egin zituen suaren piztea eta bertze lan batzu. Erran zion beraz mintzo idor batekin: «Jauna, gaizki egin duzu nere ez ekharraraztea».

Eta orduan Sainduak ihardetsi zion ezti-etzia: «Haurra, zuk eztuzu hobenik, nik ezpadezaket loik egin. Eta hortakotz ezta ongi atzarraraz zaitzadan, jeikitzen banaiz behar liteken baino goizago».

Ontasun bera zuen bertze sehien alderat ere. Sehi hetarik batek bazuen sobera edateko aztura edo kostuma madarikatua. Eta nahiz Nagusi maite harrek egin zituen bere egin-ahalak sehiari adiarazteko etze-

la ongi hainbertze arnoren edatea, sehi ondikozkoak ahanzten zituen bere xede eta agintza guziak, zohazkon adiskideak atxeman zetzazken aldi guziz.

Gau batez, orduan ere edana eta burua nahasia, ethorri zen, jadanik bertze sehiak oherat joanak zirelarik. Eta hargatik nola ezpaitzen kanpogan egin nahi, egiten zuen harrabots, atheari joka. San Frantses etzen oraino loharkatua. Jeiki zen. Ideki zion athea. Eta ikusirik muthil trixtea osoki joana zela eskuetarik, eta xutik ere ezin egon zitekela, hartu polliki besotik, eta lagundu zuen bere ganbararat. Eta gero, ezarri zuen ohean haur ttikitto bat ezartzen ohi den bezala.

Biharamunean muthil hura orhoitu zen, norik ezarri zuen ohean eta gainerakoez. Eta ahalkez urtua, Sainduari iheska zabilan. Hargatik elkharraxteman ere zuten nonbeit. Eta orduan Sainduak erran zion:

«Eta haurra, atzo arratsean, ongi eri zinela iduri zinuen. Zer egin zaitzu?».

Aree gehiago ahalkatua halako ontasunaz, muthil gaizoa eman zen belhauniko, eta nigarra zariola galdetu zion barkhamendu. Sainduak, harturik bere besoetan, besarkatu zuen, eta eman zion penitentziatzat, arnori ur xorta baten ezartzea zenbeit egunez.

Eta muthilak egin zuen penitentzia hori, ez zenbeit egunez bakharrik, bainan bere bizi guzian.

Aski zen Sainduaren ikustea, ezagutzeko guziz ona zela. Eta san Bixintxo Paulokoak erraten zuen solhas hau zenbeit aldiz: «Jainko Jaunaren ontasuna nolakoa ahal den, Jenebako Jauna hain ona denaz geroz!».

San Frantsesi oraino, ekharri zioten behin aintzineran muthil gazte bat, nihork ezin moldatua zela; eta othoi, erran zezola zenbeit gaizki biphil-biphila. Bainan saindua mintzatu zitzaion eztiki, eta bethi bezala. Eta ikusiz nola gogortua zen haren bihotza, nigar egin zuen, ziolarik gaizki hil beharra zela.

Horren gainean erran zioten amak ere madarikatua zela. Eta orduan san Frantsesek ihardetsi zuen: «Ai! haur dohakabearen ama dohakebeagoa! eta zer egingen du haurrari gerthatzen zaionean bere madarizionearen arabera?».

Ondoko egun batez, ama harrek jakin zuen haren semea eta bertze bat, biak hilkarrean haritu zirela ezpataz, eta haren semea gorputz zela. Eta orduan egin zuen nigar eta heia gora.

Bizkitartean Sainduari galdetu zioten, zergatik etzion erran gaizki edo erreportxu saminagorik. Eta ihardetsi zioten: «Zer nahi duzue? egin



dut egin-ahala bekhaturik gabeko kolera bat hartu nahiz, nere bihotzari ere lotu natzaio bi eskuz, eta ezin arthiki ahal izatu diot begitartea.

»Eta gero, nahi balin baduzue jakin egia guzia, erranen darotzuet, beldur nintzela ixur oren laurden batez, nere bihotzera, hogoi-ta bi urthe hotan, xorta-xorta biltzen hari dudan ezti-ura».

Bertze behin, san Frantsesek eginarazten hari zuen komentu berri bat, eta bera harren aldean zen santa Xantalekin, ikusi zutenean gizon eskale zirtzil bat, hari zela gaixtakeriaz zimenduetarik uraren baztertzeko egina zuten pezoinarean barraiatzen. Sainduak galdetu zion, ian bazakien zer hari zen, utz zezala lan hura. Utz zezala lan hura, erran zion berrizere. Eta eskalea aintzina hari zen, deusik entzun ezpalu bezala.

Orduan santa Xantalek erran zion bizi-bizia: «Emazu aintzina, zaren bezalakoa, eta gero, zathorzkigula, komentuko athera, gosea zarela, eztezula zer jan! Zato-zato berriz ere, izanen duzu!».

Eta orduan san Frantsesek erran zion errumesari: «Bai-bai! joanen zare! Eta aldiz zuk, Xantal, manatuko diozute zure serora lagunei, eman dezotela gogo onez eskas duen guzia».

Santa Xantalek ihardetsi zion san Frantsesi: «Zu bethi hola izanen zare, bethi onegia; eta gero, munduak ederki irri eginen zutaz.

»Baditeke munduak irri eginen darotala, erran zion Sainduak, bainan eztut axolarik, Jesu-Kristoren erranei jarraitzen banaiz. Eta aldi huntan, segur naiz Nagusi Dibino harren nahiaren arabera mintzo naizela».

Ixtorio hautan eta bertze mila holakotan, ageri da ezin hobeki nolakoa zen san Frantsesen ontasuna.

Irakaspena

Bada asko jende iduritzen baitzaiote, gutarik bat-bederak behar duela bizi eta hil, sortzeak eman darozkigun jaidura gaixtoekin; ezkaitez-kela beraz izan ezti, umil eta on gure lagunentzat, non ezkaren sortu horrelako berthutekin.

Huna bizkitartean saindu bat, sortzez borthitza zena eta idor hutsa. Eta hargatik bilhakatu dena Jainkoaren graziarekin batean den hoberena eta ezti. Kendu ditu beraz bihotzetik bi jaidura gaixto bederen, hain ongi non, gauza guziak infrentsuz gora izanik ere, ezpaitzen ez-eta pizten ere batere.

Jainko Jaunak nahi daroku adiarazi saindu hunen bidez, balin bagine ere sortzez jaidura gaixto guziekin, hala ere ganbiatzen eta saindutzen ahal garela, Jainkoaren graziarekin batean.

Zer behar eta aski ginuke hortakotz! Salbatzeko eta saindutzeko nahi egiazkoa. Ez nahikunde hil bat, bainan nahi egiazkoa.

Jainko Jaunak galdetzen gaitu denak bere zerbitzura, eta oiuhu egiten daroku, athera gaiten, galarazi behar gaituen etxe hartarik, utz dezagun bekhaturat lerraraz gaitzazken jende harekilakoa.

Eta guk, egiten diogu menturaz ez entzunarena. Guk, ematen dukegu gure eternitateko zoriona ez-deuskeria batzuentzat. Zer lazakeria! Zer itsumendu deithoragarria! Jainko maitea! iguzu salbatzeko egiazko nahia, eta gero oraino, salbamenduaren egiteko eta saindutzeko behar dugun grazia.



Urtharrilaren 30ean
SANTA MARTINA,
BIRJINA ETA MARTIRA
Hila 226an

Orai ezagutaraztera daramagun birjina gaztearen burasoek lehen herronka zaukaten Erromako hirian; hainitz aspaldikoa zelakotz hekien etxea eta heien onthasunak ere handiak zirelakotz.

Bertzalde Jaun-andreak giristino khartsu batzu ziren, eta hortakotz beharretan ziren guziek bazuten hekien ganik eskas zutena.

Ordean Martinak denbora laburrez izatu zuen buraso hain behar-bezalakoekin bizitzeko atsegina. Ezen aita eta ama biak hil zitzaizkon oraino gazte-gaztea zelarik.

Burasoak hilez geroz, bereak zituen hekien onthasun handiak. Bainan harrek etzioten eskerrik onthasun hekien bidez izan zetzazken atseginei edo ohorei, eta, bihotza sutan Jesus Jaunaren amodioz, eman ziozkaten onthasun guziak errumesei.

Beldur zen alabainan, onthasun hek beretzat atxikiz, etzela aski arin izanen zerurat hegaldatzeko; eta nahiago izatu zuen bizi zenbeit egunez deusik gabe, ezen-ez galdu martir hiltzeko zoriona. Martirioaren egun hura ethorri zitzaion uste baino ere lehen. Ezen, onthasun partitu zitueneko, Aletzandre enperadoreak manatu zioten bere soldaduei preso altxa zetzatela atxemanen zituzten giristino guziak.

Behin beraz soldaduak, joan ziren giristinoak beren othoizten egite-
ra biltzen ziren etxe batera. Eta han aurkhitu zuten Martina gaztea.

Birjina hau etzen izitu, ikusi zuenean preso hartua zela. Eta soldaduek erran ziotenean joan behar zuela heiekin enperadoreen jainkoen adoratzera, ihardetsi zioten: «Bai-bai! zuekin naiz berehala. Othoitz ttiki bat dut egiteko; eta bagohazi».

Eta, bere othoitzarekin batean egin zionean Jainkoari bere biziaren sakrifizioa, jarri zen soldaduen artean, manuak hala zituztenaz geroz, ereman zezatela beren aintzindariaren gana.

Nor zen jakin zuenean, enperadoreak erran zion: «Nahi nuke jakin haurra, ian egia den giristinoen solhas zuriek xoratu zaituztela zu ere, zaren bezalako aitoren-semen alaba zarelarik. Nola sinetsi duzu Jainko izaten ahal zela, eta nola adonatu ahal izatu duzu gurutze baten gainean hilarazi duten gizon bat? Utz zatzu haurkeria horiek. Lehenagorik ere,

zato, Apolon gure jainko handiari sakrifizio baten eskaintzera, eta harrek lagunduko zaitu».

Martina sainduak, begiak apaldua zagolarik, bainan ikhararik gabe, ihardetsi zion:

«Nik adorutzen dudan Jainkoa da egiazko Jainkoa. Hari eskaini diozkat eta eskainiko ere bizi naizeno nere sakrifizioak. Eta zuen Apolonen tenplorat erematen banauzue, ikusiko duzue zer gerthatuko zaion zuen jainkoa delakoari».

Enperadoreak etzuen igurikitzen halako solhas idorren entzutea haur baten ahotik. Behar zuela beraz ikusi, ian iduriarazi nahi zuen bezein hazkar zuen gogoa, manatu zuen ereman zezatela Apolonen tenplorat.

Bidean, Birjina saindu harrek othoitz egin zion Jesus Jaunari, lagun zezala haren graziarekin hasia zuen lanaren ongi akhabatzen. Eta konturik egin gabe haren inguruan zen jende osteari, haritu zen solhasean bere Jesus maitearekin.

Tenplorat heltzean, egin zion oraino ere othoitz hau Jainko Jaunari:

«Jainko botheretsua, gauza guziak ez-deusetarik egin dituzuna, eta nahi izatea aski duzuna berriz ere ez-deus bilhakarazteko, adiaraz zozu orai populu huni zuk dituzula bakharrrik merezi gure ohoreak, eta ez beren tenploetan eta etxetan dituzten iduriek edo potretrek».

Eta ordu beran lur ikhara batek iharrosi eta harritua ezarri zuen hiri guzia, tenploaren erdia lehertu zen, eta Apolonen iduria edo bultoa egin zen mila puska, hilarazten zuelarik asko pagano. Debrua bera ere bortxatua izatu zen mintzatzeraz, eta erran zuen han ziren guziek entzuteko gisan:

«O Martina, zeru lurren Nagusi Handiaren zerbitzaria, kentzen darotan hainbertze denbora huntan nere eskuko nuen tenploa; bai, bano-han ez naizelakotz gai hire Jainkoaren nahiari jazarteko. Ordean hanbat gaixtoago Erromako hiriarentzat».

Bizkitartean jende guzia oihuka hari zen andre gazte hura sorgina zela; behar zela beraz hilarazi lehen-bai-lehen.

Eta enperadoreak, kolerarik handienez, lehertuak izatu ziren jende hekien galtzeaz, eta bereziki zeren lurrean zuen, zabal-zabala, bere tenplo maitea, manatu zuen jo eta uma zezatela Martina ukhail ukhaldika, eta larru eta fundi zezotela gorputz guzia burdinazko krako batzuez.

Manu hori eman zuen bezein laster, lau gizon lotu zitzaizkon, eta hasi, egin-ahala egin, batean alde batetik, bertzean bertzetik, jo nahiz eta jo nahiz. Eta etzakitelarik nola, Martina jo nahi, eta beren buruan joiten zituzten. Gero hartu zituzten burdin krakoak. Eta heiekin ere, zenbatnaz



indar gehiagorekin ematen baitzuten ukhaldia, eta hainbertzenaz ere gehiago minhartzen zuten berek. Eta hortakotz, utzi zuten laster beren lana, arthikitzen zituztelarik beren burdinazko krako lazgarriak.

Lehen lau gizon hek amor eman zutenean, bertze zortzi gizon eman ziren lan berari. Eta, batzuk airean zaukatelarik birjina saindu hura, bertzeak hari zitzaizkon haren gorputza funditu beharrez gerren mehe batzuekin.

Ordean Martinak altxatu zituen begiak eta bihotza atsegabetan direnekin izatea hitzeman duen Jesus maitearen ganat. Eta ordu berean zerutikako argidura eder batek harritu zituen eta lurrari josiak ezarri zortzi burregoak.

Mirakuilu hori santa Martinaren onetan zen. Hargatik Saindu hari esker Jainkoak egin zioten soldaduei ere grazia bat guziz baliosa. Argitu zituen hekien izpirituak. Ezagutu zuten beraz Martinak adoratzeko zuen Jainkoa zela egiazko Jainkoa; eta oihu egin zuten, hek ere giristino zirela, etzutela, hek ere, Martinaren Jainkoaz kanpo bertze jainkorik adoratu.

Eta hazkar egotu zirelakotz sinheste hortan, agintza eta dixidu guzien gatik ere, hil zituzten zortziak.

Biharamunean, oraino ere Martinaren aldi zen. Orduan ere enperadoreak egin ziozkan egin-ahalak, bere jainkoen adorazteko. Eta gero, ikusi zuenean etzela deusik hari, alfer zela mintzatzea gehiago, fundiarazi zion gorputz guzia ganibet ukhaldika, eta azkenean zigor eta azote ukhaldika.

Erratea baino errexago da asmatzea, gerokotz zer heinetan ziteken birjina saindu haren gorputza. Eta halarik-ere izena Umenio zuen Jaun batek erran zion enperadoreari, behar ziozkala errearazi zauri hek, heterat ixuriz xorta-xorta olio irakitua.

Enperadoreak egin zuen solhas horren arabera. Eta jasanarazi nahi izatu zioten paimenik ikharagarriena. Diot, jasanarazi nahi izatu ziotela; ezen burregoak lan horri hari zirelarik, Martinaren izpiritua galdua bezala zagon Jainkoarekin batean, eta beha aingeruen eta sainduen kantu xoragarri.

Ondoko egun batez, ereman zuten bertze jainko faltso baten tenplorat. Bainan Martina tenploan sartzearekin batean, debrua atheratu zen jainko-ordearen iduri hartarik. Bertzalde, ihurtzuririk eta ximixtarik ikharagarrienak hari zirelarik, su batek hartu eta zatikatu zuen iduri hura, eta zatiek hil zuten hainitz pagano.

Mirakuilu horrek etsiarazi zion enperadoreari birjina gazte harren garhaitzea. Eta joan zen etxerat, erranik Justin bere ministroari, egin zeza- la ahal zuena.

Ikusi dugu nola enperadoreak pikarazi eta fundiarazi zion gorputza ganibet eta azote ukhaldika. Justin ministroak kharrakarazi zion burdinazko orraze batekin oraino hezurren gainean zagon haragia; erranarazten ziolarik haragi puska kentzen zioten aldi guziz: «Hire Jainkoak athera hezala gure eskuetarik, ahal badu».

Eta burregoak haritu ziren lan horri, haragirik bazeino Martinaren gorputzean. Erran gabe doha beraz azkenekotz osoki galdua eta funditua zela. Burregoek uste izatu zuten ere behin hila zutela; eta utzi zituzten beren tresna ikharagarriak.

Bainan ez! etzen hila. Eta bizi zela ikusirik, Justinek erran zion: «Martina, egin zan nik errana; eskain zoten sakrifizio bat gure jainkoei, edo baduken bertze oinhazerik ere hiretzat. Ehaiz burura heldua oraino».

Eta birjina saindu harrek ihardetsi zion: «Eginen duzu nitaz dohazuna, jasanaraziko darozkidatzu nahi tutzun tormenta guziak; bainan ez! nik eztiotet sakrifiziorik eskainiko zure jainkoei».

Solhas horrek sutan ezarri zuen ministro gaixtagin hura. Ezen etzakien gehiago zer egin. Hargatik zenbeit egunen buruan arthikarazi zioten lehoinei bazka orde. Bainan Jesus maitearen espos garbi eta khartsu harren ikusteak ezti eta umil bilhakarazi zituen basa-ihizi ikharagarri hek. Eta, xakhur ttiki batzu bezein ezti eta amodiotsu, joan zitzaizkon herrestan zangoen eta eskuen milikatzer.

Eta aldiz gero, beren tegirat sarrarazten hari zituztelarik, lehoinek atxeman zuten Umenio, enperadoreari hain aholku edo kontseilu gaixtoa eman zion jaun hura, eta bi edo hiru matrail ukhaldiz hil eta puskatu zuten.

Lehoinen lana ikusi zuenean, Justinek egin zuen bere baithan behar zuela errearazi Martina. Pitzarazirik beraz su handi bat, arthikarazi zuen birjina saindu hura suaren erdirat. Bainan alferretan, edo, hobeki erratera, bere kaltetan. Ezen haize handi batekin hasi zen uri erauntsi edo uhar ikharagarri batek begiratu zuen Martina erretzetik, eta batere minhartzerik ere bai; eta aldiz, haizeak bazterretarat ereman zituen su garrek errearazi zituzten pagano batzu.

Jakin zituenean berri horiek guziak enperadoreak ikusi zuen etzela bertzerik deusere egiten ahal; eta kondenatu zuen hiltzera ezpataz.



Burregoak eman zion beraz ezpata ukhaldi bat Martina sainduari, eta haren arima ederra joan zen bere Espos Jaunaren ganat bethiereko loriaz gozatzeraz.

Irakaspena

Santa Martinak jasan ditu tormenta suerte guziak, eta heriotzerik ikharagarriena, etzuelakotz arnegatu nahi gure erlisione saildua. Eta bere kuraiaz, pairuaz eta othoitez konbertiarazi ditu bere burregoak berak.

Guk, ez bide dukegu gure odolaren Jesus Jaunarentzat ixurtzeko zorionik. Ez! guri, ez bide daroku nihork erranen utz eta arnega dezagula gure erlisioneaz, edo bertzenaz galduak garela.

Hargatik badire gure kontzientziak manatzen edo debekatzen darozkigun urrats batzu, ezagutarazi behar baitugu baitezpada girstino garela. Halako orduetan, beldur garenean gure kontzientziako mintzoaren arabera egiteko, orhoit gaiten haur gazte batzuk eman darozkiguten etsenpluez.

Eta bereziki zuek gazteak, orhoit zaitezte irakaspentz hartuz, zuen lagun gaixtoek nahiko darotzuetenean eginarazi gaizkia. Ez dixiduka, bainan beren lausengu galgarriez, solhas zikhin eta irri zuriez.

Bai! halako orduetan emazue kontu! Zenbatak galdu direnak horrela!

Eta eztakizuen gertha zuei ere gauza bera, ez ager halako lagun hekien aintzinean, ez joan lagun hekien arterat, zuen nahitara eta gehiagoko beharrik gabe; eta bai, jarraik othoitzari eta komuniatzeari zuen kobesorak erranen darotzuen bezala.